



**guraso.eus**

*Gurasoen premiak asetzeko gunea*

---

# Urtekaria '24



# Sarrera

Hizkuntza erraldoien erdian bizi da gurea, eta erraldoien artean, esparru anitzetan, txikitasunetik lekua egiten gabiltza aspaldian. Sareek eskaintzen digute honetarako aukera; Sare digitalak eta adituen sareak bat egiten dute guraso.eus egitasmoan eta Arrasatetik osatu dugun elkarlanak (Arrasateko Udala, Goiena Komunikazio taldea eta Txatxilipurdi elkarteak) hauspotuta, gurasotasuna eta hazkuntza bezalako gai garrantzitsuen inguruan euskaraz hausnartu dugu 2024. urtean ere.

Esku artean edo pantaila aurrean duzuna, 2024. urtean guraso.eus egitasmoko kolaboratzaileek idatzitako artikulua batzen dituen dokumentua da. Kolaboratzaile bakoitzak bere esparrutik idatziak; batzuk esperientzia pertsonalak oinarri hartuta, besteek ogibideak eskaintako eskarmentutik eta beste batzuk eraldatzeko griñetik. Askatasun osoa utzi diegu aurtengoan ere, eta antzemango duzuenek gai askotarikoak oso estilo ezberdinetako artikuluetan argitaratu ditugu.



# Kolaboratzaileak



**Miren Ros Aiartzaguena**



**Jone Zalduegi**



**Amelia Barquin**



**Mainer Garcia de Vicuña**



**Ainhoa Barrenetxea/  
Leire Telleria**



**Mikel Egibar**



**Txusma Azkona**



**Amaia Agiriano**



**Mireia Centeno**



**Nora Salbotx**



**Idoia Larrañaga**



**Nahia Alkorta**



**Naroa Martinez**



**Irati Aizpurua Alquezar**



**Kike Amonarriz**



**Leyre Cano**





**Mainer Eginu**



**Nerea Agirre**



**Itziar Arregi**



**Koldo Gilsanz**



**Lander Juaristi**



**Ane Ablanedo**



**Ainhoa Arruabarrena**



**Nerea Mendizabal**



**Amaia Arroyo**



**Hiruki Larroxa**



**Maite Garitano**

# Zer da autismoa?

*Maiden Egino*

Autismoa eta EAN (Espektro Autistaren Nahasmendua; gaztelaniaz TEA-Trastorno del Espectro Autista) terminoak neurogarapenaren nahasmendu konplexuen multzo bati egiten die erreferentzia. Nahasmendu horiek, interakzio sozialeko zailtasunak dituzte ezaugarri, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa, jokabide errepikakorrak, izaera estereotipatuko interesak eta jarduerak barne. EAN terminoak autismoa espektroaren nahasmendua dela esan nahi du, eta horrek pertsona bakoitzaren arabera, zeinuen eta sintomen hasiera eta izaera aldatu egiten direla esan nahi du eta sintoma hauek arinak edo larriak izan daitezke.

## EANa 3 motatan sailka daitezke:

- Nahaste autista (batzuetan autismo klasikoa esaten zaio).
- Asperger sindromea (Asperger nahasmendua ere esaten zaio).
- Zehaztu gabeko garapenaren nahasmendu orokortua, autismo atipikoa ere deitua. Diagnostikoa nahasmendu autistaren edo Asperger sindromearen irizpide batzuk betetzen dituzten haurrengan ezarri ohi da, baina ez guztietan.

EAN diagnostikoa duten pertsona askok, arazo intelektualak edo kognitiboak dituzte, mugimenduaren koordinazioarekin arazoak dituzte, arreta eskasiaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua eta loaren alterazioak ere izan ditzakete; hala ere, beste batzuek talentu handia dute eta ikaskuntzaren zenbait arlotan nabarmentzen dira.



## Autismoaren espektroko nahasmenduen konparaketa:

	Nahaste autista	Asperger sindromea	Autismo atipikoa
Hizkuntzaren atzerapena	Esanguratsuak	Ez daude	Eskasak eta arinak
Komunikazio alterazioak	Esanguratsuak	Ez daude	Eskasak eta arinak
Zailtasun sozialak	Esanguratsuak	Arinak	Arinak
Portaera eta interes ez oso ohikoak, eskuen hegal gisa mugitzea, gorpuzaren kulunkatzea eta interes obsesiboak	Bai	Arinak	Eskasak eta arinak
Desgaitasun intelektuala	Ohikoa	Ez dago	Arinak

## Zergatik igo da EANren nagusitasuna? Kausak:

Nahiz eta gaur egun EANren diagnostikoa inoiz baino haur gehiagorengan ezartzen den, ez dakigu zehatz hori, diagnostiko-irizpideak aldatuta eta nahasmendu horiei buruzko kontzientziario handiagoaren ondorioz, benetan arazo horien nagusitasuna handitzearen edo EANren definizioa zabaltzearen ondorio den.

EANren kausei buruzko teoria asko proposatu dira, baina oraindik ez dago azalpen zehatzik nahasmendu horien jatorriari buruz.

## AENen zantzuak eta sintomak haur txikiengan

EANen zeinuak eta sintomak oso indibidualak dira. Jarraian adierazten diren alarma-zeinuren bat duen edozein haur EANn espezialista den aditu batengana bideratu beharko litzateke, ebaluazio diagnostiko egoki bat egin dezan eta beharra izanez gero, disziplina anitzeko tratamendu batekin hasteko (psikomotrizista, logopeda, psikologoa, eta abar).

- 12 hilabete beteta dituenean, ez du zezelka hitz egiten eta bere izenagatik deitzean ez du erantzuten.
- 14 hilabete beteta dituenean, ez du eskuarekin agur keinurik egiten eta ez ditu bere intereseko objektuak eskuarekin seinalatzen.
- 16 hilabete bete dituenean, ez ditu hitzik esaten, ezta 24 hilabete beteta dituenean, esaldi esanguratsurik esaten ere.
- Ez ditu gurasoen aurpegiak imitatzen, ezta irribarre egiten diotenean irribarrerik egiten ere.
- Ez du begiradarekin kontakturik ezartzen.
- 18 hilabete bete dituenean, ez du simulazio-jokorik egiten (adibidez, panpin bat elikatzeko simulazioa egin).
- Eskuen hegal-mugimenduak edo gorputzaren kulunka-mugimenduak erakusten ditu, edo birak ematen ditu zirkuluetan.
- Ez du beste hurrekiko interakziorik erakusten.
- Ez du besarkadarik ematen, eta ez die besarkadei erantzuten.
- Besteiei entzuten dizkien hitzak automatikoki errepikatzen ditu (ecolalia).
- Obsesiboki errepikatzen ditu hitzak edo esaldiak.
- Jostailuak edo bestelako objektuak lerrokatzen ditu.
- Jostailuekin beti modu berean jolasten du.
- Aldaketa arinen ondorioz erraz haserretzen da.
- Objektu baten zati batekiko interes berezia

erakusten du, hala nola jostailuzko kotxe txiki baten gurpilekiko adibidez.

- Gauzen soinuen, usainaren, dastamenaren, itxuraren edo ehunduraren aurrean oso ohikoak ez diren erreakzioak agertzen ditu.
- Aurrez ikasitako gizarte-trabetasunen edo komunikazio-trebetasunak galtzen ditu.

Diagnostiko eta tratamendu goiztiarrak funtsezkoak dira EAN duten hurrei laguntza eraginkorra emateko. Baita, gurasoek ezagutzen ez duten egoerara egokitzeko eta behar duten laguntza jasotzeko, informazioa te baliabideak eskeintzea ere.



# Zer da behar-beharrezkoa seme-alabekiko harremanetan?

*Leire Cano*

Irakurtzen jarraitu aurretik, burura etortzen zaizun lehengoa idaztea proposatzen dizut. Egon pixka batean, itxoin... beste hainbat ideia azalartzen ari dira, ezta? Hartu denbora zure usteak behatzeko, zer pentsatzen duzun ikusteko, kontziente izateko...

Hortxe niri datozkidan lehenengoak: **begiradak, besarkadak, etalaztanak. Konektatzea, xamurtasuna. Tinkotasuna mugak argitasunez eta asertibitatez jarritz. Denbora hartzea, bakarkako kalitatezko denbora partekatzea, presentziaren kalitatea zaintzea – egonkorra, lasaia, tinkoa..., konfiantza eta segurtasuna sortzea, eta elkarrekin jolastea, gozatzea. Helduok geure burua erregulatzeko gai izatea, emozio eta beharrak identifikatu eta asetuz, haurren bidelagun emozionalak izateko trebatuz.**

## Polita paperaren gainean, ezta?

Lurreratu dezagun guzti hau. “Bai zera, hori guztia egitea gaur egungo bizimoduarekin ezinezkoa da” esango lidake baten batek. Bueno, beharbada... proposamena helburua zein den argi izatea da eta bide laguntza eta ohitura ahalik eta aproposenak sortzea litzateke. Guraso izateko ere trebatzea beharrezkoa da eta. Zenbat ordu pasa ditugu gure lanbideetan trebatzen, prestatzen, esperimentatzen...? Eta gogoko ditugun zaletasunetan? Zenbat ordu eskaini dizkiogu kirol bati, musika instrumentu bati, dantza, artea edo dena delakoari... ?

Gaurkoan hainbat gairen inguruan gogoeta sustatu nahian nator, jakinda ere, guraso izatea izugarritzko erronka dela eta ez dela batere erraza, ez dagoela errezeta magikorik eta guraso bakoitzak bere prozesua egin beharko duela bere haurtzaro eta nerabezaroko bizipenek ere beren pisua eta eragina dutelako. Beraz, prozesu bakoitza berezi eta bakarra da.

Hori bai, hasteko bi gako proposatzen dizkizut: batetik kontuz errudun sentitzearekin toxikoa da eta, bestetik guraso bezala erantzukizuna hartzea beharrezkoa dela. Ez badakit ikasiz, informatuz, trebatuz. Jakin



baldin badakit baina praktikan ez badut lortzen, estrategia berriak probatuz edo norberaren istorioa berrikusiz eta automatismoak desaktibatuz. Prozesu bat dela ulertuta, begirunez, pazientziaraz, pausoka aurrera eginez.

Harremanen gaia oso garrantzitsua da, guraso eta seme-alaben arteko harremanak, haurrek dituzten lehenengoak izanik haurren etorkizuneko harremantzeko modua baldintzatu ohi dutelako. Baina hasi gaiten zehazten oinarri-oinarritik abiatuz:

## Zer behar du haur batek gurasoengandik?

Segurtasuna eta ikusia, ulertua sentitzea.

Entzuna sentitzea, bere beharrak identifikatzen eta asetzen ditugula ikustea. Kontuz, benetako beharra eta desioak gauza desberdinak dira.

Haur batek bere gurasoen bide laguntza, presentzia zentratua behar du.

Konexioa sortu eta mantentzea.

Era berean, begietara begiratzuz, elkarrekin barre eginez, jolastuz, esploratuz, elkarrekin sortuz konektatuak sentitzea, sintonizatuak sentitzea. Oheratzen eta esnatzean sintonizatzeako, konektatzeko momentu garrantzitsuak iruditzen zaizkit.

Eta konexio hori mantentzea, haserre, triste, edo gainezka bagaude ere. Argi dago hori erronka handia izan daitekela. “Oso haserre nago gertatu denarekin, era berean maite zaitut eta beti maiteko zaitut”. Horrelakoek laguntzen dute eta beraiei ere transmititu, haserrea bere funtzioa duen emozio bat da eta espresatu dezakegu eta ondoren kudeatu eta bideratu, gure buruari edo beste norbaiti min ematea ordea ez da onuragarria edo onargarria. “Sutan jartzen nauzu”, “A ze astuna zaren!” eta antzekoek esaldiek konexioa mozten dute eta erantzukizun emozionala ekiditea dakar. Ni haserretu naiz egoera horren aurrean... ni naiz heldua eta nik nire burua kudeatu eta haserre hori bideratzea nire esku dago.

Emozio eta beharrak identifikatu eta irabazle-irabazle irtenbideak bilatzea.

Portaerak izeberg-aren puntan daude, uretatik kanpo eta ikusten ditugunak dira. Garrantzitsua da portaera hori eragin duen emozioa identifikatzea, eta emozio hori aktibatu duen beharra identifikatu eta asetzea. Bai haurrenak bai geureak ere, bi aldeen beharrak asetuz.

Horretarako benetan entzun behar ditugu, esaten dutena arretaz entzunez eta esaten ez dutena somatuz ere.

Atxikimendu segurua bermatzea

Haurrari maitasuna eskaini beti, beharra duenean lasaitu, babestu, penak arindu, kontsolatu... Hau da, berauentzako presente gaudela sentitu behar dute, babes fisiko eta emozionala emanaz. Ondoezik daudenean enpatia, sentsibilitatea eta ulertzen ditugula erakustea.

Emozioak balidatzea, hau da espazioa ematea, errespetatzea eta onartzea eta emozioak erregulatzen laguntzea, segurtasuna emanaz. Diren bezala onartuz.

Pantaila, mugikorren kudeaketa eta jolasaren garrantzia

Kontuz mugikorren gure erabilerarekin, uneoro egiten duguna ikusten eta kopiatzen ari bai dira. Mugikorrek eta pantailak haurrekin ditugun kalitatezko denbora eta interakzioak murrizten dituzte. Oso oso garrantzitsua da beraiekin hartu-emanen aritzea, konektatzea, haiekin aktiboki jolastea. Pantailen pasibotasunetik eta hiperaktibaziotik irtenda. Jolas

librea sustatzea, elkarrekin jolas eta barre egitea behar-beharrezkoa da. Gainera jolasak erregulazioa bermatzen du. Etxean ere, ezkutaketa, ezkutaketa alderantziz, ikusi-makusi, “Bat, bi, hiru, eguzki!”, masajeak eta antzeko jolasek emozionalki orekatzeko baliagarriak izan daitezke eta konexioa areagotzeko, jolasa bai da haurren hizkuntza.

### Eta guraso batek zer behar du?

Dauzkagun ideia edo usteak behatu eta errebisatzea, batez ere hainbat ideia deuseztatu eta beste hainbat ulertzea baliagarria izan daitekela iruditzen zait:

-Haurrak haurrak direla eta haur bezala jokatu behar dutela ulertzea eta horren arabera geure **espektatibak neurtzea**, doitzea. Batzuetan egiten dizkiegun eskaerak ez datoz bat haien gaitasunekin, adinaren arabera ezaugarriak ezagutzeak laguntzen digu.

-**Autoritatea eta boterearen erabileraren** inguruan gogoeta bat egitea. Haur txintxoak nahi ditugu? Benetan? Sumisoak direnak? Guk esaten duguna guk nahi dugun bezala egiten dutenak? Edo pentsamendu kritikoa sustatu nahi dugu, asertiboki ezetz esateko gai diren haur eta nerabeak nahi ditugu, beren burua defendatzeko gaitasuna garatu dutenak? Kontuz, askatasuna ez da muga eza. Mugarik ez baditugu jartzen hurrek ez dute autoestimua sano bat garatuko, ezta ere segurtasuna eta nerabezeroan muturretara joan daitezke muga horien bila. Mugek bere neurrian, hurrei mundua libreki esploratzeko behar duten segurtasuna eskainiko diete.

-Seme-alabek maiz **ispilu efektua** egiten dutela ulertzea erabilgarri dela iruditzen zait ere. Norberaren haurtzaro eta nerabezeroan bizitakoak, kontzienteki ala inkontzienteki, korapilatuta gelditu direnak batez ere, azalaraziko dituztela.

-Zaila izan daiteke, haur edo nerabe bezala jaso ez duzuna zuk guraso bezala ematea. Baina trebatuz hori aldatu daiteke, gustuko ez ditugun horiek desikasiz eta estrategia berriak barneratu eta erabiliz.

-Maiz **automatikoki nahi ez ditugun portaerak azaltzen zaizkigu** eta batere gustuko ez baditugu ere, bere logika dute. “Guraso naizenean ez dut sekula hori egingo (nire gurasoek egiten zuten hori bereziki)”. Eta guraso izan bezain pronto zas! zuzenean irtetzen da egin nahi ez nuen hori, ezta? Hau oso ohikoa da, gogoratu! **kontuz errudun sentitzearekin**, oso

toxikoa da eta. Identifikatu noiz gertatzen den hori eta bilatu beste estrategiak.

-Haurrek **denbora hartzea** behar dute, mantsoago joateak mesede egiten die askotan. Gaur egun hain presente dagoen presa, estresa, ziztu-bizian joate horrek, eskolaz gaindiko jarduera eta agenda bete-beteek, ez die eta ez digu laguntzen. Hori helduon eta gizartearen kontua da, ez da beraien **erritmo naturala** eta nolabait hazkuntza oztopatzen du.

-Norbere buruaz hausnartzea garrantzitsua eta eraginkorra izan daiteke. **“Termometro emozionala” erabili: Nola nago?** Zentratua al nago? Nire boterean? Edo nire honetik kanpo nago, gainezka? Sutan? Hala bada, zer egin dezaket nire burua erregulatzeko eta nire onera bueltatzeko?

-**Hitzik gabeko komunikazioa** oso garrantzitsua da. Haurrek antzematen gaituzte, “usaintzen” gaituzte: “zaldi-hizkuntza” aipatu ohi dut guraso trebakuntzetan. Zaldi baten gainean beldurrez bagaude ezer onik ez da irtengo, ezta? Zaldiak geure beldurra usaindu, sentituko du. Animaliekin hartu-emanen hau oso argia da, ez dugu hitzik behar. Ba pertsonen artean ere antzeko zerbait gertatzen da eta are gehiago haurrekin, izugarrizko antena finak dauzkate eta. Beraz, zer eta nola esaten dugun garrantzitsua bada ere, zer transmititzen ari garen garrantzitsuagoa da, zer antzematen ari diren. Eta hau gure **presentziaren kalitatearekin** erabat lotua dago. Jarri dezagun arreta gehiago presentzia horretan, edozein harremanetan aldaketa esanguratsua sortuko du.

-**Botere harremanak.** Nolakoa da autoritatearekiko dudak harremana? Guraso bezala dagokidan lidergo rola nola gauzatzen dut? Nire boterea nola erabiltzen dut familian? Ba al daude mehatxu, inposaketak, manipulazioak, e.a.? Tamalez txikitatik halako jarrera asko barnerratu ditugu gustatu ala ez eta alternatiba asertiboak bereganatzeko premia izan ohi dugu, ezta? Proposamen sinple bat, zeure burua grabatu, jarri mugikorra etxean zuen hartu-emanak erregistratzen eta ondoren zure burua errespetatuz eta autoenpatiaz, zurekin xamurtasunez jardunez behatu. Ikasteko begiradarekin, ez zeure burua kritikatu eta matxakatzeko. Eta hortik abiatuz joan pixkanaka aurrerapausoak ematen, aldaketa txikiak eginez, kontzientzia areagotuz... Trebatu, entrenatu, praktikatu behin eta berriz, aldaketa posible da eta. Aurrera!



# Adimen gaitasun handia eta “dislexia ezkutua”

*Amaia Agiriano*

Ez naiz logopeda; ez eta psikologo klinikoa ere, baina kontsultan askotan agertzen zaidan gai bat ekarri nahi dut gaurkoan: adimen gaitasun handia eta “dislexia ezkutua”.

Dislexia, modu sinplean esanda, irakurtzen ikasteko zailtasuna da, adimen koefiziente normal bat eta zailtasun horiek azaltzen dituen arazo fisiko edo psikologikorik ez duen haur batetan ager daitekeena (Oltra, 2019). Baina, zer gertatzen da haur horren adimen koefizientea normala baino altuagoa denean?

Markel (aldatutako izena) hamabi urte zituela etorri zen lehen aldiz kontsultara, bere gurasoek lagunduta. Oso mutil argia eta bizia zirudien, baina gurasoen hitzetan, eskolako zereginekin, “ganora gutxikoa”. Honela kontatzen zuten: “txiki txikitatik atentzioa deitu du bere hitz egiteko moduagatik. Oso hiztegi aberatsa eta hizkuntza aurreratua izan du beti eta bost urte zituela egin zitzaion ebaluazio psikopedagogikoan adimen gaitasun handia duela ikusi zen. Hala ere, ikasketetarako sekula ez du grina berezirik erakutsi; tira, eskolako ikasketetarako. Berak nahi dituen gauzak, era batera edo bestera, berehala ikasten ditu. Lehen Hezkuntza emaitza nahiko onekin gainditu zuen, nahiz eta ez zuen lan handirik egiten, baina Bigarren Hezkuntza geroz eta okerrago dabil (pasa den hiruhilekoan bi gutxiegi atera zituen). Tutoreak dio gelan oso ekarpen interesgarriak egiten dituela debate eta ahozko saioretan, baina lanak egiterakoan despistatu egiten dela, batzuetan ez dituela eginbeharrak amaitzen eta akats tonto asko burutzen dituela. Urteak daramazkigu lan gehiago egin behar duela esaten, arreta gehiago jarri behar duela eskolan, ... baina alferrik da. Jada ez dakigu zer egin ...”.

Ea irakurtzerakoan zailtasunik duen galdetu nionean, Markelek ez dakiela erantzun zidan. Gurasoek aldiz, ezetz, edo ez zutela uste. Txikitan hizki batzuk konfunditzen zituela eta hitz batzuk asmatu, baina orain asko irakurtzen duela eta eskolan ere bere irakurketa-maila ona dela esan



dietela irakasleek beti, Lehen Hezkuntzan batez ere. Ez ona bakarrik; gelakide gehienena baino hobea ere bai. Beraz, badirudi ez dela dislexiarik, baina horixe da gaitasun handiko ikasleei irakurketa-zailtasunak ez antzemateko arrazoitariko bat: beren gelakideen irakurketa-mailarekin alderatzea. Izan ere, posible da gaitasun handiko ikasle batek dislexia izatea, baina bere adinkideekin alderatuta, bere irakurketa-maila normaltasunaren barnean egotea (edo baita hobea izatea ere). Hizkuntza-trebetasun aurreratuei esker, dislexian irakurketa-arazoak eragiten dituzten maila baxuko entzumen- eta ikusmen-prozesamendu defizitak konpentsatzeko gai dira.

Brock Eide eta Fernet Eide doktoreak maiz aurkitzen ziren horrelako ikasleekin eta 2005ean “dislexia ezkutua” terminoa sortu zuten. Dislexia, irakurtzeko zailtasunaz gain, esku-idazkeraz, ahozko hizkuntzaz, matematikarekin, plangintza eta koordinazio motorrekin, antolaketarekin, arretarekin, orientazioarekin, pertzepzio espazialarekin, entzumen eta ikusmen prozesamendurekin, begien mugimenduen kontrolarekin, memoriarekin, ... lotuta egon daiteke eta, “dislexia ezkutua” zuten gaitasun handiko ikasleei, besteak beste, ezaugarri hauek antzeman zizkien:

Zailtasunak testuak prozesatzerakoan eta idazterakoan.

Proba neurologiko eta neuropsikologikoetan dislexiaren ezaugarri diren entzumen, ikusmen,



hizkuntza eta prozesamendu motorreko gabeziekin bat datozen aurkikuntzak.

Beraien adinkideen pareko irakurketa-trebetasuna edo hobea, isilean irakurritakoaren ulermenean behintzat.

Gehienetan hizkuntzari lotutako gaitasun aurreratuak izaten dituzte, baina alde handia egon ohi da ahozko eta idatzizko lanen artean. Oso ondo moldatzen dira ahoz azaldu behar dutenean, baina gehiago kostatzen zaie hori bera idatziz adierazterakoan. Disgrafia (idazteko zailtasuna) eta disortografia (ortografia zailtasuna) izan ditzakete, eta baita koordinazio-motor egokiak egiteko zailtasunak ere (adibidez, kopiaketetan).

Irakurketari dagokionean, ikasle hauek askoz hobeto irakurtzen dute isilean altuan baino, eta orokorrean, hobeto ulertzen dituzte testu luzeak motzak baino. Hau da, posible da liburu bat irakurri eta ondo ulertzea (bere osotasunean), baina agian zailtasunak dituzte lauzpabost lerroko ariketa batetako azalpena irakurri eta ulertzerakoan. Izan ere, testu luze batetan, berdin dio hitz batzuk gaizki irakurtzeak, aurrera egin ahala, hariari jarraiki, behar diren zuzenketak egiten dituelako buruak. Testua laburra denean aldiz, tarte gutxiago dago aurrera egin ahala zuzenketak egiteko, eta gaizki ulertuz gero, erraza da “akats tontoak” egitea (matematikan, aukera anitzeko galderak erantzutean, ...).

Luz Rellok dioen bezala, dislexia duten ikasleak ez dira ez alperrak eta ezta despistatuak ere, ahalik eta azkarren detektatu eta ikasketetan aurrera egiteko esku-hartze egoki bat behar dutenak baizik, beren burmuinak ezberdin funtzionatzen duelako.

Gaitasun handia eta dislexia elkartzen diren kasuetan ere detekzio goiztiarra oso garrantzitsua da, arazoak agertu aurretik, esku-hartzeko aukera ematen duelako. Gaian aditua den Yolanda Benitok azaltzen duen eran, garrantzitsua da ikasle hauei irakurketa-idazketan dituzten zailtasunetan laguntzea, baina baita beren adin mentala kontutan hartzea ere. Bietatik behar dute. Gainera, askok autokontzeptu eta autoestimua kaskarra izan ohi dute eta komenigarria izaten da beren arlo emozionala ere indartzea, nortzuk eta nolakoak diren ulertuz eta onartuz, beren buruarekin eta gainerako ikasleekin ahalik eta harremanik osasuntsuenak izan ditzaten.

Azkenik, esan, adin mentala edo heldutasuna aintzat hartzea detekzioan ere lagungarri gerta daitekeela. Lorea (aldatutako izena) eta bere gurasoak, Loreak bederatzi urte zituela etorri ziren lehen aldiz kontsultara. Laugarren mailan zegoen, baina ez zuen bere gelakideekin bat egiten eta oso gaizki pasatzen zebilen. Baita gurasoak ere. Halako batetan, ea sekula gaitasun handikoa izan zitekeen pentsatu ote zuten galdetu nien gurasoei, eta honelaxe erantzun zuen aitak: “egia esan, Lorea, duen adinerako, oso heldua da; beti izan da. Batzuetan, uste dugu, lagunekin ere horregatik ez duela bat egiten. Bere erantzunek denok aho zabalik uzten gintuzten txikia zenean, baina gaitasun handikoa denik ez dugu uste. Eskolan dena gainditzen du, baina bere emaitzak ez dira apartekoak”. Geroxeago, irakurtzea ez zuela gogoko aipatu zuen alabak, eta idazten kostatu egiten zitzaiola, ingelesean batez ere. Dislexia eta gaitasun handien susmoa piztu, eta ebaluazio bat egitea izango zela onena pentsatu genuen. Bietan baiezkoa eman zuen.

Loreak, dislexiaz gain adimen gaitasun handia ere ezkutuan zuen. Batak bestea ezkututzen zion.

Gaur, detekzioari eta esku-hartze egoki bati esker, 6. mailan dago, pozik, arlo akademikoan eta sozio-emozionalean ere aurrerapen handia egin duelarik.

Markel ere aurrera doa. Gurasoek eta irakasleek ez dute jada mutiko ganoragabeko eta despistatu bat ikusten; gaitasun handiak eta dislexia dituen baizik. Begirada aldaketa honek izugarri lagundu dio bere autokontzeptua eta autoestimua hobetzen, eta geroz eta “akats tonto” gutxiago egiten ditu.

Detekzio eta esku-hartze goiztiarrak beren etorkizuna erabat alda dezakete. Eskerrik asko!

### **Bibliografia:**

Benito, Y. (2017). Problemas de comprensión lectora en niños con altas capacidades. <https://www.altascapacidadesy talentos.com/altascapacidades-y-dislexia-video/>

Eide, B. L. eta Eide, F. F. (2005). Stealth Dyslexia, Twice-Exceptional Newsletter. <https://www.dyslexicadvantage.org/wp-content/uploads/2018/07/Stealth-Dyslexia-2E-original-article.pdf>

Oltra, V. (2019). La Dislexia: recuperación de los problemas de lectoescritura.

<https://dislexiaeuskadi.com/la-dislexia-recuperacion-de-los-problemas-de-lectoescritura/>

Pérez, A. (2023). Ni vagos ni despistados: la dislexia, un problema al que no se le da importancia y sólo puedes solucionar si lo detectas, según Luz Rello. Infobae.

<https://www.infobae.com/espana/2023/07/16/ni-vagos-ni-despistados-la-dislexia-un-problema-al-que-no-se-le-da-importancia-y-solo-puedes-solucionar-si-lo-detectas-segun-luz-reлло/>

# Naturan ikastearen onurak

*Lander Juaristi*

Aspalditik gabilta Txatxilipurdi elkartean naturarekin dugun harremanaz hausnartzen. Gure egitasmo eta lan ildoetan harreman honetan sakontzeko saiakerak egin ditugu baita egitasmo berriak sortu edo abiarazi ere. Azken urteotan egin izan dugun moduan, teoriatik praktikara eta praktikatik teoriara saltoka gabilta. Naturan jolasean egitasmoa jarri genuen martxan, Heike Freireren Berdean Hezi liburua euskaratu genuen eta gure eguneroko egitasmotan naturara hurbiltzen saiatzen gara baita honek dakartzan onuren inguruan lan talde ezberdinetan hausnartzen ere. Erreka auzolana herrian eta bailaran sustatu eta indartzeko elkarteak xaxatzaile eta antolatzaile rola hartu zuen. Ludoteka eta gaztetxoko proiektutan, udalekuetan edo bestela egiten ditugun bide laguntza edo tailerretan ere beti hartzen dugu aintzat naturarekin dugun harremana.

Guraso.eus egitasmoan ere behin baino gehiagotan hausnartu dugu honetaz, kolaboratzaileak ditugu gaia lantzeko eta natur eremuetarako aisialdirako eskaintza ezberdinak sortu eta sustatu ditugu.

Esan bezala, teoriatik praktikara salto egin eta berriz burura itzuli gara, gero berriz gorputzetik eragiteko, lokazteko, hanka sartu eta ezinetik ikasteko.

Bide honetan formazioak ere garrantzia handia duela deritzogu, elkarteko kide ezberdinek formazio ezberdinak egin izan dituzte azken urteetan eta aste bukaera honetan bertan, baso eskola metodologia ikastera joan gara elkarteko lau kide. Baso eskola, baso udalekuak, baso ludotekak posible direla ikusi dugu. Baditugu erronkak aurrera begira.

Naturan ikastearen onurez hitz egin ziguten formazioan, beraien bizipenak ezagutu genituen, zailtasunak, ametsak, magia... gure erronka baina, gure eguneroko errealitatera ideiak ekarri eta egitasmo egingarriak sortzean datza. Naturan ikasteaz baino naturan jolastearen garrantzia aldarrikatu eta berau sustatzen jarraitu nahi dugu. Naturara hurbiltzeko aitzakiak egitasmoak eta ideiak baditugu, orain aliantzak behar ditugu, udalekin, gurasoekin,



eragileekin, haur eta nerabeekin harreman honetan sakontzeko.

Aste honetan 3-6 urte bitarteko hurrekin lan egiten duen Baso eskolaren esperientzia jaso dugu elkarteko lau lagunek, Donostiko Uli mendian izan da ikastaroa eta Jara Loira izan dugu bidelagun. Formazioko azken atala edo galdera ekarri nahi izan dugu gaurkoan [guraso.eus](http://guraso.eus) egitasmoa. Zein onura ditu naturan ikasteak?

## Garapen kognitiboa

Haurren kontzentrazio-gaitasuna nabarmen hobetzen da natura ukitzen dutenean; gainera, naturaren eragin positiboak denboran irauten du. Natur ingurune batean egoteak behaketa sustatzen du, ikertzeraz eta arreta handiz aztertzeraz bultzatzen gaitu, batez ere beste izaki bizidun batzuen portaera jarduerak deskubritzen hasten garenean. Haur hezkuntzan baso eskolan izan diren haurrak, Lehen Hezkuntzan sartzen direnean, ikasgelako edukiari hobeto jarraitzen diote eta arreta handiagoa jartzen dute, beren iritzia hobeto argudiatzen dute eta etxeko lanak modu independenteagoan egiten dituzte.

Häfner, P. (2002). Kindergarten in nature and forest in Germany: an alternative to traditional kindergarten in the Pre-school education – Heidelberg-eko Unibertsitatea

## Garapen emozionala eta sortzailea

Naturarekin kontaktuan egoteak haurren erresilientzia areagotzen du eta gertaera estresagarriei

aurre egiteko trebetasuna garatzen laguntzen du. Are gehiago, naturan hurrek beraien jolas-objektuak sortzen dituzte, egituratu gabeko materialen oinarria infinitutik abiatuta, hau da, bertan aurkitzen dute jolaserako behar duten guztia: zuhaitzetako fruituak, harriak, makilak, etab.

Baldintza horiek, beraz, beraien ideiak, arauak eta istorioak sortzea sustatzen dute. Hainbat ikerketek erakusten dutenez, natur eremutan jolasten dutenean, hurrek beraien fantasia elikatzen dute, irudimena eta sormena askatzen dituzte.

Wells eta Evans (2003): *Nearby Nature: A Buffer of Life Stress among Rural Children.*

### **Gizarte-garapena**

Ingurune naturalean murgiltzeak hurrei talde kontzientzia pizten laguntzen die (non daude besteak?); izan ere, espazioa eta beraien artean dauden distantziak handiak izan daitezke. Bizi dezaketen egoerek ere (ibai bat zeharkatzea, zuhaitzetara igotzea) arreta handia eskatzen dute, beraiek egitean edo eta besteek egiten dutenean ere.

Naturak egituratu gabeko materialak eskaintzen dituzenez, hurrek ematen dizkiete propietateak. Elementu oso sinpleetatik abiatuta, harriak, fruituak, makilak, hostoak, beraiek sortzen dituzte beren rola, jolasak eta jostailuak. Horrek azaltzen du, agian, zergatik erlazionatzen diren modu berdinean, oso modu esanguratsuan gainera. Ez dago genero ezberdinen arteko desberdintasunik beraiek sortu eta proposatzen dituzten jardueretan.

Natur eremuetan garatzen diren eskoletan ikasi duten ikasleak gatazkak modu baketsuagoan konpontzen hasten dira Lehen Hezkuntzan, eta besteekiko erantzukizun eta begirune handia erakusten dute.

Häfner, P. (2002). *Kindergarten in nature and forest in Germany: an alternative to traditional kindergarten in the Pre-school education* – Heidelberg-eko Unibertsitatea.

### **Mugimenaren garapena**

Lur malkartsu eta anitzetan jarduerak egiteak giharrak indartzen ditu eta gorputzaren gaineko kontrola areagotzen du.

Naturan jolasteak oreka eta erronken aurrean gorputzak duen erantzun gaitasuna hobetzen ditu.

Gainera, egoera horietan, hurrek estimulu zaparrada jasotzen dute, burmuinak etengabe prozesatzen duena.

Hainbat azterlanek garapen psikomotorrean eta, batez ere, motrizitate lodian dituen eragin positiboak erakusten dituzte. Hala ere, motrizitate finari dagokionez, ez da alderik antzeman aire zabaleko eskola batean ikasi zuten haurren eta ikastetxe arruntetan ikasi zutenen artean.

Gorges (2000b). Lettieri (2004). Kiener (2004). Fjortoft (2000). Kiener & Stucki (2001). Grahn et al. (1997).

### **Ingurumen-jarrera**

Naturguneetan garatzen den haur-hezkuntzan esperientzia guztiak benetakoak dira. Hurrek beraien ingurua bizipenez ezagutzen dute: Animalia ezberdinen ohiturak ezagutzen dituzte, eskuak goizeko ihintzarekin bustitzen dituzte askarian gozatuko duten edaria prestatzeko intsusa-loreak biltzera irteten direnean,...

Hainbat adituk egiaztatu dute hurrek naturarekin zenbat eta esperientzia zuzen gehiago izan, orduan eta ongizate handiagoa izango dutela eta ingurumenaren aldeko jarrera eta portaera gehiago sustatuko dituztela.

Hallmann (2015). Corraliza, J. A., eta Collado, S. (2016).



# Motxila aberastu

*Maiden Garcia de Vicuna*

Familian hezten dugu, ikastetxean hezten dugu eta ezinbestean, umeekin harremanetan gauden guztiok, zuzenean edo zeharka, hezten dugu.

Heldu izateak, berez, ez gaitu hezitzaile on egiten, baina askotan helduok hori sinestearen akatsa egin ohi dugu. Bizipen asko ditugu gure motxilan, ezagutza handia ere eta horrek zalantzarik gabe, bizitzari aurre egiteko tresnak errazten dizkigu. Bizitzan zehar motxila pertsonala betetzen joan gara eta gauza horiek guztiak, garen modukoak egiten gaituzte.

Helduok, ordea, hezteko lagungarriak izaten ez diren zenbait gauza daramagu barruan. Horien artean, azken garaian hain entzuna den “adultozentrismoa”. Modu errazean esanda, heldu izateagatik ume eta gazteeak baino hobeak garela sinestea. Jakintsuagoak, arrazoidunak, gaitasun gehiagokoak... Ziur naiz hau irakurtzean askok guri ez zaigula hau gertatzen pentsatuko dugula eta ojala horrela benetan balitz. Egunerokotasunean, ostera, umeen heziketan adultozentrismoak baldintzatutako begirada izaten dugu eta honen aurrean umiltasuna izatea ezinbestekoa da. Bai, helduak ez gara perfektuak, ez dakigu guztia, zalantzak ditugu, eta ikasteko prest egon behar gara.

Bai, badakit guraso.eus ekimenak ikasteko balio digula, baita irakurtzen ditugun liburuak, eta familientzako hitzaldi eta tailerrak ere. Horretan jarraitzea garrantzitsua da, baina ez da nahikoa lehen urratsa ondo ematen ez badugu. Helduok beste helduengandik ikas dezakegu, baina hezi nahi ditugun pertsonengandik ikasteko prest ahal gaude? Umeek zerbait erakutsi ahal digutela uste dugu?

Umeen aldetik asko ikasteko aukera dugu. Umeek bizitza modu sinplean ikusten dute eta beraien arrazoitzeko moduak arazoei irtenbidea emateko lagungarria da askotan. Ez arazo larriei akaso, baina bai askotan gure heldu ikuspuntutik konplikatuegi ikusten ditugun askori. Haurrek ez dituzte jendarte patriarkalaren arau eta estereotipoak hain barneratuak, handitu ahala barneratuagoak eta mingarriagoak. Ume txikiek ez dute berez uste neska/mutilek gauza ezberdinetara jolastu behar dutenik, naturalatsun handiz onartzen dute



umeen transexualitate egoerak, gurasoen banaketak, familia eredu ezberdinak... eta oinarrizko emozioak erraztasun handiagoaz azaltzen dituzte, are txikiagoak, are eta baldintzapen gutxiago dituzte. Hau argi ikusten da gorpurtzaren biluztasunari dagokionez, adibidez, bereziki genitalez aritzean. Ume txikiak eroso sentitu ohi dira biluzik eta beraien gorputza ematen dien guztiagatik maite dute. Handitu ahala lotsaren emozioa gorpurtzari egotziko diote, atal berezietaz hasiko dira hitz egiten, beraien izenak ez dituzte esango eta konplexuak sortuko dira.

Gai hauetan guztietan, umeak behatu eta entzungo bagenitu eta beraien jokaeretatik ikasiko bagenu, mundu hobea eraikiko genuke, zalantzarik gabe. Ez pentsa, ez dut hau inozo hutsa naizelako esaten, haurrek beren parte txarra izan dezakete, noski, baina neurri altu batean helduon eragina izaten da hori. Umeekin harremanetan urte pila daramat, profesional moduan aspaldi eta ama bezala ondoren. Egutero nire bizitzarako baliagarria den zerbait ikasten dut beraiengandik, egutero buruak

klik egiten dit uneren batean eta askotan pentsatzen dut umeak entzuteko eta erabakitzeko espazioak sortu eta hortik ateratzen dena baliatuko bagenu, gure jendarteak etorkizun hobea izango lukeela. Nire motxila umeen artean aberastu egiten da.

Badakit Herri Hezitzailea bezalako dinamikak aspaldi direla martxan. Zer iruditzen zaizue guraso bezala filosofia hori etxean martxan jartzen badugu?

# Berdinen arteko harremanak

*Nerea Mendizabal*

Harremanetan, denok izan gaitezke ikasle zein irakasle. Helduon arteko harremanetan ere, botere-dinamiketan nabigatzen dugu, batzuetan gainetik eta beste batzuetan azpitik, anai-arrebekin, bikotekideekin, lagunekin edo lankideekin. Oreka zail horretan, gure seme-alabak ere ikasten ari dira, eta gure esperientzia hauek haiekin partekatzea lagungarri gerta dakiguke, ikasketa prozesu honetan bidelagun garen heinean.

Denok behar dugu axola dugula jakitea; ongi etorriak, baloratuak, hautatuak izango garela, talde bateko kide garela eta ziur gaudela garen bezala onartuak izango garela. Gure lekua aurkitzeko prozesu horretan, batzuek emozioak edo jarrerak kudeatzen ikasi beharko dute, beste batzuei kalterik ez egiteko. Beste batzuek beren burua errespetatzen, mugak ezartzen eta beren ahotsari eta beharrei lekua ematen ikasi beharko dute. Eta batzuek konfiantza eta ausardia beharko dute liderren aginduei beti ez jarraitzeko.

Erraza da kritika eta kondenaren tranpan erortzea gure seme-alabengan jokabide desegokiak ikusten ditugunean. Batzuetan, gure ezintasunak eta beldurrek beraiengan dugun boterea erabiltzera garamatzate. Baina, aldi berean, ez dugu nahi haiek beren parekoekin berdina egiterik. Horrelako egoeretan, beldurra gailentzen zaigu eta, batzuetan, asmo onenetik jarduten dugu modu mingarrian. Hori errealitate gisa onartzeak abiapuntu bihotzberoagoa eta eraginkorragoa ezartzea ahalbidetzen digu. Umiltasuna besarkatzea eta, helduak garen heinean, etengabe ikasten ari garela onartzea.

Denok ditugu seme-alabak, batzuetan, norbaiti min egiteko moduan jardun dezaketenak, edo haren lekua aurkitzen ez dutenak, edo defendatu ezin direnak, eta kezkatzen gaituzten jokabide jakin batzuen konplize ere izan daitezkeenak. Segurtasunik ezak, ezintasunak eta zauri emozionalek eragina izan dezakete haien ekintzetan. Epaitu beharrean, bere jarreraren atzean izan ditzaketen motibazioak ulertzeak bere esperientzia bakarrarekin konektatzeko aukera emango digu.



Funtsezkoa da ulertzea gure seme edo alabak bere arrazoiak dituela egiten duen moduan jokatzeko, baina horrek ez du esan nahi ados gaudenik edo denak berdin jarrai dezakeenik. Onarpena eta ulermena ez dira nahastu behar ekintza guztiak baldintzarik gabe onartzearekin. Guraso garen aldetik, muga osasungarriak ezartzeko ardura ere badugu.

Adibidez, ikusten badugu gure semeak jarrera oldarkorrak dituela bere lagunetik, funtsezkoa da egoerari irmo heltzea, eta horrek ez du esan nahi indarkeriara jo behar denik. Izan ditzakeen frustrazioak edo segurtasunik ezak ulertzen ditugula adieraz dezakegu, indarkeriaren onargarritasunik ezari buruzko muga argiak ezar ditzakegu adierazpide gisa, eta, aldi berean, bere sentimenduak modu eraikitzailean adierazteko aukera emango dioten estrategiak bilatzen lagun dezakegu.

Aitzitik, kaltegarri zaizkion portaerak jasotzen ari den seme edo alabarekin, bere esperientzia nolakoa den ulertzea, adieraztea, mugak jartzea edo laguntza eskatzea eragozten diona ikertzea, eta babestuta egoteko moduak aurkitzea ahalbidetzen dioten estrategiak sortzea baliagarria izan daiteke.

Laburbilduz, berdinen arteko harremana eremu emankorra da etengabeko ikaskuntzarako, bai haurrentzat, bai helduentzat. Umiltasun, ulermen eta enpatia jarrera hartzean, gure seme-alabak beren garapen emozional eta sozialeko prozesuan gida ditzakegu, eta, aldi berean, gure harremanetan indartzeko ditugun alderdiak ikasteko aukerak agertuko zaizkigu.



# Nola (ez) hitz egin atzerritar jatorriko umeez?

*Amelia Barquin*

Umea hemen jaio zen. Edo atzerrian jaio zen (Maroko, Pakistan, Errumania, Boli Kosta, Siria...) eta bi urterekin etorri zen, edo zazpirekin, zer inporta du.

Bertakotasuna edo hemengotasuna (barkatu hitzkoteak) eraiki behar du, eta berarentzat prozesua konplexuagoa izan daiteke beste batzuentzat baino (familia autoktonoa dutenentzat baino). Berak hemengotasun hori beste pertenezkoa batzuekin uztartu beharko luke, batez ere familiarengandik transmititu zaionarekin. Eta agian bidean gertatu zaionarekin. Egungo migrazio prozesu transnazionalak direla eta, umea, adibidez, Saharan jaio zen, bost urte eman ditu Marseillan eta orain Arrasaten bizi da, eta Marseilla eta frantsesa bere bizitza laburraren parte ere badira. Eta Anberesen eman ditu uda zoragarri batzuk, han dauzkan osaba-izebekin eta lehengusinekin, eta horrek ere kontatzen du.

Konplexua. Eta zaila ere bai, besteak beste hemen ume horri jatorri autoktonoko hainbat herritarrek modu askotara jakinarazten diotelako bera ez dela hemengoa, kanpotarra baizik, berdin hemen jaio ala ez, berdin hemen zenbat denbora eman duen, berdin hemengo eskolara joaten den eta hemengo erreferentziak ere jaso dituen...

Identitateaz ari gara eta identitate plurala eraikitzeke aukeraz. Eta euskal gizartean jatorri atzerritarreko umeek eta ume arrazializatuek oro har identitate plural hori (bertakotasuna barne) eraikitzeke aurkitzen dituzten oztopoez. Ez da edonolako gaia. Euskal gizartean hemengo moduan tratatua ez izateak eta hemengoa ez zarela bizitzeak ondorioak dauzka. Hasteko, egonezin edo min identitario bat ekar dezake, gazte batzuek «inongo ez sentitzea» hitzekin azaltzen dutena; beste batzuei, berriz, kontzeptualizazioa eta hitzak falta zaizkie haien ezinegonaz hitz egiteko, baina distantzia edo amorru berbera espermentatu ditzakete. Identitate erreaktiboak agertzeraino: hemengotzat ez badituzte hartzen, gazteek hangoak



direla ondorioztatu dezakete, hemen jaio diren arren eta hangoarekiko lotura ahula izan arren. Eta gerta daiteke hemengoarekin atxikimendurik ez adieraztea eta are hemengoa arbuiatzea ere, kontrara jokatzeara alegia.

Epe erdira, kohesio sozialaren terminoetan desastrea da. Alderdi linguistikoan, gainera, nola biziko du ume edo gazte batek euskara zerbait propioa dela, berea ere badela, merezi duela, atzerritartasuna komunikatzen bazaio behin eta berriro? Euskara besteena izango da, «hemengoena».

Erne: ume eta gazte horiei bestetasuna adeitsuki jakinarazten zaie gehienetan, hitz desatseginik gabe. Eta askotan hezkuntza mundutik bertatik, borondate onenarekin eta interesa eta jarrera lagunkoia erakusten delakoan.

Irakurle, zure baimenarekin, edonon eta edonoiz entzun ditzakezun esaldi batzuk ekarriko ditut hona ariketa xume bat proposatzeko asmoz: ea hemengotasuna eraikitzen laguntzen/oztopatzen duten.

— «Amina Bilbon jaio zen, bertan bizi da eta hamar urte dauzka, baina bere familia musulmana da»; «Amina Bilbokoa da, nahiz eta musulmana den». (Hitz gakoak baina eta nahiz eta dira, noski. Ez ginateke hasi beharko «bainak» ordezkatzeko, eta «etak» erabiltzeko?).

— «Irakasleek Aminaren kultura ezagutu behar dute». (Umeak kultura bakarra balu bezala, gurasoen



jatorrikoa. Ondorioz, hemengoa, gizartean eta eskolan jasotzen ari dena, ez da berea?).

— «Aminaren gelako umeek beste kultura bat ezagutzeko aukera dute»; «Asko baloratzen dugu eskolan kultura desberdinak elkartzea». (Umeak jatorrizko kulturen ordezkariak balira bezala. Eta berriro kultura bakarraren ideia, jatorrikoa. Eskolan, bestalde, kulturak elkartzen dira? Ala pertsonak, nor bere ezaugarriekin, haietako batzuk kulturalak?).

— «Ume hauek udan haien herrialdera itzultzen dira eta senideekin elkartzen dira». (Herrialde bakarra dute eta hangoa da. Baina orduan herrialde honek zer izan behar du haientzat?).

— «Oso garrantzitsua da ume hauen hizkuntzak eskolan kontuan hartzea». (Bai, noski. Baina umeen hizkuntzak etxeokoa dira soilik?).

— «Ze ondo hitz egiten duzun, ez duzu azenturik ere». (Ez al da lausengu eskasa, abizen euskaldunak dauzkanari eta arrazializatuta ez dagoenari egingo ez geniokeena?).

— «Barkatu, zure izena apur bat zaila da, kar, kar, kar...». (Ez da izango nik oraindik ez dudala ikasi ondo esaten? Zenbat aldiz entzun beharko du komentario berbera? Bestalde, non dago grazia?).

— «Segregazioaren ondorioz, eskola horretan ia ez da gasteiztarrik gelditzen». (Eskola segregazioa lotsagarria da, baina benetan ikasleak ez dira gasteiztarrak? Zer dira orduan?).

— «Nongoa zara, laztana?». (Hori da ume eta gazte arrazializatuei behin eta berriro egiten zaien galdera, erantzun bakarraren esperoan, jatorriarekin lotua. Benetan da beharrezkoa? Horrenbeste aldiz? Formulario baterako «non jaio zara» nahikoa da. «Nongoa» errepikatu horrek zer komunikatzen die herritar horiei?).

— «Ludotekan hiru neba-arreba kolonbiar ditugu, duela zortzi urte auzora etorri zirenak». (Kolonbiarrak betirako? Izendapen errepikatu horrekin zein mezu helarazten zaie haiei zein entzuten dutenei?).

— «¿Qué quieres, bonita?». (Dendan edo kalean ume arrazializatuari gaztelera, baita auzo edo herri batean non eskola bakarra dagoen, D ereduak? Ez galdu ohitura horren kontra UEMAk egin berri duen

kanpaina ederra).

Eta abar. Baina zein autoktonori ez dio inoiz horrelakorik ihes egin? Ez naiz ni izango lehen harria botako duena. Ohar garrantzitsua: nire proposamena ez da termino «gordinak» desagerraraztea edo errealitatearen analisia leuntzea; gizartean eta hezkuntza sisteman dauden egoera latzek — segregazioa, adibidez— adierazpen argiak behar dituzte. Eta, aldi berean, ikasi beharko genuke testuinguru askotan beste modu batera hitz egiten, ume eta gazteei bertakotasuna ez ukatzeko, gauza asko baitaude jokoan.

Gaiak erpin ugari dauzka. Orain bukatzeko, esan dezadan soilik J.L. Austin hizkuntzaren filosofoak aspaldi azaldu zigula hizkuntza ez dela soilik deskriptiboa, alderdi performatiboa ere baduela (How to do things with words, 1955), errealitatea eraikitzen duela. Pentsatu dezagun, beraz, zein den eraiki nahi dugun errealitatea (eta «gu» horretan denok sartzen gara: irakasleak, umeak eta gazteak, guraso immigratuak, kultur eragileak, bizilagunak...). Eraiki dezagun atzerritar jatorriko umeak eta gazteak hemengoak ere badirela, bertakoak, propioak, euskal herritar maitatuak, euskaldunak.

Amelia Barquinen idatzi hau Berrian argitaratu zen 2024ko otsailaren 8an.

# Genero-arrakala STEM disziplinetan haurtzaroan hasten da

*Irati Aizpurua Alquezar*

Soldata-arrakalari buruz hitz egiten dugunean, emakume eta gizonen soldaten arteko aldeari buruz ari gara. Jakin badakigu, mundu mailan, herrialde guztietan, soldata-arrakala dagoela, hau da, gizonek emakumeek baino diru-kopuru handiagoa jasotzen dutela urte amaieran. Horren kausak anitzak dira, eta, gaurkoan, haurrek euren ibilbide profesionala aukeratzean egiten duten hautaketak zer nolako eragina duen aztertu nahiko nuke.

**Zientzian Emakume eta Nesken nazioarteko eguna** ospatu da otsailaren 11an, eta otsailaren 22a **Soldata Berdintasunerako Eguna** da Espainiar Estatuan. Bi egun horietako aldarrikapenak uztartuz, STEM disziplinetan dagoen genero-arrakalak haurren etorkizunean soldata-arrakala dakarrela ondorioztatzen duen artikuluko bateko ondorio nagusiak azalduko ditut.

## Zein dira soldata-arrakalaren azken datuak?

2021eko azken datuen arabera, Espainiar Estatuan emakumeek gizonek baino 5.212 euro gutxiago irabazi zituzten. Modu honetan, soldata-arrakala estatu mailan %18,36koa izan zen urte hartan (2012. urtean %23,93koa izan zen, beraz, beherakada bat egon da).

Soldata ezberdintasun horrek, emakumeek gizonek baino gutxiago kotizatzen dutela esan nahi du eta, ondorioz, gizarte segurantzako hainbat prestazio edo pentsio kobratzeko ordua heltzean, emakumeek diru gutxiago jasotzen dute. Adibiderik garbiena jubilazio pentsioetan dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan gutxieneko pentsioa jasotzen zutenen %75,19a emakumezkoa zen 2018. urtean.

## Ba al du ikasketen hautaketak ondorioz soldata-arrakalan?

STEM disziplinetan (hau da, **zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematikaren** disziplina akademikoetan) emakume gutxiago daudela diote datuek. Joera hori Europako estatu-eremuetan ematean da, baita mundu mailako beste herrialde batzuetan ere. **STEM disziplinako ikasketak aukeratzen dituzten nesken kopurua mutilena**



**baina baxuagoa da.** Eta, horrek, euren etorkizunean eragina du, izan ere, aipatutako zientzia arlo horietan lan eskaintza handia dago, eta **soldata beste sektore batzuetan baino hobea da.**

Unibertsitatean emakume gehiago daude gizonak baino (2022-2023 ikasturtean espainiar estatuan emakumezkoak %56,79a ziren). Baina, disziplinaz disziplina begiratu gero, ezberdintasunak nabariak dira ikasketa motaren arabera. **STEM arloko gradu-eremuetan neskek ez dira klasearen herena izatera heltzen askotan.** Matematika arloan %37,08a dira emakumezkoak, ingeniari-tzan %26,90a eta informatikan %16,23a. Aipatu batez bestekoa lortzeko, beste muturrean dauden ikasketa le-rruetara jo behar dugu: haur hezkuntzan %90,93a, er-izaintzan %81,59a edo psikologian %77,13a dira neskek. Hau da, pertsonekin lan egitea eskatzen duten unibert-sitate karreretan emakumezkoak dira gehiengoa, nabar-men.

Datu horien arabera, datozen urteetan, gizon-eremuetan izango dira nagusi STEM arloko lanbideetan eta, orain-go joerari eutsiz soldata altuko lanpostuak izanez gero, emakumezkoek baino diru-sarrerara handiagoa izango dute, emakume eta gizonen arteko soldata-arrakala mantenduz (edo, agian, areagotuz).

## Ikasketak aukeratzeko orduan, zein eragin dute faktore soziokulturalek?

Jaiotzen garenean, sozializazio prozesu bat ematen da, non inguratzen gaituzten faktore ezberdinek guran era-gina duten (familiak, eskolak, kalean ikusten dugunak, iragarkiek, etab.).

Hausnarketa hauetarako oinarri dudan ikerketa honen arabera, **neskek jaiotzen direnetik jasotzen dituzten mezuek eta euren sozializazio-prozesuak** eragin erabakigarria dute beren ikasketak aukeratzeko orduan, eta sozializazio horrek **urrundu egiten ditu STEM ikasketetatik**. Hau da, txiki-txikitatik eskaintzen dizkiegun jostailuak, arroparen koloreak, hitz egiten diegun moduak... horrek guztiak eragina du. Argi eta garbi, **genero-estereotipoez** ari gara eta, hauen eraginez, neskek pertsonekin harremana duten ikasketak egitea aukeratu ohi dute eta mutilek, berriz, gauzekin loturiko karrerak hautatzen dituzte.

Beraz, hainbat ikerketaren ondorioak batuz, **faktore soziokulturalek ikasketak aukeratzeko orduan eragina dutela ondorioztatzen da**. Adimen artifiziala edo teknologia berriak mutilen gune bihurtuz eta, emozioak, zaintza eta pertsonen arteko harremanak emakumeei esleituz.

#### **Noiz barneratzen dira genero estereotipoak?**

Aipatutako ikerketen arabera, 4 eta 6 urte bitarteko haurrek oso barneratuta dituzte generoen arabeko bereizkeriak. Haurtzaroan zehar esleitu zaien generoaren arabeko jokaerak izango dituzte, eta horrek eragin zuzena izango du nerabezaroan aukeratu duten formakuntza edo ikasketa bidearekin.

Adibide modura, beste ikerketa honen emaitza hauek oso esanguratsuak dira. Hainbat haurri “zientzialari” bat marrazteko eskatu zitzaie. Sei urteko nesken %70ek zientzialaria emakume gisa marraztu zuen, baina hamasei urteko nesken %25ek bakarrik adierazi zuen emakume modura. Hau da, adinean aurrera egin ahala, “zientzialariaren” irudia maskulinoa bihurtzen doa.

#### **Nola eragin dezakegu, guraso gisa, genero- eta soldata-arrakala honetan?**

Esan bezala, genero estereotipoak sozializazioaren bitartez barneratzen goaz bizitzan zehar. Oro har, hiru eragile sozializatzaile garrantzitsu aipatu ohi dira: familia (edo haurraren hurbilekoak), eskola (hezkuntza) eta gizarteak.

Familia haurren lehen eragile sozializatzailea dela esan ohi da (familia zentzu zabalean ulertuta, hau da, haur txikiak bere lehen harremanak garatzen dituen ingurua). Horregatik, **gurasoek eragina dugu gure seme-alabei genero-rolak txertatzen eta, ondorioz, etorkizunean aukeratu duten formakuntzan eta ikasketetan**.

Kontuan izan behar da, ikerketak azpimarratzen duen moduan, generoen arabeko rolak eta estereotipoak lau eta sei urteko haurrek honezkero barneratuta dituztela. Horregatik, jaioberri direnetik, arreta jarri behar dugu zein mezu bidaltzen dizkiegun ikusteko, modu inkontzientean egiten baitugu batzuetan.

Hezkuntza ere eragile sozializatzailea da, familia eta gero bigarren mailan jar daitekeena. Testu-liburuetan zenbat emakume zientzialari dauden begiratzear gain, irakasleei ere berdintasunean formakuntza egokia ematea gomendagarria da. Zoritxarrez, gizarteak gure seme-alabei egunero bidaltzen dizkion mezu diskriminatzaile eta baztertzailaie aurre egitea zailagoa da, ez dago soilik gure esku.

#### **Lanaren balioaz eta soldata-arrakalaz**

Badirudi zientzia eta teknologiari loturiko lanpostuetan lan-baldintza hobeak eskaintzen ari direla enpresak (lanaldi hobeak, kontratu finkoak, batez bestekotik gorako soldatak...). Ondorioz, mutilak baldin badira STEM arloko ikasketak egiten ari direnak hein handi batean, etorkizunean sexuaren arabeko soldata-arrakala mantendu egingo da.

Hala ere, zientzia eta teknologia berriei loturiko lan horiek, zergatik dute soldata altuagoa? **Lan bati esleitzen zaion ordainsaria, lan horri ematen zaion balioaren araberakoa da**. Une honetan, STEM arloko lanari balio asko ematen dio gizarteak (adibidez, adimen artifizialaren inguruan aritzeak). Ziurrenik, haurren edo helduen zaintza egoki bat egitea baino balio handiagoa.

Soldata-arrakalak aurpegi asko ditu. Anima ditzagun gure alabak zientzia eta teknologia arloan ikasi eta lan egitera. Baina, aldi berean, eman diezaiegun historikoki emakumeenak izan diren lanei dagokien balioa, eta, ondorioz, dagokien ordainsaria.

#### **BIBLIOGRAFIA**

La brecha de género en los empleos relacionados con disciplinas STEM: causas, consecuencias y propuestas de solución. (2023). Revista Crítica De Relaciones De Trabajo, Laborum, 9, 93-115.

<https://revista.laborum.es/index.php/revreltra/article/view/849>

# Euskara transmititzeaz haratago

*Kike Amonarriz*

## Transmisioa da baldintza eta oinarria.

Guraso batek edo biek euskaraz dakitenean hizkuntza etxean transmititzea da oinarrizko baldintza euskararen biziraupenerako, soziolinguista entzutetsuenek nabarmendu izan duten bezala. Zorionez, ditugun datuen arabera, euskararen transmisioa ia bermatuta dago gurasoak euskaldunak direnean, eta baita bietako bat euskalduna den kasu gehienetan ere.

Gurasoek seme-alabei hizkuntza ez transmititzea da hizkuntzen desagertpenaren arrazoirik nagusia. Eten hori gertatzen hasten denean alarma guztiak piztu daitezke. Eta hala ari da gertatzen, gaur egun, munduko hizkuntza gehienetan. Mende honetan desagertuko diren hizkuntza-komunitate gehienak horregatik iraungiko dira: gurasoek seme-alabei hizkuntza ez dietelako erakutsi. Neronek ezagutu nuen egoera hori gaztetan; hainbat gelakide erdaldunen gurasoek bazekiten euskaraz, baina ez zieten erakutsi, edo nahiz eta txikitari egin, behin eskolan hasita gaztelania hartu zuten etxeko hizkuntzatzat, seme-alabek etorkizunean beraiek nozitutako arazoak berriro ere jasan ez zitzaten. Gurean hori nola gertatu den jakin nahi duenak ikus dezala “Bizkarsoro” filma, non, pasarte eder batean, eten hori joan den mendearen bigarren zatian Ipar Euskal Herrian nola gertatu zen deskribatzen den.

Azken urteotan egin diren ikerketen arabera, bestalde, euskararen erabilerarik altuena haurren eta gurasoen arteko harremanetan gertatzen da. Iñaki Iurrebaso soziologoak bere tesian nabarmendu duen bezala, datu honek berebiziko garrantzia du, euskaraz ondo dakiten gurasoek gain, erdaraz hobeto moldatzen den guraso askok ere seme-alabekin euskaraz egitea erabaki duela adierazten duelako.

Pentsatzen dut lerrook irakurriko dituzuen guztiok, euskara lehen hizkuntzatzat izan, edo gaztetan edo helduaroan ikasitakoa izan, zuen seme-alabei euskara transmititzeko ardura izango zenutela eta zuen seme-alabek etxean hizkuntzaren ezagutza egokia jasoko zutela. Bejondeizuela!



Hori horrela izanik, euskara transmititzeaz gain, etxe euskaldunetan zer gehiago egin genezakeen iradokitzea ausartuko naiz lerrootan.

## Nolako seme-alabak nahi ditugu?

Galdera honen erantzunak baldintzatuko du guraso gisa izan beharko genukeen portaera. Nolako seme-alabak izatea nahiko genuke? Euskaldunak izatearekin konformatzen gara? Euskara haien ohiko hizkuntza izan dadin nahi dugu? Ahalik eta esparru gehienetan euskaraz bizi daitezen lortu nahi dugu? Edo gehiago kezkatzen gaitu ingelesez jakin dezaten? Berdin al zaigu lagunekin euskaraz edo erdaraz aritzea?

Gure abiapuntua argia da. Lerro hauek idatzita daude, seme-alaba aniztunak, baina nagusiki euskaraz biziko diren eta euskaldun jokatu duten seme-alabak nahi dituzten gurasoentzako. Hau da, gure hizkuntza-komunitateari etorkizuna bermatuko dion belaunaldi bat osatu nahi dutenentzat. Eta hori ez da lortzen euskara erakutsita bakarrik. Euskaraz egingo duten seme-alabak nahi baditugu, gurasoek ere zerbait gehiago eskaini behar diegu.

Izan ere, hurrengo belaunaldiak eleaniztunak izango dira; denek jakingo dituzte, maila osatuagoan edo oinarrizkoagoan, hiru hizkuntza gutxienez, eta beraz, erabaki egin beharko dute, hizkuntza bakoitzari zer leku emango dioten haien bizitzan eta zertarako erabiliko duten bakoitza, egokituko zaizkien baldintza laboral, soziolinguistiko eta pertsonalen arabera.

Eta etorkizunean hartuko dituzten erabaki eta mantenduko dituzten portaera linguistikoak oso



baldintzatuta egongo dira, haurtzaroan eta gaztaroan izan dituzten bizipenengatik eta jaso dituzten bizi-eredu, erreferentzia eta balioengatik. Zer ikusi hura ikasi dio esaerak. Gurasook transmitituko diegun hizkuntza-eredua, gure egunerokotasunean ikusiko dizkiguten portaerak, edo gurekin partekatuko dituzten emozioek eta bizipenek zein hizkuntzatan gertatu diren funtsezko osagarriak izango dira. Hau da, lehen urteetan eraikitako nortasunaren osagarri linguistikoek pisu handia izango dute ondorengo garapenean, jarreretan eta portaeretan.

### **Dakiguna erakutsi... eta ez dakiguna ikasi!**

Gurasook dugun hizkuntza-ezagutza ahalik eta modurik osatuenean transmititzen saiatu behar dugu; hau da, zenbat eta hitz, esamolde, adjektibo, metafora, erreferentzia edo hitz-joko gehiago transmititu, orduan eta hobea. Dakigun gehiena ematen saiatu behar dugu, hizkera sinpleak ekidinez, eta gure ondare linguistikoa zukuruz.

Garrantzitsua da hurrek ahalik eta hizkuntzarik aberatsena eta osotuena jaso dezaten, haien oinarri linguistikoa ahalik eta sendoena izan dadin. Oinarri hori eskolan osatu eta zabaldu egingo da, baina, etxeko hizkuntza euskara den kasuetan, jaso dezaketen aberastasun hori guztiz onuragarria gertatuko zaie, bai etxeko hurrei beraiei, baina baita ere, inguruan izan ditzaketen familia erdaldunetako gelakideei ere. Etxe euskaldunetako haurrak erreferente egokia eta lagungarria izan daitezke beste haurrentzat.

Zenbait kasutan, gerta daiteke, gurasoen ezagutza mugatua izatea eta ez jakitea, esate baterako, nola esaten den euskaraz “salamandra” edo “imperdible”. Kasu horietan erremedioa oso sinplea da, dakitenei eta hitz horiek erabiltzen dituztenei galdetu, hiztegietan begiratu, edo irakasleari galdetu ea gelan euskarazko zein ordain darabiltzaten. Eta ondoren, etxeko hiztegian txertatu. Hasieran arraroa gerta daiteke ordura arte erabili gabeko hitzak edo esamoldeak erabiltzea, baina hurrek naturaltasun osoz ikasiko dituzte eta oso epe laburrean “txakur” edo “hari” hitzak bezain arruntak egingo zaizkie, eta zaizkizue.

Haurren ikasketa-prozesuaren jarraipena oso epe egokia da, bidaia-aprobetxatuz, gurasoen hizkuntza-ezagutza hobetzeko eta osatzeko.

### **Hizkuntza-ohitura egokiak praktikatu**

Hurrek, hizkuntzarekin batera, hizkuntza erabiltzeko arauak ere jasotzen dituzte; are gehiago, gurea bezalako egoera minorizatu batean, non denok ezagutzen dugun hizkuntza hegemonikoa (gaztelania edo frantsesa).

Aurreko puntuan azaldu dugun bezala ohikoa da guraso euskaldunek seme-alabekin euskaraz egitea, baina, bestelako harreman-esparruetan zein neurritan darabilgu euskara? Nola egiten dugu lagunekin, lankideekin, bizilagunekin, dendariekin edo ezezagunekin?

Aurrera jarraitu baino lehen ñabardura garrantzitsu bat egingo dut. Guraso euskaldunen artean ere tipologia ugari aurki genitzake. Erdaraz egin ohi duten guraso euskaldunen artean, adibidez, mutur batean koka genitzake euskara etxetik jaso, euskaraz ikasiak izan, euskaraz egiteko inolako arazorik izan ez... eta, hala ere, erdaraz egiten dutenak. Eta beste muturrean aurki genitzake, euskara, gutxi edo gehiago, eskolan edo bere kabuz ikasi duten gurasoak, eroso mintzatzeko zailtasunak izan ditzaketenak, baina, hurrei euskaraz egitea erabaki dutenak. Aurrenekoen kasuan “kaguenlaletxe” esango genukeen bezala, azken hauei, aldiz, “aupa, eutsi goiari eta pixkanaka segi aurrera!” esango genieke.

Euskaraldiaren proposamenei jarraiki eta hizkuntza-portaerei dagokienez, bakoitza, duen mailatik eta egoeratik abiatuko da, eta batzuk “ahobizi” rola hartuko dute eta beste batzuek “belarriprest” jokatu dute, hainbat arrazoirengatik. Denak dira errespetagarri, eta denek zabalitzen diote atea euskararen erabilerari.

Norberak ikusi beharko du nondik abiatzen den eta zeintzuk izan daitezkeen hurrengo aurrerapausoak. Euskaraz egin ohi dutenek hala jarraitu beharko lukete, eta zein alorretan edo egoeratan sustatu dezaketen erabilera aztertu. Erdaraz egiteko ohitura dutenek, norekin edo zein egoeratan eman ditzaketen aurrerapausoak aztertu beharko dute. Eta euskaraz egiteko zailtasunak dituztenek, haien ezagutza-maila hobetzen jarraitu dezakete eta hurrekin erabiltzen hasi, ondoren, erabilera-esparruak zabalduz.

Erabaki horiek hartzeko egokierak aurkitzea lagungarria izan ohi da, errazagoa izaten delako aldaketak maila kolektiboan ematea, maila indibidualean baino. Euskaraldia edo Korrika bezalako ekimenak une aproposak izan daitezke

horretarako. Edo gelako bilerak: gaia proposatu eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko prest dauden gurasoen artean estrategiak adostu daitezke.

Edonola ere, argi izan behar dugu hizkuntzarekin batera gure jokabideak ere transmititzen ditugula, eta hurrek portaera horiek hartzen dituztela arau sozial gisa. Esate baterako, lehen hitza beti euskaraz egiten badugu, hurrei erakusten dieguna da gure nahia leku guztietan euskaraz egitea dela, baina tabernetara sartu eta azal zurikoak ez diren zerbitzari guztiei automatikoki erdaraz eskatzen badiegu hurrei adierazten ari gatzazkie euskara jende mota batena dela bakarrik, eta etorkinek ez dakitela. Gure lagun euskaldunekin erdaraz egiten badugu seme-alabek sentitu dezakete euskara haurren hizkuntza dela, eta aitzitik, hainbat egoeratan elkarrizketa elebidunak mantentzen baditugu, haurrak ikasiko du hizkuntzari eustea jokaera normala eta egingarria dela.

Ororen buru, haurrak jaso behar duena da, euskara helduen afera ere badela, helduok jarrera aktiboa eta koherentea dugula hizkuntzarekiko, eta nahiko genukeela beraiek ere guk adina edo gehiago egitea. Hau da, gure hizkuntzaren eta hizkuntza-komunitatearen etorkizuna bermatu nahi dugula.

Bestalde, uste dut, oso onuragarria gerta daitekeela helduok hizkuntza aldetik izan ditzakegun hutsuneak edo zailtasunak azaltzea eta gure historia linguistikoa partekatzea seme-alabekin. Askotan ez baitute ulertzen zerk ekarri gaituen gaurko egoerara, zergatik guraso batzuek dakiten eta beste batzuk ez, edo zergatik jokutzen dugun helduok horren modu desberdinetan hizkuntzarekiko.

### **Hizkuntzarekiko maitasuna transmititu**

Hurrek jakin eta sentitu behar dute euskara guretzat garrantzitsua dela. Eta hori adierazten da hitzez eta ekintzez.

Guraso askok galdetu ohi dute ea “euskaraz egin!” esatea egokia ote den. Garbi dago hori esanda bakarrik ez dugula ezer lortuko, batez ere, aurreko atalean aipatu dugun bezala, gure portaerak kontraesankorrak baldin badira. “Ez erre” esaten duen guraso erretzailearen adibidea ekar genezake gogora.

Hurrek garbi nabaritu behar dute guk euskara maite dugula eta gure nahia beraiek ere euskaraz egitea dela.

Hori erabiliz eta erabiltzeko aukerak eskainiz lortzen da, batez ere. Baina gurea bezalako egoera minorizatu batean, oso litekeena da, erdaren presioaren eraginez hurrek erdararako joerak hartzea. Kasu horietan ohartaraztea egokia izan liteke, beti ere, ondo neurtuz zer eta nola esaten den, ez dezagun kontrako efekturik eragin.

Eta euskararekiko maitasunarekin batera, beste hizkuntza eta kulturekiko maitasuna eta errespetua ere sustatu beharko genuke. Azken urteetako migrazio-mugimenduen ondorioz, gero eta hizkuntza gehiago biziko dira gure artean. Aniztasun hori errespetatzea funtsezkoa izango da gure hizkuntzaren biziberritzerako. Eta arestian aipatu dugun bezala, gainera, hurrengo belaunaldian hitzun gehienak eleaniztunak izango dira: hiru edo lau hizkuntza hitz egingo dituzte gutxienez.

Baina, gurea bezalako egoera minorizatu batean, eleaniztasunarekiko errespetuzko jarrera batek eskatzen du, hasteko, norberak bere hizkuntza sustatzea eta bere hizkuntza-komunitatearen duintasunaren eta etorkizun betearen alde egitea. Izan ere, euskararen biziberritze-prozesua, bizikidetzat, justizia eta elkarrekiko errespetu-auzi bat ere bada-eta.

Denok elkarrekin bat eginda eta elkarrekiko errespetuan egingo dugu aurrera.

### **Bizipen positiboak eskaini euskaraz**

Lortu behar dugu hurrek euskaraz emozionatzea, poztea, barre egitea, gozatzea, beldurtzea, maitemintzea, negar egitea, haserretzea... Eta hori nola lortzen da? Beraiei aukera horiek eskainiz, edota guk momentu horiek beraiekin partekatuz.

Bizipen positibo horiek sustatu daitezke, esate baterako, Txatxilipurdi bezalako taldeek eskaintzen dituzten euskarazko aisialdi-ekintzetan parte hartu dezaten bermatuz. Eta auzoan edo herrian eskaintza egokirik ez badago, zerbitzu horiek egon daitezten bidea eginez. Euskarazko irakurketak sistematizatu litezke, gauero ipuinak irakurriz beraiekin, edo helduxeagoak direnean liburu egokiak eskuratuz. Irakurzaletasuna sustatzea oso garrantzitsua da haurren garapenari begira. Pantailatako euskarazko eskaintzaz elkarrekin gozatuz gero, edo abestiak elkarrekin kantatuz gero, familia-giro euskalduna

sendotuko dugu. Euskarazko kultur-eskaintzetara joanez, euskarazko udalekuetan edo herriko ekitaldietan parte hartuz, bizipen positibo horiek bermatuko dizkiegu eta euskararekiko jarrera positiboa sustatuko.

Aspektu horiek guztiek eragin handia izango dute haurren nortasuna eraikitzeke garaian eta euskararekiko harreman afektibo baikor eta sakona sortzean. Haur bati eskain dakioken gauzarik onena haurtzaro zorionsua dela irakurri nion norbaiti; gure kasuan, euskarazko haurtzaro zorionsua eskaintzea, erantsi genezake.

Guraso euskaldunon artean jokaera hauek zabaltzea lortzen baldin badugu, urrats sendoa emango dugu euskararen etorkizunari begira. Hala bedi!

# Haurrentzako smart watch-aren inguruko hausnarketa

*Mireia Centeno*

Azken urte hauetan, hurrek, adin batetik aurrera Smart Watch bat izatea normalizatu egin dugu. Suposatzen dut, badaudela kasu puntual batzuk, agian, tresna hau beharrezkoa edo oso lagungarria dutenak. Nik ere, hausnarketa hau egiteko, lehenengo pertsonan bizi izan dut esperientzia, nire alabak tarteka erabili izan duelako hauetako erloju bat.

Guraso askok esan didate, beraiek lasaiago bizi direla seme alabek erlojua dutela jakinda, iruditzen zaie-lako haurrak seguruago daudela. Segurtasuna behar al dugu benetan? Iruditzen zait, momentu honetan nahiko gizarte seguruan bizi garela eta edozeinek edozein momentutan laguntza eskatzeko telefono mugikorrek badituela, ia edonon. Komentatu zuen Txusma Azkonak duela urte batzuk familia artean egindako hausnarketa batean, inork ez zuela ezagutzen bahiketa baten kasua telebistako kasuren bat ez zenik.

Inertziak askotan eramaten gaitu besteek dutenaguk ere bilatzera benetan behar dugun ala ez galdetu gabe. Gailu hauen kasuan nire hausnarketak honako ondorio hauetara eramaten nau:

**Hasteko, gainbabes bat sortzeko arriskua dago.** Esan dugun bezala, behar ez dugun segurtasun bat ematen ari gara, eta horrek segurtasun falta sortzen du. Zertarako babestu gure haurrak benetako arrisku bat ez dagoenean?

**Zaintza guztion ardura da.** Eta badirudi, haur batek erlojua jantzita daramanean, ez dugula bera zaindu behar. Bera konponduko da eta deituko die guraosei beharra badu. Eta ardura haurrari egozten zaio. Haurrak du ardura bere gurasoak abixatzeko. Mezu hori ematen ari gara behintzat, eta epe luzera, gizartean atxikitzeko arriskua dago. Berak zaindu behar du bere burua, horretarako eman diogulako harraminta hau. Baina haurrak seguru sentitu beharko luke erlojurik gabe ere, jakin beharko lukeelako laguntza behar duenean beste guztiok hor gaudela, berari lagunt-



zeko, eta ez duela berak ardura hartu behar laguntza eskatzeko.

Esan dugun bezala, zaintza guztion ardura da eta horrelako gailuek indibidualismoa sustatzen dute eta komunitate sentimenduak indarra galtzen du. Guztiak dugu guztien ardura. Udalerri batzuetan “Geurea erabili dezakezu” ekimena jarri dute martxan eta iruditzen zait horrek sustatzen duela benetako segurtasuna. Komunitatean hartzen dugun ardura. Haurrak seguru sentitzen dira badakitelako toki horietan laguntza izango dutela.

Gainera garrantzitsua iruditzen zait beste gurasoekin erlazioak mantentzea. Noski batzuekin erlazioa sakonagoa izango da besteekin baino, baina telefonoz deitu eta gure seme alabaren berri jakiteko adina bai behintzat.

Gurasoen presentzia gutxitu egiten da ere. Haurrak erlojua jantzita duenez, behar duenean deituko digu, edo behar dugunean deituko diogu, beraz ez det egon behar bertan bere lagunekin jolasten duen bitartean, eskolatik ateratzen denean edo inglesera eramateko. Eta hurrek presentzia behar dute. Gu gertu egotea behar dute. Eskura. Agian ez dira etortzen arratsalde guztian guregana, baina badakite hor gaudela, eta beraientzat izugarritzko oinarria da hori. Nerabezaro ingurura ailegatzen direnean bidaliko gaituzte pikutara, baina bitartean gertu behar gaituzte.

**Autonomia faltsua eta menpekotasuna sortzen dute.** Haurrak ez dira autonomo bihurtzen erloju hau dutelako. Erlojuarekiko menpekotasuna garatzen dute. Ustezko zaintzaile bat dutelako eskumuturrean, eta garatu duten ustezko autonomia hori mantentzeko, erlojua behar dute.



**Eskoletan erabilera ezegokia ere antzeman dute.**

Ikastetxeetan sortu izan dira gatazka ezberdinak ez direlako modu egokian erabiltzen. Argazkiak atera izan dituztelako baimenik gabe adibidez, edo ez direlako behar bezala konfiguratu eta klase erdian telefonoak joka hasi izan direlako. Kasu hauek gehienetan puntualak dira baina hor daude.

**Smart gailuen erabilera eta beharra normalizatzen du.**

Egia da orokorrean gure gizartean oso presente daudela pantailak, baina benetan normala da horrenbesteko erabilera? Horrenbesteko presentzia?

**Berehalako disponibilitatea normalizatzen du eta pribatutasuna galtzen dute.**

Deiak berehala erantzuteko beharra sortzen dugu eta gailu bat izateak ez du esan nahi disponibilitatea dugunik. Ez gaude behartuta erantzutera, eta are gutxiago berehala erantzutera. Era berean bi norabideko izango litzake disponibilitatea hau. Haurrak ere dei batekin segituan izango lukeelako erantzuna.

**Eta ba al dute alderdi positiborik?**

Momentu honetan Smartphone-ekin dugun arazoa kontuan hartuta, lehen gailu bezala egokia izan daiteke, baina telefonoa atzeratzeko helburuarekin. Benetan nerabezaro ingurua ailegatzen direnean eta benetako autonomia eskatzen dutenean, telefonoa eman beharrean aukera bat izan daiteke, internet mundua ezabatzen dugulako. Era berean kontrol asko dituzten gailuak dira eta eskola orduetan... funtzioak desaktibatuta daitezke.

Hasieran esan dudan moduan, behar ezberdinak egon daitezke familia bakoitzean. Ondorio orokor bezala, oso momentu puntualetan erabilgarria den tresna bat dela esango nuke, eskura badugu, batzuetan erabili daitekeena, baina kontuan hartu beharreko ondorio batzuk dituen ere.

# Marratik kanpo

*Nora Salbete*

Ziotsan Sarrik Ainhoari, orain dela aspaldixko eskribitutako gutun eder haietan, haurrak bizitzaren aldi interesgarri batetan dauden pertsonak direla. Ainhoa gaurgero ez da haur, ez bederen haur- haur, bere eroritako bizpahiru hortz, belauneko zakar eta mazela gorrikara borobilxkoekin, erran nahi baita. Alta, gaurko Ainhoei zor zaie oraindik ere aldi interesgarri bat bizitzeko aukera. Baita orduko Ainhoei ere.

Aldi interesgarria izanen da ziurrenera bizitzaren aro hori non, Ane Labakaren barraskiloetako Sarak azaldu bezala, “(...)oraindik ere zuhaitzak morez, haizea berde argiz eta euri tantak ostadarrez margotzeko bezain libre ginen(...). Marretatik kanpo margotzeko bezain libre”. Gero etorriko dira marretatik kanporakoen debekuak, eta zinezkoagoa ez izan arren, total inportantetzat jotzen den helduaro hori ere. Marrazkiaren marretatik ezein gainerako guztietatik ere ateratzeko aukera gutxi eta baimen are eta gutxiago emanen dizkiogu geren buruei eta, halere, umotasun erranen sasoi horri.

Aneren Sararen igualtsu adierazi zuen bere garaian Mario Lodi pedagogo antifaxista italiarrak afera. Eskola tradizionalaren eta kritikoaren arteko ezberdintasunaz ari zen, bere hitzetan haurren kontrakoa zen lehena eta aldekoa bigarrena. Haurren kontrakoa litzateke maisu (sic.) bat estereotipoak erakusten dituen, adierazpide askea errefusatzen duena, non “erakusten den zerua urdina dela, belarra berdea, etab.”. Bada, zioenez, bertze egiteko modu bat, non sormena xaxatzen den, forma askeen hautua bulkatzen, non kolorea ere modu funtzional eta sortzailean lantzen den.

Haur-gauzetarako bada beraz, nahi izanez gero, bertze modu bat, maiz erran izan dugu. Modu sortzaile eta kritiko bat litzatekeena hazteko eta hezteko, non marretatik kanpo pintatzeaz gain, marretatik kanpo jostatzen ahal diren haurrak, marretatik kanpo egiten ahal duten txikana, salto, laster, txistu, irri, garrasi, pixa. Non eskolako marretatik kanpo eskola bat ere badela ikusarazten dien maistrak, maisuak berdin. Eta azaltzen dien eskolaz kanpoko eskolan haur-



parke bat badela, zeinen marretatik kanpo jolastoki, aukeran hobe jolas-mundu, eder bat dagoen zerua urdinez eta belarra berdez pintatzen dugunon begietara ere. Eta jolas-mundu eder haren marretatik kanpo txoko baldar bat, are ederragoa, jostatzeko, ikasteko, marrari iskin egiteko. Eta txoko baldarraren marretatik kanpo bizitza bat, nahi gisan ikertu, jokatu eta bereganatzeko.

Han jostatuko lirateke gaurko Ainhoak, atzokoei mundu eder berri bat erakutsi bidenabar marrak lausotu eta harila korapilatuz, egiazki halaxekoa bai baita eskolaz kanpoko eskolako jolas-parkeaz haraindiko jolas-munduko txoko baldarraren marraz haragokoa, horrelaxekoa bizitza koloreek zentzu sortzaile bat dutelarik.

Eta, agian, gaurko Ainhoek zabalduko dute horrela bide jostagarri bat non oroitaraziko diguten orduko

Ainhoei, izan zela garai bat non jolastu ginen marretatik kanpo nekeak lehertu arte, eta nekeak akitu eta ondoan ere jostatzen segitu nahi izan genuela, inoiz, marra fisikorik gabe, ohatzeko lastairak irensten gintuen arte eta, orduan ere, marraz kanpora joaten ginela hegan ametsetan, marraz kanpora joan nahi izatearen bulkaldi azkar bati eskutik helduta, bere ahal guztiz aldi interesgarrirantz eramaten gintuena.

Beraz, bai, bateon bateri arraro irudituko bazaio ere, eskoletako koloretako lapitz eta pintzelak antifaxismoaren mesedetan jartzen ahal dira. Eta marraz kanporat aske dantzatzen utzi.

# Heriotza ez naturalak eta haurrak

*Naroa Martinez*

Geroz eta barneratuago daukagu haur eta nerabeekin heriotzaz hitz egitea: badakigu egiarekin zuzendu behar garela beraiengana, eufemismo eta metaforak ekidin behar ditugula, ahal bezain pronto eman behar diegula heriotzaren berri...

Baina, zer gertatzen da heriotza horiek naturalak ez direnean? Eragindako heriotzak direnean? Hau da, erailketa batez, biolentzia bikarioaz, gerraz edo suizidioaz aritu behar garenean?

Beste behin, egiarekin eta ahal bezain natural hitz egin beharko dugu haurrekin. Heriotza gordina da, horrelako heriotzak, gainera, bortitzak eta gehienetan estigmatizaturik datozkigu.


Horrek guztiak helduon barrenak astintzen ditu eta maiz zaila egiten zaigu nahi bezala gaiaz aritzea. Hori dela eta, hainbat oinarritzko ideia luzatuko ditugu ahalik eta modu egokienean erantzuteko haurren beharrei heriotza ez-naturalen harira:

- **Intentzio onarekin ez da nahikoa**, Mar Cortinak esaten duen bezala. Ez du balio edozein modutara, edozein hitzekin eta pentsatu gabe egitea.

- **Heriotzaren berri eman ahal bezain pronto**. Horrek esan nahi duenarekin: zein informazio eta nola eman ahalik eta argien izan eta ziurtatu haur(ar) en aurrean ez zarela hautsiko edo-eta laguntza izango duzula.

- **Hizkuntza haurraren ulermen-mailara egokitu**. Garapen-maila oso desberdinak dituzten haurrak baldin badituzu inguruan, beharbada momentu ezberdinetan artatu beharko dituzu, bakoitzak hizkuntza bat eta behar batzuk dituelako eta besteek/ak beste batzuk.

- **Elkarrizketa galderetan oinarritu**. Haurrek gidatu dezatela elkarrizketa eta beraien galderei beste galdera batzuekin erantzun. Batetik, beraien erantzun ohi dituztelako eta, bestetik, zein informazio eusteko



eta barneratzeko gai diren argituko digutelako.

- **Garrantzitsuena heriotza da, ez modua**. Hori argi eta garbi utzi behar diegu haurrei. Ezin ditugu tabuak, estigmatizazioak, heriotza-mailaketak... berpiztu. Heriotza baten aurrean, datu garrantzitsu bakarra heriotza bera da eta horrek dakarren hutsunea eta dolu-prozesua.

- **Erailketa, suizidioa, homizidioa... izan den edo ez, ez dugu guk erabakitzen**. Alegia, beharbada haurrak informazio hori jakiteko beharra dauka eta hobe izaten da horrelakoetan etxekoek ematea informazio hori kalekoengandik jasotzea baino. Esan diezaiekegu baietz, entzun dugula heriotza mota hori izan dela, baina, legalki zein heriotza mota izan den profesionalek zehazten dutela. Eta, bide batez, itzul gaitezen goiko puntu hartara: garrantzitsuena ez da heriotza mota, baizik eta heriotza horrek dakartzan ondorioak.

- **Ez sartu inoiz beharrezkoak ez diren detaile morbosoetan**. Eta horrelakoak ekiditeko, hoberena, komunikabideak haurren aurrean ez kontsultatzea da. Komunikabideetako berriak ez daude umeei bideratuak eta ez dute haurrentzako informazio egoki(tu)a eskaintzen. Horrek askotan ezinegona eragiten die ez baitaude entzuten eta ikusten dutena barneratzeko prest.

- **Hildakoa edo-eta hiltzailearen figura zaindu**. Ez dezagun suizida edo hiltzailea ez demonizatu ezta idealizatu ere. Suizidatu bada, seme-alabak edo bikotekidea hil badu... bizirik geratzen diren seme-alabek, ilobek, bilobek... beharbada beste harreman



mota bat zuten pertsona horrekiko eta hori balioan jarri behar da nahiz eta bestearen berri eman. Pertsonok rol eta harreman mota asko ditugu eta ezin ditugu haurrak gatazkan jarri, beraiek bizitako une on eta txarrak balidatzen ez baditugu zaila egingo baitzaie informazioa kudeatzea.

- **Haurren ikastetxearekin harremanetan jarri eta elkarren bidelagun izan.** Haurrek ordu asko ematen dituzte eskola zein institutuetan eta beraiekin dauden profesionalak informazioa behar izaten dute haurraren gora-beherak ulertzeko eta, informazio hori familiari ere oso aberasgarria zaigu. Gainera, komunizazioa egokia bada, informazio beretsua eskainiko zaio haurrari (eta bere ikaskideei) eta haurraren eta bere familiaren dolu-prozesuaren erritmoa errespetatuko da.

- Eta, gogoratu, teoria oso argi izan arren, zure buruari **akatsak onartu eta horietatik ikasi.** Izan dituzun hutsegite eta zailtasunez kontziente bazara, hausnartzen ari zarelako da eta horrek guraso gisa asko dio zutaz.

Hauek guztiak, esan bezala, kontuan hartu beharrekoak dira, baina, noski, heriotzak nolako gertutasunez ukitu gaituen kontutan ere hartu behar da eta inoiz ez dugula dena bikaineko egingo. Dena den, kontzientzia jartzea da aurrerapausorik handiena eta gai (izango) ez garela sentitzen badugu, **eskatu diezaiegun profesionali laguntza.**

Gogoratu, bide batez, suizidio-jarreraren atentziorako telefonoa 024-a dela.

# Mugaz eta gure mugez

*Nakia Alkorta Elezgarai*


Egun gutxi dira Korrika Irunen hasi eta Baionan amaitu zenetik eta oraindik hotzikarak zeharkatzen nau martxoak 14a gogoratzean. Badut nik miarresmen berezi bat Korrikarekiko eta oso txikia nintzeneko oroitzapen bakan batzuk ere bai. Korrika gerturatzen ari denean zirrara handia eta barnera salto egitean malkoei eusten joaten diren horietakoa naiz.

Ahal bezain tarte gehien bizitzea eta metro gutxiz bada ere korrika egitea maite dut. Aitortu behar badut, apur bat zoratzera arteko maitasuna da, eta batetik bestera joango nintzateke beste ardurarik ez banu. Furgonetan edo Dj Bullen autokarabanan egun bat igarotzea nire fantasiatako bat da.

Irungo hasierara nahiko giro nahasian heldu ginen eta beldur nintzen nire desioa lehenesteak ez ote zuen etxean eztanda lehertaraziko... Baina aurten korrikak oparitu diguna izugarria izan da. Beharrezko eta zailak diren elkarrizketak ekarri dizkigu etxera. Irungo lehen metroak egin eta parkean apur bat ibilita mugara gerturatzea erabaki genuen. Baten nekea, bestearen gosea eta hirugarrenaren haserreak ahal bezala kudeatuz heldu ginen zubi ingurura. Jendetza. Ilusioa, zirrara eta urduritasuna somatzen zen han batu ginenon artean...

Berehala begiradak ihes egin zidan zubi ertzean petoa jantzita zeuden emakume eta gizon beltzengana. Orain hilabete batzuk, Santiago zubia irekitzearen bezperetan bertatik igaro ginenean ere han zeuden mordoxka bat zain, behatzen. Eta mugan tentsioa nabari zen. Martxoak 14a aukera zoragarria zen mugara hausteko. Berehala galdetu zidan semeak haien inguruan. Pasako dira? Baietz espero dut. Saiatuko gara seguru senti daitezen denon artean.

Horrek zabaldu zizkigun mugaren inguruko elkarrizketa zailak eta gogorrak. Arrazakeriaz, aparofobiaz, hipokresiaz eta Bidasoa zeharkatzen hil direnez aritu ginen. Baita Mediterraneo zeharkatzeko zailtasunaz, Melillako hesiaz, Palestinaz, Mexiko eta Estatu Batuen arteko hornez... Eta noski, Euskal Herriko historia hurbilaz eta gure muga gordinez.



Urruneko garaiak badirudite ere, nola gutariko askoren gorputzetan urduritasuna eta beldurra agertzen den mugara gerturatzean... Errefuxiatu izateaz eta sarekadez...

Ibai batek banatzen duen herri bat izateak sortzen dituen zauriez eta hizkuntzaren mugez. Hegoaldean jaio direlako frantsesa ez jasotzeak eta euskaraz toki askotan ezin komunikatzeak sortzen dizkigun beldur eta konplexuez aritu gara korrika amaitu ostean topoan Irunera itzultzeko muga zeharkatzean.

Ohartu gabe baxu-baxu izan dugu elkarrizketa eta gero konturatu naiz oraindik ere hitz egiteak sortzen digun beldurraz.

Oilo ipurdia jartzen zait bi haur txikienak esku banatan helduta nituelarik mugarik ez oihu ozen eginez, muga Korrika elkarrekin zeharkatu dugun guztion energia gogoratzean. Emakume eta gizon beltz horiek beraien bidea jarraitu ahal izan zutelako une hartan, baina orain ere beste batzuk beraien aukeraren zain egongo direlako...

Mugak hor jarraitzen du eta edozein unetan azal kolore guztientzat berriro erabat itxiko dutenaren mamuak ere bai.

Mugek ezin dute, ordea, hizkuntza mugatu eta Gorka Torre, Guraso.eus-ko kolaboratzaileari, besarkada handi bat bidaltzeko erabili nahi nituzke lerro hauek.

Euskaraz elkarrekin korrika egun hauetan egin dugun metro bakoitzak eman diezagun indarra egunerokoan euskaraz bizi eta esparru guztietan artatuak izatea aldarrikatzen jarraitzeko.

Mugez hitz egin eta zubiak eraikitzen jarrai dezagun. Bidasoaz gaindi, mendilerroak zeharkatuz eta batez ere, belaunaldien artean elkarrekin zubiak eraiki eta mugak ezabatzea aldarrikatuz.

Geure buruei jartzen dizkiegun mugak identifikatu eta apurka apur ditzakegu eta.

# Askatasuna, mugak, ondorioak, loturak

*Ane Ablanedo*

Hitzaldia edo formazio-saioa eskatuz guraso-talde zein irakasle-ekipo baten deia jaso eta jorratu/landu nahiko luketen gaia zein den galdetzean, bat gailentzen da besteen gainetik, nabarmen: muga eta askatasunaren arteko harramanaren gaia, suposatuko duzue.

Ez dut esango harritzen naizenik, gai konplexu eta korapilatsua delako, dudarik gabe, eta gainera, hor datzalako neurri handi batean, bizitzen jakitearen edo ikastearen muina, maila existentzian funtsezkoa den gako bat jartzen duelako auzitan: Nola utzi norbait izaten, neu ere izaten ahal izanik. Pentsatzera jartzen bazarete, hor dago ongizatearen, geure buruarekiko eta besteekiko adiskidantza onaren eta elkarbizitzaren oinarria.

Harritzen nauena, beste kontu bat da. Ulertzen dut eskakizunak haurrekiko harremanari buruz aritzeko izatea, hezitzaile taldeak baitira enkontru horien antolatzaileak, eta hala izanik, nola ez dira bada haurrekiko kontuak izango hizpide? Baina bitxia egiten zait hala ere, nola benetan iruditzen zaigun mugak haurrei jartzean bakarrik egiten dugula zalantza, edo zailtasuna topatzen. Alegia, umeei baino ez zaigula mugaren kudeaketarena, arazo. Irriño batez hartu ohi dute hasieratik egiten dieran baieztapena: mugak jartzearena ongi daramazue gainerako esparruetan (lantokian, bikotean, familian, gizartean orohar), ez da hala? bada orduan, lasai, haurrekin oso antzekoa da-eta. Orduan dator irriñoa.

## Libre gara?

Orohar, oso urrun bizi gara askatasunetik, izate libre bat zer den eta nolakoa, ia ezin usaindu izateraino. Horregatik, askatasunaren esentzia benetan ezagutzen ez dugulako alegia, berdin jotzen dugu askatasunak izan beharko lukeenaren idealizatorantz (zeinaren arabera inon eta inoiz existitu ez daitezkeen ezaugarriekin lotzen dugun), nola beldurrerantz, penduloaren mugimendu automatikoan. Batak bestea dakarrelako, ezinbestean. Izan ere, askatasuna



mugagabetasunarekin lotzen badugu, nahi duguna egitearekin, gure ekintzek ondorioz ez ekartzearekin, edo erabakiak inork eta ezerk baldintzatuta hartu ahal izatearekin, nola ez digu horrek beldurra eragingo?

Bai, badakit zer pentsatuko duzuen. Askatasuna ez duela inork horrela irudikatzen (hain ideal, alegia), eta nik ere badakit benetan horrela dela, askatasunaren definizioaz edo kalitateez modu burutsuan pentsatzen jartzen garenean. Baina zer gertatzen da gure bizipena arrazoien filtrotik iragazten ez dugunean? Bada, gure iruditeriak gorago aipatu ditudan ezaugarrien multzora garamatzala., eta horretaz seguru eta konbentziturata nago.

Bestela, egiozue zeuen buruari honako galdera. Zer datorkizue gogora, horrela boteprontoan, amodio libre kontzeptua entzuten dugunean? Ummmmmmmm. Edo, nola irudikatzen dugu eskola libre bateko bizimodua? Ejemmmmmmm. Bada horixe, sakon-sakonean askatasunaz geure buruan dugun irudia askoz hurbilago dagoela libertinajearen kontzeptuarekin, benetan izan beharko lukeenetik baino. Eta ohart gaitzen, sakoneko bizipen horretatik datorrela gure funtzionamendu naturala, eta ez hainbeste intelektuaren bitartez dakigun horretatik. Alegia, gure harremantzeko modu (eta pilotu) automatikoa gehiegi baldintzatzen duela irudi inkontzienteak besteak baino. Beraz, kasu.

Bide batez, eta aurrekoaren harira, ohartu al zarete inoiz gure gizartean libre adjektiboa daramanak daukala konnotazio edo ñabardura markatua? Edota libre marka ez duena ez zaigula libre-aren kontrakoa iruditzen (gatibu, alegia, edo horrelako zerbait)



baizik eta normala, besterik gabe, edo neutroa?... Ez al litzateke kontrakoa izan behar? libre izatea gure egoera naturala, izatearekin kontsustantziala behar lukeena, eta libre ez den hori izatea hizkuntzarekin markatu edo konnotatu beharrekoa?

### Zapalkuntza eta emantzipazio psikologikoa

Gaiari buruzko saioetan, parte-hartzaileei libre (sentitzen) ote diren galdetuz hasi ohi naiz. Gehienetan ezetz esaten dute, aurreikusgarria den bezala. Izan ere, nor (izaten ahal) da libre gurea bezalako mundu inperialista, matxista, klasista, arrazistan, beti bidegabean? boterekerian eta menderakuntzan oinarritutako munduan nekez da askatasuna loratzen, askatasuna zapaltzeko daude-eta aipatutako ismo horiek guziak asmatuak, pentsatuak, diseinatuak eta antolatuak.

Hala ere, beti dago baten bat baietz erantzuten duena, eta pozgarria gertatzen da, esperantza edo alaitasun izpi bat, hainbeste kateren artean.

Norbaitek pentsa lezake, ezjakintasunaren ondorio dela orain eta hemen, gure mundu honetan, libre sentitzea, hainbat pribilegioren sintoma izateaz gainera, noski, esan gabe doa. Eta tira, izan daiteke, noski, oso kamuflatuta daudelako zapalkuntzak oro gaur egun-gure garaien ezaugarri bat da-, eta zailago baitira horregatik antzematen. Baina ez da beti, hala ere, horrela. Libre sentitzea izan daiteke emantzipazio psikologiko prozesu baten ondorioa, zeinaren bitartez pertsona batek jakin dezkeen, hasteko, kateak dituela, eta iritsi ahalko delako ondoren, nork zer ukatzen dion jakitera, nor den bere balizko gatibutza maila horren eragile, arduradun, erantzule. Askatasunaren oinarrian beti dago kontzientzia, emantzipazio psikologikoaren abiapuntua delako: nire askatasuna nork kendu didan izendatzeko gai izatea, noren kontra egin behar dudak jakiteko.

Dena den, libre (sentitzen) ez direla erantzuten duten askok ez dute beren sentimendu hori goragoko arrazoi soziopolitikoaren arabera arrazoitzen. Beren askatasun faltaren oinarrian mugak aipatzen dituzte, nahi luketena egiteko. Edo balizko erabaki batek ekarriko lizkiekeen ondorioak. Edo egin "beharrekoa" ez egiteak ekarriko liekeen ardura faltaren sentsazioa. Edo erabaki batzuk beste batzuek baldintzatuta hartu izanaren inpresioa. Eta horregatik ez direla libre. Eta horretara noa, ikus dezagun.

### Askatasuna eta mugak

Mugak beti daude. Hasteko, espezieagatik ditugunak, txori ez izateagatik hegan ezin egitearena, esaterako. Edo gorputz baten baitan bizitzea, tarteka nekatu egiten dena, edo gosea sentitzen duena. Edo denborak mugatuta gaudela (heriotzak), zeinak eragotzi egingo digun nahiko genukeen guztia bizitzea, ikastea, egitea. Edo espazioaren muga ere, nahiko genukeen guztia ikusteko eta ezagutzeko ezintasuna ezartzen diguna. Kondena bat litzateke muga horiengatik libre izan ezin garela pentsatzea-absurdia izateaz gain-, behartuak gaudelako geure bizitza marko eta definizio horren baitan egitera. Gizakiak libre ezin garela izan onartzea bezalako litzateke, eta hori, horrela izanda, nork sinatuko luke? Askatasuna, edukitzekotan, muga natural horien baitan izan beharko da. Eta haurren askatasunak ere, bermatu nahi izatekotan, muga horien baitan beharko du, jakina.

### Askatasuna eta ondorioak

Ondorioak ere, ekintza guztiek dakartzate. Egiten dugun (eta ez dugun) guztiak dakar ondorio bat, eta horri esaten diogu, gainera, ikasketa. Ikasi, gure ekintzek dituzten efektuen ondorioetatik ikasten dugulako, asmatu dugun ala ez, zertan huts egin dugun, zer eragin dugun inguruan, eta abar, eta abar. Ondorioarekin oso lotuta, arduraren kontzeptua dago. Nor izan den ekintza baten egilea, nor izan den ekintza horrek ekarri duen ondorioaren arduraduna, eta noski, nori dagokion ondorio horren erreparazioa egitea, besteengan kalterik eragin izan balu. Erreparazioa, zein kontzeptu ederra eta beharrezkoa, Ekintza batek ondorioa ekartzea ez dago askatasunarekin kontraesanean, eta hortaz, ezin dugu pentsatu horrek eragozpen bat suposatzen duenik libre izateko edo sentitzeko.

### Askatasuna eta baldintzamendua

Azkenik baldintzamenduarena dago. Gure fantasian dagoena da, hautu guztiak geure borondate hutsez eginak behar dutela izan, inoren eta ezeren injerentziarik gabe, erabaki askeak izan direla sentituko badugu. Hau ere, baina, okerra da. Izan ere, zein harreman existitzen da, berdin zait norekin edo zerekin, elkarrenganako eraginik ez duena? Klimak eragiten digu, adibidez, edo eguraldiak, maila apalenetik hasteagatik. Zer esanik ez Herriak, edo kulturak. Gure gurasoen genetikak eta izateko

moduak, nola ez. Garai historikoak. Ekonomiak. Denak eragiten digu, kondizionatzen gaitu, geure izatearen zati handi bat osatzeraino.

Harreman afektiboki garrantzitsu guztiek eragiten digute, horregatik direlako hain zuzen afektiboki inportanteak: elkarrekin garatu egiten garelako, elkarrengandik modu berriak ikasten ditugulako. Hori horrela izateari uztea da, izan ere, harreman bat agortzen ari denaren sintoma, hutsal bilakatzen ari izatearena.

### **Orduan, zer muga, ondorio edo kondizionamendu bai, zein ez?**

Eta orduan, esango duzue: muga, ondorio, eta kondizionamendu guztiak al dira askatasunarekin bateragarriak? zergatik orduan heziketa librearen aldeko aldarria, mugimendua??Bada, garbiki, EZ.

Mugari dagokionez, izaten uzten ez duten mugak dira bizitzatik kendu behar dituguak, baita haurren bizitzatik ere, noski, eta bereziki). Eta hain zuzen ere, norbaiti izaten ez uzteko jarriak daudelako. Mugen arteko diferentzia egiten laguntzeko, ikus dezagun adibide batekin. Haur batek asko eta luze jolastu behar duela ez du/luke inolako mugarik eragotzi behar. Baina muga batek ezarri dezake (eta ezarri behar du) non, noiz eta nola jolastu dezakeen. Beharrak ez direla mugatu behar garbi dago, baina oso kontuan hartu behar dugu ere garapenean aurrera egin ahala, umeez ikasi egiten dutela beharren asedura geroratzen. Gainera, ez ahantz gauza bat direla beharrak, eta beste bat nahiak edo desioak.

Mugak haurtzaroan kudeatzerakoan kontuan hartu beharreko beste aspektu bat litzateke haurren mugak helduok kudeatu beharko ditugula, baina haurrek kudeaketa hori ikasi bitartean bakarrik.

Haurrei ondorioak jarri behar ote zaizkien ere askotan galdetzen da, eta ez gara ohartzen ondorio bat “jarri” behar dela uste baldin badugu, beharbada ez garelako jadanik ondorioez ari, baizik eta zigorrez. Ume bati ur edalontzia erortzen bazaio, gertakari hori bera da bere ekintzaren ondorioa, eta ez genuke beraz ezer gehiago erantsi behar. Zeren eta, egin diezaiozun galdera geure buruari, zertarako? Jaso dezala eta kito, ez? Horrez gain ondorio bat jarri behar dugula sentitu izaten dugu, askotan, ikas dezan hurrengorako arreta handiagoa jartzen, edo gure jarraibideak segitzen.

Zigorak (edo horren tankera dutenak) jokabidearen moldaketarako kanpotik jartzen ditugun min txikiak dira, berezko ikasketa prozesuan konfiantza gutxi dugulako, agian, edo automatikoa horrela ateratzen zaigulako.

Gertakariak edukitako ondorioen ardurari buruz ere jardun beharko genuke, askotan ez dagokion pertsona batek hartu behar izaten baitu bere gain, beste batek egin duen (edo ez duen) zerbaiten ardura. Adibidez: Ume bat salan baloiarekin jolasean dabil, eta lorontzi bat apurtu du. Norena da ardura? umearena, ala horrela ibiltzen utzi dion helduarena? adina begiratu behar da, noski, baina oso litekeena da utzi behar ez izatea umeari hor horrela aritzen, berak oraindik ez duelako bere jarduna erregulatzen jakiteko adinik do gaitasunik. Mugatu beharko zitzaion, eta umearen mugimendu beharra asetzeko espantsio denbora gehiagorako aukera eskaini, kalean, espazio irekietan. Kasu horretan, helduarena litzateke gertatutakoaren ardura, eta ez umearena. Umea handiagoa bada, orduan bai, zerbait egin beharko dio lorontziaren jabeari, erreparazio gisa. Zenbatetan ez ote dugun umeen gainean ezartzen mugak ezartzeko gure ezintasunaren ondorioen ardura. Pentsatu horretan.

Ondorio naturaletatik areago, ondorioak ezartzea ere beharrezkoa da. Baina gizarte mailako araudiarekin dagoenez hori lotua, adin edo heldutasun minimo batetik aurrera egin beharreko kontua dela uste dut. Ekintza batzuetatik berez etorriko liratekeen ondorioak handiegiak edo kaltegarriegiak direnean komunitatearen gainerako kideentzat, arautu egin behar dira, eta araua hautsiz gero zer gertatuko den erabaki (kide guztien artean, haurrak barne) eta iragarri.

Ondorio hauek ez dira “naturalak”, baina elkarbizitzarako behar-beharrezkoak dira, gure gizarte helduan isunek betetzen duten funtzioaren antzekoa luketelako. Zein den zigorrarekin duten ezberdintasuna? zigorrak beti duela biolentzia dosi bat, pilatutatako amorrua, moralarekin lotura handiegia, eta boterekeria. Mota honetako ondorioek funtzio bat dute, komunitatearen erregulazioa erraztea, eta arauak ikasten eta barneratzen joateko laguntzea.

Kondizionatu ere, beti egingo dugu. Niri, heldu bezala, pianoa jotzea gustatzen bazait, eta horrek plazera eragiten badit, logikoa da nire inguruko

umeei noizbait horrekiko jakinmina piztea, eta hori probatu nahi izatea. Nire eraginez nahi izango dute, noski, pianoa jotzen ikasi, baina hori ez da txarra. Zeren eta, zein litzateke bestela, beste aukera? nik pianoa jotzeari uztea, inguruko umeak ez daitezen nire afizioengatik baldintzatuak sentitu? besteak “libre” izateko nire burua ukatu? adibide absurdua ematen du, baina inguru batzuetan entzuten ditudan zalantza batzuek antza handiegia dutelako hautatu dut adibidea, benetan.

Beste kontu bat da ni izatea umeak hori ikasteko interes berezia duena, eta umeak sentitzea hori ikasi behar duela, nire oniritzia, onarpena, eta azken batean nire maitasuna jasoko badu. Haurrenganako espektatiba guztiek dute horrekin zerikusia, eta kalte/min handia eragiten dute, dudarik gabe. Heziketari erauzi beharreko baldintzamenduen artean leudeke, baita ere, hainbestetan darabiltzagun “ez egin hori, ama triste jarriko da-eta” guztiak. Txantaila emozionala dagoelako hor, eta mehatxua. Begira, bestela: nik egin dezaket zerbait zu tristetuko zaituena (atzerrira bizitzera joatea, adibidez) baina zuk ezin nauzu zure tristuraren erantzule eta arduradun egin. Gure inguruko heldu afektiboki esanguratsuen espektatibak bete beharraren zama, eta horiek bete ez izanaren mina dago helduon motxila askoren pisuaren jatorrian, ez dezagun ahantz.

Artikulu existentzial eta filosofiko samarra atera zait, badakit, baina heziketaz aritzeak hurrei eskaini behar diegun bizitzaz edo harremanaz hitz egitea dakarrenez, bada horixe...Horretaz hausnarketa egin nahi izan dut, bakoitzak bilatu dezan neurria, zer mugatu behar duen besteengan, eta zergatik. Non daukan bakoitzak bere barne muga, eta nola behar dien besteei erakutsi eta adierazi. Zeintzuk diren, zergatik ez, gure marra gorriak. Zergatik sentitzen dugun besteen bizitza bideratzeko eta gidatzeko horrelako beharra, eta nondik datorkigun. Zergatik sentitzen garen ukatuak edo baztertuak besteak ezezko bat ematen digunean. Zergatik dugun arazoa amorrua adierazteko, zer lotura duen horrek besteen maitasuna galtzeko gure beldurrarekin. Eta abar. Eta abar. Eta abar.

**Eta hori guztia, hurrekin. Baina ez bakarrik.**

# “Nola hezi ditzakegu mutil berdinzaleak?”

*Hiruki Larroca*

Galdera hori egin izan ohi digute guraso zein irakasleek; kasu onenean. Izan ere, gehienetan, mutil nerabe askok dituzten jarrera bortitz edo axolagabeen aurrean etsita dauden irakasle eta gurasoen kezkekin egiten dugu topo. Lehen Hezkuntzako 2. ziklotik aurrera hasten baitira agertzen ostean ohikotzen diren mutilen aldetiko jarrera horiek. Eta hor hasten da ere, mutil gazteek dituzten jarrerak aldatzeko etsipenaren bide luzea.

Kasu hauetan denetan, jendarteratze prozesuaz eta prozesu horietan dauden jendarteratze eragileen izaera patriarkalez hitz egiten diegu. Irakasle zein guraso moduan hezkidetzan jantziak egotearen garrantziaz solasten gatzai, berdinen taldean garatzen dituzten genero erritualen inguruan eztabaidatzen dugu eta haur eta gazteekin esku-hartze feministak garatzeaz pentsatzen dugu. Formakuntzok, baina, hasi bezain laister bukatzen dira eta guztiak etxera goaz, etsipenari leku apur bat lapurtuta, baina ikasi dugun guztia gure haur eta gazteekin lantzerakoan eraldaketa gauzatuko den mesfidantzari leku eginaz.

Bai, noski, berebizikoa da hezkidetzaren inguruan hausnartzea eta ekimenak martxan jartzea. Baina zer bezain inportantea da nola egiten den pentsatzea. Hezkidetzaren edo pedagogia feminista jendarte eraldaketarako elementu garrantzitsua da, giza garapen integrala eta pertsona guztion arteko harreman parekide eta justuak bilatzen dituen heinean. Horregatik da garrantzitsua pedagogia feminista uholde itxura duen jantze/barneratze azkarra izan baino, euri finaren forman lantzea. Edukiak barneratu behar ditugu, bai, baita praktikan jarri ere. Baina egunean egunean presentzia izan behar du pedagogia feministak, eta haur eta gazteei begiratzeaz gain, gure buruei begiratzeko tartea eskaini ere: “nola heldu naiz ni honaino?”. Erantzun horrek, ziurrenik, gure egite eta funtzioen inguruko hainbat pista emango baitigu. “Egitura patriarkalaren arabera, zein kokapen sozial dut?”. Horren erantzunak, ardurak banatzen lagunduko digu.

Bistan denez, gizonok leku pribilegiatua dugu bizi



dugun jendartean. Gizon izateagatik, besteak beste, ez dugu zaintzaz (zentzu zabalenean) arduratu behar, ez dugu gure etxeko haur eta nerabeen hazkuntza prozesuaren jarraipen zehatz eta xehea egin behar, ezta parte hartze aktibo eta jarraia izan ere (errieta egitea edo erabaki serioreen bat hartzea ez bada). Inguruko hazkuntza eta hezkuntzaren gainean gizonok arduragabeak izateko dugun pribilegioak, baina, bote lasterrean bi ondorio ditu: lehena, hazkuntzaren, zaintzaren eta hezkuntzaren baitako jakintzak ez ezagutzea, eta ondorioz, ez aplikatu ahal izatea, adibidez, gure buruekin edo gure lagun artean. Zentzu honetan, gizonen anaidia (klub selekto hori, berezi eta emakumeengandik bereizi sentiarazten gaituen lagun/ezagun taldea, konpadreena), soilik barrutik irauli eta akabatu daitekeen dinamika bat da; eta horretarako, beharrezkoak dira zaintza eta elkar-hezteko eta mugatzeko dinamikak ezagutzea. Bigarren ondorioa, mutil eta gizon gazteen hazkuntzari lotutakoa da. Baina bigarren honen inguruan, hobekiago, zehatzago, argiago eta goxoago, bell hooks (bai, letra xehez idatzirik; berak hala izendatzea erabaki baitzuen) ekarriko dugu testura.

bell hooks, idazle, ikerlari eta aktibista feministak, 2020an “The will to change. Men, masculinity and love” liburua argitaratu zuen. Gizonen eraldaketa bidean itsasargi funtzioa beteko zuen testu bat jostea izan zuen helburu, eraikitzen ari garen jendarte feministan gizonok izan dezaketen lekuaz hausnartuko zuena. Liburuan zehar, gizonok gure bizitzan zehar bizi ditugun maskulinitatearen errituak xehetzen ditu, jendarteratze prozesuan gizonok ditugun gabeziak azalerazi; eta patriarkatuari dituen



kanpo marrak eta erraiak marrazten dizkio, ostean gizonon eraldaketarako proposamenak lantzeko.

Liburuko 3. atalak haurren hazkuntzan pausatzen du arreta, mutilek haurtzarotik barneratzen dituzten jarrera eta edukiez luze eta zabal mintzatuz. Honela, adibidez, lehen haurtzaroan “haurrak emozionalagoak izan” daitezkeela baieztatzen du, hain zuzen, “dependentzia adierazpenari beldur eta mespretxua izaten ikasi ez” dutelako. Beauvoirren hitzei jarraikiz, “emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da”, eta hortaz, gizona ere halakoa bihurtzeko (pribilegiatua, maskulinoa, ziurra, emozionalki iragazgaitza, besteak beste) dominazio logika erakusten duten ekintzez josia dugu haurtzaroa bera. Zer ez da gizontm bat? Pertsona dependiente. Patriarkatuan leku hori hurrek, pertsona zaharrek eta emakumeek betetzen baitute. Haur eta pertsona zaharrak, gogo-gorputz beharrak haien kabuz ezin asetzearen ondorioz; emakumeak, erromantikoki gizon bati lotuak ez badaude, ez direlako nor. Hortaz, hurrek dependentziarako mespretxua barneratzen dutenean, gizontm autonomo eta ez estekatua gorputzera heltzen dira.

Gizon izatera heltzeko bide luzean, hurrek bizitza bikoitza eramaten ikasten dutela aipatzen du aurrerago: “Gure kulturari hurrei soilik uzten zaie haien emozioekin guztiz bat eginda egoten, haien maitatzeko eta maitatuak izateko beharra aske adieraztea permititzen zaie”. Haur horiek familia ez patriarkaletan bizi badira, haien emozioekin lotuak egoteko denbora tarte handiagoa izan ohi dutela gehitzen du, baina ostean, “eskola patriarkaletara” heltzen direnean, bertan dauden rol sexual zurrinak ezarriko dira, eta orduan, hurrek “bizitza bikoitza” bizitzen ikasten dute. “Hurrek, haien heldu homologoen modura, joko-arauak ezagutzen dituzte: badakite ez dutela emoziorik adierazi behar haserrea eta amorrua ez bada; badakite ez dutela femeninoa edo propio emakumeena den ezer egin behar”.

Eskola den eremu sozializatzaile patriarkalaz hitz egin dugu dagoeneko. Eta horregatik, aitatasunean jarri nahi genuke fokua (gure aurreko artikuluan egin moduan). Aitak (osabak, aitona, lehengusuak) baitira haur eta nerabeen gizontasunaren erreferente gertukoak. “Aitatasun patriarkalak ez die hurrei sentimenduak hitzez adierazten” dio hooksek. Eta hala da, besteak beste. Aitatasun patriarkalak ez baitie hurrei sentimenduak hitzez adierazten erakusten, baina ezta zaurgarritasunean, feminismoan,

komunikazioan, barne-ezagutzan, kontraesanetan ez zalantzan bizitzen ere. Hor dago gizontasun toxiko eta bortxazkotik urruntzeko hainbat elementu, aitatasun ez patriarkaletara gerturatzen hasten lagundu gaitzaketenak. Eta bitartean, zalantza, hausnarketa, kontraesana eta ardura hartzea.

# Umeak ikusteko begiak baino zeozer gehiago behar da

*Nerea Agirre*

Espazio honetara guraso gisa umeekiko dugun begiradaz hausnarketatxo bat ekartzea otu zait. Idealena gaiari buruzko elkarrizketa taldean egitea litzateke. Begiradaz hitz egiten dugunean abiaburuko premisa honetan sinesten baitut: ez daude bi begirada berdin, eta norberaren begirada ere aldatzen edo garatzen joan daiteke. Beraz, taldeko elkarrizketa dialogikotik kanpo, gaiari buruz idazten direnak plano abstraktuan gelditu daitezke, edo eta konturatu gabe gure motxilak zamatzeko aitzakia bilakatu. Hemen jasotakoak gainera, atari honetako kolaboratzaile ugari egindako hamaika ekarpen eskutik izan beharko luke zentzua. Hariak elkar josita. Hala ere, irakurle, zugar, gugar guraso gisa ikasteko, hobetzeko, pentsatzeko eta hazteko jarrera dagoela badakidanaz, ekarpen xume honi forma ematen saiatuko naiz, irekitasunez hartua izango dela sinetsirik.

Hezkuntza Bereziko irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleekin gure eginahal nagusia haurren gaitasunetan sinesten duten begirada garatzea izaten da. Ikasketa aldiak irauten duen bitartean begirada hori garatzen joatea eta horretarako testuinguruak eskaintzea. Haur Hezkuntzako irakasleen prestakuntzan aritzen diren lankideekin ere partekatzen dugu bai begirada sentikorren marko edo ikuskera. Gaur, etxeko testuingurura transferitu nahiko nituzke hainbat gako.

Helburua ez da azterketa pasatzen dugun edo ez esatea, baizik eta umeekiko dugun begiradaren kontzientzia hartzea. Kontzientzia ere badelako begiradaren garapenerako gako bat.

## Ume guztiek ikusiak izateko beharra dute

Gurean behintzat maiz ematen diren egoerak: umea etxera sartzen da eta ama! begiratu zer ekarri dudan? Itxoin ee.. segundu bat.. ea zer? Begirada altxatu beregana biratu eta eskuetan harri bat dauka... ene! Zelako harri berezia, non aurkitu duzu? Afaria



prestatzen amaitu eta oraintxe kontatuko didazu, segi eskuak garbitzera.

Umea ikusi dut. Umeari kasu egin diot. Baina umea ikusia sentitu al da? Ikusia sentitzearen esperientzia edo bizipenak ez du alderaketarik. Ez da arreta, ez da errekonozimendua. Edo ez hori bakarrik. Ikusia sentitzea beste zerbaitek ere bada.

Aurreko adibidean zerk adieraziko luke edo zerk lagunduko luke ikusia izan denaren esperientzia edo bizipen horretan? Adibidez, izan daiteke sartzen denean agurtzea, eta agurraren ostean guk adieraztea eskuan dakarrenaz interesa. Eta bere kontakizunari momentu eta espazio bat eskaintzea. Modu honetara umeak konfirmatzen du helduak ikusi duela, eta ondorioz bere existentzia eta bere berezotasuna konfirmatzen ditu. Umeak sentitzen du bere emozio, sentimendu edo espektatiba bat hauteman duela helduak.

Zenbat galdera gelditzen dira erantzun gabe? Etxera ekarritako zenbat lore ordu batzuetara baztertxo batean zimeldurik eta begira ez daudela zamar potean? Ez zaizue iruditzen tarteka komentario, galdera edo erantzunen bat ematen diegula beren emozio bizi eta bixi hori baretzeko goxokiak izango bailiran?

Egunerokotasunaz hitz egiten dugu sarritan. Errutinak ere nahiko presente ditugu. Interesgarria izan daiteke horrekin batera egun bakoitza bakarra dela eta errepikatzen ez dela gogora ekartzea. Eta umeak ikusiak direla sentitzearen beharra hortxe dagoela. Egunero. Askok sentitu izan dugu etxeko



umeengan agertu diren jokabide jakin batzuk eskaini zaion arretarekin lotura izan dutela. Batzuetan, egun, aste edo denbora luzetxoagoa behar izaten dugu horretaz ohartzeko. Beraz, polita litzateke gure egunen eta errutinen artean umeak ikusteko denbora eta espazioak sortzea. Ez umeekin egoteko, ez umeak behatzeko, ez eurei begira egoteko. Edo ez hori bakarrik. Honekin esan nahi dena da ume bakoitzarekin (indibiduo berezi eta bakar horrekin, bai) ikusia izango den espazio partekatatu bat izatea; bakarrik bata bestearentzat egoteko aukera izatea.

Hau lortzeko modu ezberdinak egon daitezke, izan ere, begirada bat, irribarre bat edo kontaktu fisikoa ematen den momentu bat ere izan daitezke. Beste inor sartzen ez den momentu edo espazio horretaz hitz egiten ari gara. Handi edo txikia. Berdin da.

### **Etxea: testuinguru paregabea ume bakoitzaren berezkotasunak ikusteko**

Etxean aukera paregabeak ditugu ume bakoitza den bezala ikusteko. Etxean inork ezin digu ukatu badakigula “ez daude bi berdin”, “ume bakoitza mundu bat dela”. Badakigu, egunerokoak hori erakusten digulako. Gainera, umez ez dugu modu kategorikoan edo abstraktuan hitz egiten. Batzuetan beste norbaitekin alderatu eta berdintasun eta ezberdintasunak ikusi arren, arreta jarriz gero, ohartuko gara etxeko testuinguruan zein leku duten bakoitzaren berezkotasunek. Honen balioaz ohartzea funtsezkoa bilaka daiteke.

Bakoitzaren berezkotasunetan arreta jartzen badugu, umea den bezalakoa ikusten dugu. Zer da gure umea berezi eta bakar egiten duena? Gure begirada horra fokatzan badugu umei beren prozesuak egiten

lagunduko diegu. Prozesu pertsonal eta bakarrak, ez den hori izatera behartu gabe. Den hori izan eta den hori onartuz. Eta gure begiradak poliki poliki desio hori izango du ume bakoitzarentzat eta guztientzat, bere singulartasun horretatik eta horretan garatzea.

Badakigu erronka handia bilakatzen dela gurasoontzat ume bakoitzaren “mundutxo” (gainera aldakor) hori entzun eta ondo ulertzea, ezta?. Gako bat izan daiteke, entzuteko isildu egin behar dela jakinda, umeekiko gure irudikapen eta espektatibak isiltzen ahalegintzea.

### **Gaitasunetan arreta jartzen duen begirada**

Halaber, umeak hobeto ulertzeko beren gaitasunak deskubritzera irekita dagoen begirada behar da. Umeengan etengabe “lehenengo aldiz” zerbait deskubritzea. Garapenaren hasierako faseetan egiten dugun bezala. Gure buruei galde diezaiekegu: gaur deskubritu al dut zerbait berria umeaz? Bere istorio, kontu, ekintzek... harritu al naute?. Finean, aurrean dugun ume horri denbora, espazioa eta aukera mugagabeak eskaintzen dizkion begiradaz ari gara. Berarekin ikusia den momentu bat intentzionalki sortzen dugunean gurpil hau martxan jartzea askoz errazagoa da.

Zer deritzozue guraso gisa denbora produktiboaren antolaketaz gain, izateko, ikusiak izateko eta elkarrekin disfrutatzeke denbora eta espazioak errutinara ekarri eta antolatzen hasi edo jarraitzeari? Jarraitu diot, batzuek hau barneratuta izango duzuelako zuen egitekoen artean (ze interesgarria litzatekeen guraso taldeetan gai eta bizipenok partekatzea!). Beste hainbatek beharbada esandakoak lotu dituzue bigarren umea jaio zenean nagusiari begiratu eta bera ere ikusteko beharraren inguruan izan zenituzten sentipen eta egin zenituzten gauzatxoekin. Gaurko gonbidapena gaiari tartetxo bat eskaintzea besterik ez da izan...

*Umeak ez daude guretzat. Umeak ez daude gurekin. Umeak gurekin direla sentitu behar dute. Eta gu ez garela mugatzen egotera, baizik eta gu ere beraiekin gaudenean, bagarela.*



# Heriotzari buruzko ipuinak? ez edonola, ez edozeini

*Narrea Martínez*

Azkenaldian oso modan dago hurrekin edozein gaiaz hitz egin nahi badugu hori **lantzen** duen ipuina eskuratzea. Beharbada, Txabi Arnalen ikasle izateak kalte (on) handia egin didalako izango da, baina argi daukat ezin diegula geure txikiei (eta ez hain txikiei) edozein material eskaini. Zoritxarrez, gaiak lantzeko ipuinak irakurtzearen jarrera horrekin ondorio negatibo batzuk pairatu ditzakegu.

Batetik, gai tabuen kasuan, naturalizatu beharrean, eduki didaktiko bihurtzen ditugu. Eta noski, beharbada, **helduok** euskarri bat behar dugu zaila egiten zaigun zerbaitetaz aritzeko, baina... Benetan beharrezkoa al da txupetea uzteko liburu bat? Agian zure kasuan bai, baina ezin da orokortu. Hau da, ezin dugu txupetea uzteko... liburua; titia uzteko... liburua; pixohiala uzteko... liburua; etxez aldatzeko... liburua; eta abar luze bat. Denerako ez da posible liburu bat **behar** izatea. Sinistu dezagun guraso eta heldu gisa ditugun gaitasunetan.

Bestetik, ez dezala ipuinak elkarrizketa ordeztu. Alegia, eramaten dugun materiala ez dadila izan haurrak gaiarekiko izango duen harreman bakarra. Erabili dezagun materiala euskarri gisa eta hori aitzaki hartuta eman diezaiegun haurrareiko elkarrizketari eta bere jakinduriari lekua.

Azkenik, literatura gorrotatzeko (edo gutxienez ez gozatzeko) arriskua daukagu. Izan ere, liburuekin duten erlazio bakarra gaiak lantzeko bada, desatsegina suerta dakieke eta guraso eta hezitzaile bezala, pertsonalki, nire inguruko hurrek irakurketarekin goza dezaten nahi dut.

Beraz, ez diezazkiegun liburuak ikaspenetara mugatu.

Bestalde, garaiotako ohitura bihurtzen ari da famatuek (influencerrek, telebista aurkezleek...) haur-liburuak ateratzearena, bereziki gai gordinak, zailak, modakoak... jorratzen dituztenak, heriotza tarteko, noski.



Bada, honekin ere argi ibili beharko dugu; egilea profesional bikana izan daitekeelako bere arloan, baina ez da zertan ez pedagogo ezta idazlea izan behar. Eta, zoritxarrez, argitaletxe handiak salmentaren baitan mugitzen dira.

Honengatik guztiagatik, erne zer eta nola eskaintzen diezuen zuen txikiei. Izan daitezela literatura eta ez ipuin soilak; oinarria ez dadila edukia, gozamina eta istorioa baizik; elkarrekin partekatu eta elkar gozatzeko unea izan dadila eta ez zerbait ikastekoa. Bide horretatik bai, bide horretatik asko ikasiko duzue, elkarrengandik.



# Tratu onean sakontzen: Nahikoa al da haurrekin dugun harremana zaintzea?

*Kolde Gibang*

Hainbatetan esan dugun bezala, giza izakiak garen heinean bestearekin harremanean eraikitzen gara. Batez ere haurtzaroan eraikuntza prozesu hau oso sentikorra izango da eta ingurutik eta gertuko erreferentziazko helduetatik jasotzen dugunak berebiziko garrantzia izango du gure izaeran eta bizitzari aurre egiteko garatzen ditugun baliabideetan. Baina, zer da zehazki haurrak helduengandik behar duena etxean zein eskolan?

Haurra **begiratua sentitu** behar da. Demagun 3 urteko haur bat parkean dagoela beste haurrekin jolasten eta momentu batean gertaera berezi bat bizi duela (beldurtu da, edo erronka bat lortu du). Segituan bertan dagoen gurasoari begiratuko dio. Helduaren begiradarekin topo egiten badu eta honek keinu xume batekin bere bizipena balidatzen badu, segundo bateko kontaktua izan arren, haurrak bizipen horren kontzientzia argia izango du; bizipenak forma hartuko du.

Aldiz, momentu berdina eta gero ez badu helduaren begirada topatzen, haurrak aurrera egingo du bere ekintzan, gertatutakoari garrantzi gehiegi eman gabe eta lorpen edo beldur bizipen horren kontzientzia hartu gabe. Heldu bezala ere gertatzen zaigun hau, haurtzaroan ezinbestekoa izango da.

**Seguru sentitzea**, babestua, garrantzitsua izango da gure defentsak gehiegi garatu behar ez izateko. Honetarako limite argiak eta egonkorrak funtsezkoak izango dira. Hala etxean nola ikastolan helduoi dagokigu limite horiek jarri eta betearaztearen ardura, gustuko izan ala ez. Haurrek limiteak izateko eskubidea dute eta gure betebeharra da beroriek jartzea.

Honetan ere bere pisua izango du kontentzio emozionalak. Haurrak bizi badu bere emozioek



gainezka egiten diotenean (adibidez kasketa bat, edo ikaratu egiten denean) helduak ez duela gainezka egiten, haurrak ikasiko du pixkanaka bera ere ez desregulatzen eta egoera intentsu horiei aurre egiten. Ordea, helduak bere erreakzioarekin ez badu haurraren emozioa dagokion tonuarekin jasotzen (kasurik egiten ez diolako, ala gehiegi haserretu edo ikaratu delako), orduan, haurrak ez du ikasiko emozio hauek maneiatzen eta berriro agertzen direnean desregulatzeko joera izango du.

**Maitatua sentitu.** Honetarako ez da nahikoa haurra maitatzea, adierazi egin behar zaio. Bakoitzak bere estiloan: hitzekin, laztanekin, muxuekin, dena... Gozotasun bizipena esplizituki adierazi beharra dago eta hobe pasatzea motz geratzea baino. Pepa Horno psikologoak dioen bezala, guraso bati buruz astuna dela esaten badu semeak ez da seinale txarra.

Profesional bezala afektibitatea ere garrantzitsua izango da, nahiz eta modu berean ez adierazi. Seguruenik hezten ditugun haur eta nerabe batzuekiko zaila izango zaigu maitasuna sentitzea, askotan gogaikarriak egiten zaizkigulako. Baina horrelakoetan are garrantzitsuagoa izango da autoreek afektibotasun kontzientea deritzotena praktikatzea. Hau profesional batek modu aukeratuan garatzen duen jarrera bat da, lehendik sentitu ditzakeen ertzak kamusteko. Aurretiko lan hau eginda soilik lortuko dugu harreman zailenetan gozotasuna transmititzea. Eta badakigu, gozotasun hau gabe oso zaila dela harreman hezitzaile bat eraikitzea; ikasleak nekez hartuko baitu afektiboki tratatzen ez duen horrek ematen diona.

Hala ere, harreman afektibo hauek bakarrik ez dute tratu ona bermatzen. Tratu onaz hitz egin ahal izateko **giroak hainbat ezaugarri** bete behar ditu.

Alde batetik **oinarrizko baldintzak** bermatuta egon behar dira, bai etxe zein eskoletan (argia, aireztapena, tenperatura...). Oso zaila da epeltasun afektiboa sentitzea hauek desegokiak badira.

Bestalde testuinguruak **sarea** osatu behar du. Familiak tribu bihurtu behar dira eta eskolak hezkuntza komunitate. Haurrek binkulazio esperientzia ezberdinak bizi behar dituzte (lagunekin egon, haien etxera lotara joan, lehengusuekin ondo moldatu...) Inor ez da zoriontsua isolatuta badago.

Horretaz gain toki baten **edertasuna** zainduta egoteak gozotasun emozionalaren bizipena indartuko du. Espazioak apaindu edo antolatzeke orduan, gainera, haurrek haien erabakiak hartzeak beste aldagai garrantzitsu batekin du lotura: **protagonista sentitza**, hots, entzunda sentitza.

Etxean honek haurrak bere **espazioak pertsonalizatzeko** aukera izateko garrantzia azpimarratzen du. Horrela haurrak bere identitatea baieztatuko du eta, aldi berean, apaintze horretan bere opari eta argazkiak baliatzen baditu **bere historia pertsonala** adierazi eta integratzeko aukera izango du.

Azkenik, ez nuke ahaztu nahi Txatxilipurdi egitasmoan hain funtsezkoa den Natura. Haurrak **naturarekin kontaktua** izatea bere ongizate emozionalean modu oso positiboan eragingo du. Horregatik landareak, etxeko animaliak, parkeak... aldagai garrantzitsuak dira testuinguru babesle batean pentsatzen dugunean.

Beraz, tratu ona sustatzen duen hezkuntza testuinguru batean pentsatzen dugunean, hala familian nola ikastolan, alde batetik helduok haurrekin dugun harremana zaindu beharko dugu. Eta bestetik, testuingurua bera ere zaintzea dagokigu, gozotasunaren bizipena hedatu eta bertan hazten direnak afektiboki ondo elikatuak egon ahal izateko.

# Zure baimenarekin...


*Amaia Arroyo Sagasta*

Zure baimena eskaera natorkizu; izan ere, polemikoa izan nahiko nuke. Digitalizazioa eta hezkuntza (formala, ez-formala eta informala) binomioa ekarri nahi ditut, beste behin ere; baina, oraingoan, helduon ikuspuntutik lantzeko. Eta ez dut diskurtsoa zentratuko “eredu izatearen” behar horretan, inoiz baino beharrezkoagoa izan arren. Oraingoan, gure sentimendu edo emozioez aritu nahiko nuke, zure baimenaz, noski.

**Poza eta harrotasuna.** Orain, haurren eta pantailen arteko harremana kontrolatzeko hautua egin dugula, pozik egoteko moduko momentua dela pentsa dezakezu, ezta? Eta halaxe da. Azkenean, heldu beharreko gaia dela konturatu gara eta badirudi benetan gauzak aldatzeko gai den kontu bat mobilizatu dugula: borondatea. Guraso asko, eta hainbat ikastetxe, araudiak eta debekuak adosteko antolatu gara eta, aizu, zelako urrats handia, orain artekoari erreparatzen badiogu. Baina... sekretu bat kontatu nahi dizut: debekuak ez du hezten, arazoa (edo erronka, nik nahiago dudana hitza) alboratzen baizik. Orduan...

**Desilusioa.** Pentsa dezakezu “orduan... zertan ari gara?” edota irtenbidea zirudien horrek zergatik ez duen balio. Normala da horrela sentitzea. Gai konplexu baten aurrean, normala da erabaki egingarrien aldeko apustua egitea, epe motzerako ondorioak izango dituen horrek gure beharra asetuko duelakoan. Ez dut uste errazena denik, baina bai eraginkorrena dirudiena. Baina erronka konplexuek erantzun konplexuak behar dituzte, beraz, “egungo ogia, biharko gosea” deritzon horren alde egitea ez dirudi aukera onena denik. Orduan...

**Beldurra eta paralisia.** Orduan, ezin dugu ezer egin. Gai honek gainezka egiten digu eta guk, heldu bezala, ezin dugu kontrolatu. Gazteek guk baino askoz gehiago dakite eta teknologia digitala gugandik oso urruti dago. Nola lagunduko diegu gazteei, seme-alabei, ikasleei teknologia modu seguru, kritikoa eta arduratsuan erabiltzen, guk geuk ez dugunean ezagutzen, kontrolatzen? Ezinezkoa da, beraz, ez



dugu ezer egingo. Ezin dugu ezer egin. Gainera...

**Ukapena eta gorrotoa.** Gainera, teknologia digitala oro txarra da. Hainbat eta hainbat ikerketa eta ebidentzia daude: pediatrek, ikerlariak, idazleak... argi uzten dute teknologia digitala (mugikorra, sare sozialak, pantailak, oro har) erabiltzeak gure osasunean inpaktu negatiboa duela: ikusmen arazoak, osasun mentalaren arazoak, adikzioa... Badirudi diskurtso ilun batean murgildu garela eta teknologia digitalaren erabilerak ondorio txarrak besterik ez dituela. Baina...

**Onarpena.** Teknologia digitala gure errealitatearen parte da. Gure testuinguruan, teknologia digitalen integrazio maila oso altua da eta informatu, ikasi, lan egin... nahi badugu, digitalki alfabetatua egotea behar-beharrezkoa da. Baina alfabetatze horrek konpetentzia digitala ere gain hartu behar du. Zergatik? Beste sekretu bat kontatuko dizut: konpetentzia digitala ez da gailu digitalak erabiltzen jakitea (soilik). Hain zuzen ere, konpetentzia digitalen definizio laburra honako hau da: “teknologia digitalen erabilera segurua, kritikoa eta arduratsua ikaskuntzarako, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekiko elkarreragina ere” (Europako Kontseilua, 2018). Horregatik, zenbat eta gehiago landu konpetentzia digitala, irizpide gehiago izango ditugu teknologia digitala modu arduratsuan erabili ahal izateko. Ezin dugu irizpide kritikorik landu espoziorik gabe: ezin dugu konpetentzia digitala landu, hezkuntza digitala landu, teknologia digitalen debekutik. Horrek esan nahi du...

**Itxaropena.** Hezkuntzan dago giltza: hezkuntza digitalean dago giltza. Gutik nira pasatuta, esan nahi dizut itxaropen handia dudala jarrira hezkuntzan. Orain, indarrean dagoen Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumak (77/2023 dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa) konpetentzia digitala funtsezko konpetentzia bezala jaso du. Horrek esan nahi du Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko etapetan bere garapena bermatu behar dela. Bertan, ikasleei (etorkizuneko herritarrei) testuinguruak eskaini behar zaizkie teknologia digitala ulertzeko, erabiltzen ikasteko eta horren aurreko jarrera kritikoa garatzeko, modu arduratsuan erabiltzen ikasteko. Nola garatuko dute hori guztia teknologiarik gabeko ingurune batean?

Zelako bidaia! Ikusten duzunez, ez dut irtenbiderik proposatzen; baina jarrera guztiak ulertzen ditut: txuriak, beltzak eta grisak. Zergatik? Erronka benetan konplexua delako. Horregatik, gauza praktiko batekin amaituko dut: tokian tokiko lanketak eta proposamenak behar ditugu. “Guztiontzako kafea” ez da posible, gazte/semi-alaba/ikasle guztiak ez direlako berdinak, heldu/guraso/irakasle guztiak ez direlako berdinak, eta testuinguru/etxe/ikastetxe guztiak ez direlako berdinak. Baina badago dena josten duen gako baliotsu bat: borondatea. Entzuteko, informatzeko, hitz egiteko, ikasteko, akatsak egiteko, eraikitzeko... borondatea. Zure baimenarekin, polemikoa izatetik idealista izatera pasatuko naiz, eta esango dizut borondateak lagunduko digula aurrera egiten etengabeko eta norabide askotako prozesu honetan.

### **Gehiago irakurtzeko:**

Europako Kontseilua (2018). Recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo, de 22 de mayo de 2018, sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente. [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604\(01\)&from=SV](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604(01)&from=SV)

Fernández Enguita, M. (2024ko maiatzaren 10a). Tecnología y educación: entre el pánico moral y la misión institucional. El País. <https://elpais.com/educacion/2024-05-10/tecnologia-y-educacion-entre-el-panico-moral-y-la-mision-institucional.html#>

Sánchez Vera, M. M. & Adell, J. (2023ko uztailaren 24a). El negacionismo digital. El diario de la Educación. <https://eldiariodelaeducacion.com/2023/07/24/el-negacionismo-digital/>

Teyseyre Koskarat, O., Orzaiz, I. & Urdalleta Lete, I. (2023ko urriak 1). Ez etsai, ez panazea. Berria. <https://www.berria.eus/paperekoa/1882/002/001/2023-10-01/ez-etsai-ez-panazea.htm>



# Familien lege-proiektuaren argi-ilunak

*Irati Aizpurua Alquezar*

Iragan otsailaren 28an Espainiar Estatuko Ministro-Kontseiluak Familien lege-proiektua onartu zuela iragarri zuen. Lege horren inguruan hainbat informazioa zabaldu ziren berehala komunikabideetan, baina zenbait egunkariren titularrek nahasmena sortu zuten. Hori dela eta, artikulu honen bidez, familien lege-proiektua zertan datzan argitu nahiko nuke eta, legea aurrera ateraz gero, legearen hutsuneak zein diren adierazi nahiko nituzke. Galdera-erantzunen sistema erabiliko dut Lege-Proiektu honek sortu dituen hainbat zalantza argitze aldera:

## Familien Lege-Proiektua, indarrean al dago?

Lege-Proiektu hau, hitzak dioen bezala, “proiektu” bat da oraingoz. Beraz, **Lege-Proiektuan jasotzen diren eskubide edo onurak oraindik ez daude indarrean**. Gainera, Gobernuak negoziaketara aurkeztu duen testu bat da, nolabait esatearren, eta Kongresuan dagokion bidea jarraitu behar du oraindik. Bide horretan zehar, **aldaketak jasan ditzake**. Beraz, Espainiar Gobernuak adierazitako zenbait neurri edo eskubide baliteke ontzat ez hartzea eta testuaren behin-betiko erredakzioan ez agertzea. Horregatik, komunikabide batzuk lau haizetara botatako onura batzuk, baliteke errealitate ez bihurtzea.

## Zein dira Lege-Proiektu honen helburuak?

Lantzen ari diren testu honek hiru helburu nagusi ditu Gobernuaren hitzetan:

- **Familia eredu ezberdinak** aitortu eta horiei eskubideak ematea du helburu (ezkondu gabeko izatezko bikoteak, guraso bakarreko familiak, harrera-familiak, homosexualez osaturiko familiak).

- Familien **babes soziala** hobetzea du helburu: administrazio publikoaren esku uzten du gizarte-kohesioa hobetzeko eta guraso zein adingabeei babes gehiago emateko neurriak hartzearen ardura.



Neurri hauek oso arlo ezberdinetan hartu beharko dira: prestazio ekonomiko moduan, gizartean kontziliazioaren aldeko sentsibilizazio kanpainak eginez, osasun fisiko eta mentala bermatuz, hirigintza erduetan familien-ikuspegia txertatuz, etab.

Lan ordaindua eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko **kontziliazioa** bermatzea du helburu. Kontziliazioa hobetzeko ez du enpresek har ditzaketen neurrietan sakontzen (honen inguruan ez du aldaketa nabarmenik jasotzen legeak), baizik eta administrazio publikoari egiten zaio dei, arlo guztietan familien-ikuspegia txertatzeko. **Haurren “lehen 1.000 egunak”** erreferentzia hartuta, administrazio ezberdinen artean plangintza bateratu bat sortzea proposatzen da, haur guztiek bizitza hasiera duina izan dezaten.

## Baina, non jasotzen dira familien babeserako edo kontziliaziorako eskubideak?

Hainbatetan sortzen den nahasmena zera da: familiek izan ditzaketen eskubideak edo kontziliazioa

errazteko eskubideak ez daude bere horretan lege bakar batean jasota. Berez, eskubide hauek lege ezberdinetan jasota daude, adibidez:

- Langileen kontziliazio-eskubideak eta baimenak legedia ezberdinetan topa daitezke: Langileen Estatutuan (enpresa pribatuan lan egiten dutenentzat) edo Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuan (administrazioko langileentzat).

- Mediku-bajak edo “amatasun/aitatasun baimena” deitzen duguna: Gizarte Segurantzaren Legean jasotzen dira.

Seme-alabengatik errentan jasotzen ditugun onurak: Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko foru-arauetan (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroak beren araudia dute, eta Estatu mailakoarekin alderatuta ezberdina izan daiteke).

- Familia Ugarietarako dagokionez, beste lege propio bat dute.

### **Orduan, zergatik da garrantzitsua Familia Lege hau onartzea?**

Lege-proiektu hau garrantzitsua da, **familia-ikuspegia administrazio publikoen jardun guztietan txertatzea** eskatzen duelako, eta gainera, familientzat **eskubide zehatzak** jasotzen dituelako. Hau da, lege-proiektu honek bi atal dituela esan dezakegu:

Batetik, hainbat **printzipio** jasotzen ditu (“printzipioak” diot, izan ere, ez dira eskubide zehatzetan zehazten), administrazio publikoei dei eginez familien bizi egoerak hobetu ditzaten. Hau da, gisa honetako esaldiak ditu: “administrazio publikoek enpresetan ordutegi malguak txertatzeko lan egingo dute”, “administrazio publikoek kontziliazioa eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartuko dituzte”, “administrazio publikoek osasuna eta ongizatea bermatzeko ekingo dute”, etab.

Bestetik, **eskubide zehatzak** jasotzen ditu, kolektibo konkretu batzuei eskubide gehiago emanaz edo onurak eskainiz. Hona hemen jasotzen dituen eskubide zehatz batzuk:

- **Hazkuntzagatiko laguntza:** 0-3 urte bitarteko haurren gurasoentzat 100 euro hileko laguntza jasotzen da. Hala ere, kontuan izan behar da

dirulaguntza hori ez dela prestazio unibertsal bat izango agian. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan honezkero Eusko Jaurlaritzak antzeko dirulaguntza bat badu (200€/hilean).

- **Guraso bakarreko familiak:** lege-proiektuak hainbat lege aldatzen ditu, guraso bakarreko familiei eskubide gehiago emateko. Besteak beste, titulu bat emango litzazieke, zerbitzu publiko batzuk eskuratu ahal izateko (haurtzaindegia doan 16 astez haurraren lehen bi urteetan – EAEn haurreskolak doakoak dira honezkero). Gainera, familia ugari titulua izango lukete bi haur izanez gero.

- **Familia ugariak:** familia ugarien legedia aldatzen da eta “familia ugari titulua” lortzeko zenbait betekizun malgutu egingo lirateke.

- **Ezgaitasuna familian:** gurasoek edo hurrek ezgaitasuna izanez gero, hobekuntzak jasotzen dira lege-proiektuan.

- **Izatezko bikoteak:** izatezko bikote egitea erabakitzen duten familien egoera, ezkontuta dauden bikoteen familiekin berdintzea da helburua (adibidez, alarguntasun pentsioa jasotzeko).

- **Elikagaiak Ordaintzeko Berme-Funtsa:** elikagaien pentsioa ordaintzen ez den kasuetarako Funtsa da. Hobekuntzak jasotzen ditu kaltetuentzat.

### **Zein gai ez dira lantzen Familien Lege-Proiektuan?**

Azken hilabeteotan denon ahotan egon diren hainbat gai, ordea, ez dira jasotzen lege-proiektu honetan. Garrantzitsua deritzot argitzea:

- **Amatasun eta aitatasun baimena 20 astera luzatzea** (orain 16 astekoa den baimena). Espainiako Gobernuakideek baimen hori 20 astera luzatzeko asmoa azaldu dute. Baina, lege-aldaketa hori argi eta garbi ez dago indarrean, eta ez dakigu indarrean egotera iritsiko ote den ere (eta, iritsiz gero, zein baldintzetan hartu beharko liratekeen 4 aste gehigarri horiek; lanaldi partzialean hartzeaz hitz egin da eta).

- **8 asteko guraso-baimena:** oraingoz, 8 asteko baimen hori ez da ordaindua. Behin eta berriz entzuten ari gara ordaindutakoa izango dela, baina oraingoz ez dakigu noiztik aurrera emango den egoera hori (ezta nor hartuko duen ere bere gain kostu hori, enpresek ala beste administrazioen batek). Gainera,

ordaindutakoak 4 aste izango direla esan da.

- **Ama bakarrentzat ez da amatasun baimenaren luzapena jasotzen:** jakina da ama bakarrez osaturiko familiak 16 aste horiez gain, aste gehigarriak eskatzen ari direla. Gaia erabat epaitegien esku dago une honetan eta aldarrikapen entzutetsu bat izan da, baina oraingoz, zoritxarrez, ez dago inolako aldaketarik familia hauentzat.

### **Argi-ilunez beteriko egoera**

Esan bezala, Familien Lege-Proiektu hau aurrerapauso bat da, administrazio guztiei dei egiten baitio familien ongizatea erdigunean jartzeko. Hala eta guztiz ere, ez dakigu noiz onartuko den edo zer nolako aldaketak jasan ditzakeen bidean.

Legeak jasotzen ez dituen gai batzuk gorago aipatu ditut. Eta tartetxo hau erabili nahiko nuke oraindik ere eztabaidaren erdigunera eramatea kostatzen zaigun beste arlo hau aipatzeko: **amatasun biologikoaren** babes handiagoa behar dugu. **Haurdunaldiko 39. astetik aurrera** ematen den mediku-baja horrek, adibidez, oso emakume gutxirengan du eragin positiboa praktikan (asko eta asko ez dira haurdunaldiko aste horretara heltzen ere, eta heltzen direnetatik beste asko honezkero baja egoeran daude). Bestalde, **erditzeostea babesteko hutsune nabarmenak ditu legediak: amagandiko edoskitzea** bermatzeko baimenik ez dago (“edoskitze-baimena” deiturikoa berbera da emakume eta gizonentzat, edoskitze naturala egin ala ez). Oso zaila egiten da Osasunaren Mundu Erakundearen “bestelako janaririk gabeko” 6 hilabeteko epea betetzea babesik ez badugu. Amaitzeko, **zesarea** bat jasan behar izan duten emakumeentzat ere ez dago “amatasun baimenaren” luzapenik, eta niri egoera hori bereziki diskriminatzailea iruditzen zait, ikuspegi juridiko batetik helduta.

Beraz, pixkanaka aurrera baldin bagoaz ere, familientzat bidea argitzen baldin badoa ere, iluntasunean dauden hainbat egoera azalera atera behar ditugu, familia-eredu eta zaintza-eredu guztiak bermatuta egon daitezen.

# Gaurko gurasoek ez omen dakite

*eusma Azkona*

Badira aste batzuk Nafarroan eztabaida sutsua izan dela eskoletan. Arrazoia, eskoletako ordutegia jarraia ala zatitua izatea.

Tartea eman nahi izan dut debate horretan ikus eta entzundakoen inguruan hausnarketa lasaia egin ahal izateko.

Lehenik, Nafar Gobernuko Hezkuntza sailaren arduragabekeria galanta salatu beharra dago:

Eztabaida zintzoa eta arduratsua proposatu ordez, gaur egun gizartean txertatua dagoen debatea bermatu du: “Onak edo gaiztoak”; “Txuri ala beltz”; nire alde, edo nire kontra.

Honek eskoletan giro garratza utzi du: enfrentamendu antzuak, taldekatzeak, egonezinak, ... batzuetan haurrengan ere islatu delarik.

Esan bezala, onartezina da.

Hezkuntza Departamenduaren ardura Eskola giroa zaintzea litzateke, ez aldiz izorratzea.

Ez da zilegi halako eztabaida eskolen gain “jaurtitzea”, aldez aurretik jakinda zein eztabaida sutsu sortu behar duen. Ez da halakorik egin beste gai batzuekin, PAI -inglesa eredu- ezartzearen kasua lez.

Bestalde, eztabaida honetan, gurasoen beharretatik sortutako eztabaida egon da. Gutxitan izan dugu haur eta nerabeen ahotsa eta beharrak entzuteko.

Ez dut esan nahi haur eta nerabe guztien ahotsa ordutegi jarraia alde egon behar litzatekeenik. Bai ordea, beraien ahotsa adierazteko aukera gutxi eman direla, eta hauek dira batipat erabakiaren ondorioak pairatu behar dituztenak lehen pertsonan.

Tira, dena den, honek ez gaitu ustekabeen harrapatuko, gutxi baitira Haur eta Nerabeen hitzak entzutearen aldeko esperientziak (juxtu, Oinherriren



baloreetan dagoena, hitza ematearen aldeko bideak eta saiakerak sustatzea).

Esan bezala, haur eta nerabeen aretan ere hitz eta iritzi anitz jasoko genituzke, baina bada gaur egun erraz ikusi ahal dugun errealitatea:

Haur eta nerabe askok beren gurasoen beharra dute!

Azken urteetan, batzuen kontzientzia lasaitzeko asmoz pentsatzen dut, ideia hauxe zabaldu da:

Ez da inporta denbora kantitatea, denbora kalitatea baizik.

Ez jauna! Kantitatea ere oso garrantzitsua da. Kalitatezko kantitatea. Ez da nahikoa egoten garen tarte txikietan, “haurrak” nahi duena egiten uztea. Ez, gu behar gaitu. Jolasean eta mugak jartzen. Gure seme-alaben ardura hartuz, beraien ongizatea bermatuko dituen erabakiak hartuz. Bere iritziak entzunez, eta beren beharrak identifikatuz, baina bere ongizatearen azken arduradunak geu garelako argi edukiz.

Baina, itzul gaitezen artikulu honen gai nagusira: ordutegiaren alde edo kontrako argudioak.

Beldurrak jota nago profesional askoren ahotan hauxe entzun dudanean:

“Familia askotan baino hobe eskolan daude; gaur egun gurasoek ez dakite hezitzen beren seme-alabak”.

Idea nahikoa zabaldua dago: eskolan baino hobe inon ez. Eskolan daukagu heziketa “onaren” giltzarria.



Benetan ideia arriskutsua iruditzen zaidala. Eta benetan ikusi eta baieztatuko bagenu gurasoak noraezean dabiltzala, eskolaren ardura litzateke horretan laguntzea: gurasoak ahalduntzea beren arduretan, aholkularitza zintzoa eskaintzea, akonpainamendu abegitsua egitea.

Burura datorkit “Por amor a mi familia” liburuko pasarteak:

*“Behar dugun lehenengo gauza bat gurasoei errua botatzeari uztea da. Ume batek zerbait gaizki egiten duenean eta norbaitek esaten duenean: «Gurasoen errua da», gaineratu behar da, gurasoei errua leporatzen dietenena ere badela apurtxo bat. Errua botaz, iraindu egiten baitituzte, konfiantza hausten dutelako, inizatiba mugatzen dutelako... Eta, okerrena, duintasuna kentzen dietelako. Eta duintasunik gabe ez gara gai inor hezitzeko”.*

# Litxarreriak, guztion erantzukizuna

*Maitte Garitane*

Goxoki edo litxarrera bezala ezagutzen ditugun produktuen taldea izugarri handitu da ni txikia nintzenetik. Jada ez dira lau karamelu, goxoki edo pakete. Aukera infinitua da. Zapore, testura, usain, tamaina, paketatze, formatu, .... berriak asmatu dira, gehigarri berriak edo hauen erabilera berriak asmatu diren heinean. Edulkoratzaile ezberdinak esate baterako (sukralosa, aspartamoa, ...).

Egungo litxarrerien osagaien zerrendak irakurtzen jartzen naizenean, nire garaikoekin alderatuta, oso ezberdinak direla konturatzen naiz. Hauetariko batzuek daramaten esloganak ezberdinak direla ere ohartu naiz. “Dieta munduan” modan egon diren korronteekin bat datozen esloganak hain zuzen ere. Hauek, aldatzen edo gehitzen joan baitira modarekin batera; “azukrerik gabe”, “glutenik gabe”, “Koipe begetala soilik”, “vegan”,... Badirudi litxarrerien kontsumoak jarraitu beharreko elikadura baten parte izan behar duela. Eta horrela izan dadin, mozerro ezberdinak aukeratzen zaizkie momentuko korrontearekin bat egiteko. Marketina.

Produktu hauen oinarritzko osagaiak azukrea, landare zein animalia jatorriko koipe aseak eta gatza direnez, balio energetiko altua izan ohi dutela jakina da. Baita kaloria hutsak bezala katalogatzen direla. Hauen ekarpen nutrizionalak ez baitu gure organismoaren beharrak asetzen duen nutrienterik. Hala ere, hiru osagai hauei gehigarrien presentzia (gelifikanteak, koloratzaileak, zapore indartzaileak, edulkoratzaileak, ...) gehitu behar zaie. Hori dela eta, kontziente izan behar dugu hauek izan ditzaketen ondorioez kontsumoa noizbehinkakoa ez denean, adin txikietan eta barneratze goiztiar bat denean (4-6 urtetik behera).

Izan ere, indartzaile guzti hauen (ez soilik litxarreriatan daudenak) ondorioz txikitxoenen gustu edo zapore ohituran (baita gurean ere) aldaketak gerta daitezke jakien preferentziak distortsionatuz beste ondorio batzuen artean.



Edulkoratzaileen inguruan ordea, haxe erakutsi digute azken ikerketek: aho zein hesteetako flora bakterianoa asaldatzeaz eta glukosaren metabolismoaren tolerantzia hondatzeaz gain, asetze erreflexuan ere aldaketak eragiten dutela. Hau da, gosea estimulatzen dute garun mailan sortzen diren mekanismo batzuen bitartez. Ondorioz uste genuena baino gehiago jaten bukatzen dugu eta gainera azukrea jan ez dugunez, hobeto egin dugunaren pentsaerarekin.

Ez naiz sartuko “zer da hobe, edulkoratzailea edo azukrea?” polemikan. Edulkoratzaile ezberdin pila baitaude ondorio ezberdinekin, jandako kopuruak/frekuentziak ere baldintzatzen duelako edo bat deabrutu eta bestea gorai patuko nuelako (jakinean bien kontsumoa neurtua eta aldikakoa izan beharko lukeenean) posizionatuko banintz. Beti esan ohi izan dugun bezala, oinarria kontsumo kontziente, aldikako eta neurtuan dago. Ez dago debekuan.

Hala ere, erreflexionatzera eramaten didana litxarrerien KONTSUMOA beroi da. Beronek izan duen eboluzioa. Halaber, ze adinetara irekitzen den, ezartzen diren ohiturak, egunerokotasunean duen presentzia, normaltasuna, eskuragarritasuna eta ahoratutako kopuruak.

Gainera, xelebrea bada ere, batzuetan haurrek produktu hauek jatearen erantzuleak ez dira gurasoak, ingurua baizik. Hau da, adibide ezaguna izango duzue: haurrak erosketak egiten lagundu digu harategira eta bertan gaileta bat oparitu diote, jarraian ogia erostean karamelu bat eman diote, fruta dendan beste goxoki bat, parkera joan eta gelakideekin elkartzean hauek “gusanito” tankerako

pakete bat jaten daudenez berak ere jan du, etxera bidean bizilagunarekin elkartu eta txikle bat eman dio mutiko zintzoa baita. Eta hurrengo egunean berriz. Noizbehinkako kontsumoa eguneko bilakatuz.

Egia da, aipatu izan ohi dizuedan ez ukatu ez eskaini filosofia (Julio Basulto nutrizionistaren esaldi famatua) jarraitzea garrantzitsua dela heziketa egoki baterako. Baina non dago ez ukatzearen muga? Nola sentitzen zarete honen kontziente zaretenean? Zer egiten duzue? Formula bakarra ez dagoenez eta badirudi denon esku dagoen zerbait denez (gizarte baten bizi baikara) nik, ez daukat erantzun bakarra. Eta batzuetan erantzun gabe geratzen naiz.

Baina erantzukizuna guztiona denez, honen inguruan hausnartzera animatzen zaituztet. Produktu hauek hurrei eskaini haurretik galdetu; Beharrezkoa da ezer ematea? Gurasoei galdetuko diet aurrena? Eskaini dezaket beste zerbait? Aukera osasuntsuagoak eskainiko ditut?....

# Arreta norberaren baitatik hasten da

*Mikel Egibar*

-Egun on maitea, zer moduz zaude, zer moduz egin duzu lo gaur?

-Ez dakit... nekatuta nago, uste dut ez dudala ondo lo egin.

-Nolatan, amets gaiztoak egin dituzu ala?

-Ez, nire smart watchek kalitate baxuko loaldia izan dudala esaten dit.

Edozein etxetan goizean sor daitekeen elkarrizketa da honako hau. Ustekabeen bi pertsonen arteko elkarrizketa intimoan hirugarren elementu bat inposatzen ari da azkenaldi honetan: teknologia berriak.

Elkarrizketa honetan logikoa litzateke esatea: Ez, ez dizut galdetzen zure smart watchek dioena; zuk zer moduz lo egin duzun baizik... eta erantzuna: ba... ez dakit, izango da seguru aski.

Gorputzaren funtzio nagusia homeostasia lortzea da. Homeostasia orekarekin parekatu daiteke. Gorputzaren autorregulaziorako ezinbestekoa da bere barne tenperatura, odol presioa eta hormonon jarioa aldakorra izatea, izan ere, homeostiaren oreka hausten bada, larrialdi egoera sortzen da eta berriz ere osotasunaren bila doa eta ondorioz gorputza osatu behar da berriz ere. Homeostasia beraz, prozesu garrantzitsua bezain konplexua da. Argi dago guk ezin dugula modu intenzionatu batean funtzio hau erregulatu, ez bere osotasunean behintzat. Hori dela eta, nerbio sistema linbikoarekin (emozioekin) guztiz erlazionatuta egoteaz gain, nerbio sistema autonomo gisa funtzionatzen du, organo multzo klabea talamo-hipotalamo delarik.

Ezin da esan epe laburrean teknologia berrien erabilerak burmuinaren funtzioak eraldatzeko gaitasuna duenik, baina bai, ordea, burmuinaren baliaideak erabiltzeko era eta sistema aldatzen



dutela teknologia berriek.

Burmuinak duen funtzio linbikoak inguratzen digun errealitatea antzemateko irakurle azkar gisa funtzionatzen du: modu ez kontzientean egoera ikusi, aztertu eta erantzuna ematen du. Zorionez, burmuinaren erdigunean dagoen zatitxo hori, burmuin linbikoa, gai da bera bakarrik hori bideratzeko. Egoerak konplexuak direnean burmuinak denbora gehiago hartuko du eta aurretik izan duen esperientziatik eratzun egokiena aurkitzen saiatuko da. Kasu honetan burmuin linbikoa kortexekin erlazionatzen da.

Lehenengoa ala bigarrena izan, errealitatera egokitzeke erabiltzen diren sistemak guztiz barneratuta dauzkagu, burmuinak eta orokorrean gorputzak dituen funtzioetan oinarritzen baitira aipatutako sistemak.

Gure gorputza etengabeko arreta egoera batean bizi da. Lotan gaudenean ere barne arreta sistema martxan daukagu. Lehen esaten genuen bezala, arreta funtzioa, beraz, barneratuta daukaku. Hala ere, barneratuta, internalizatuta izateak ez du esan nahi ez garelako arreta mota horretaz jabetu behar. Idatzi xume honen bitartez defendatu nahi dugun hipotesia izango da, hain zuzen, pertsonaren arreta kalitatezkoa izateko, ezinbestean, internalizatuta ditugun mekanismoak interpretatzeko gaitasunetik abiatzen eta elikatzen direla.

Gaur egun ohikoa da mendira hipokanpoa desaktibatzen duen GPS gailu batekin joatea, edota jarduera fisikoan pulstometro batek gure bihotzak



daraman martxa gailu baten bitartez neurtzea eta, beraz, hipotalamoak egiten duen lanari muzin egitea; hortxe dugu ere idatzi honen hasieran aipatu dugun loa kontrolatzeko eta neurtzeko gailua ere... Burmuinak dituen funtzioei ez diegu kasurik egiten eta kanpotik (gorputzetik kanpo) jasotzen ditugun datuei lehentasuna emanez, arretarako oinarritzkoa den aldi hau teknologi berrien bitartez kaporatzen edota externalizatzen dugu.

Gure jendartean agintzen duen sistema kapitalistarekin analogia dagoela esan genezake: herritarren artean modu komunitarioan eta barneratuan eskaini daitezkeen zerbitzuak erabili beharrean, interes komertziala dela medio, zerbitzu komunitario hauek desaktibatu eta sentipen eta funtzionamendu komunitarioa galbidean aurkitzen da. Arretarekin antzeko zerbait gertatzen da: kanpoko tresnak erabiltzen oso trebeak izan gaitezke baina gure gorputzaren funtzioaz sor daitezkeen ezezagutzak handitzen joan daitezke: birtualtasunak errealitatea ordezkatzeko doa, eta smart watchek hipotalamo kolonizatzen du.

Azken hamarkada hauetan azpimarratzen ari da haur eta gazteen arretaren kalitatea asko jaitsi dela. Horren atzean, zalantzarik gabe, arrazoi bat baino askoz gehiago egon arren, guk, gaur, arreta trebatzeko oinarrian dagoen aldiari garrantzia eman nahi izan diogu, hau da, bizi esperientzia osoa eta kalitatezkoa izateko, pertsonak bere baitan aktibatzen diren mekanismo eta fenomenoak interpretatzen jakin behar du. Honek trebakuntza, formazioa eta laguntza eskatzen du. Chromebook gutxiago eta jarduera eta heziketa fisiko gehiago behar ditugu ikastxeetan.

Nietzsche eta Marxekin Jaingoikoa hil zela esan daiteke, ondoren, postmodernismoarekin gizakia. Gaur egun birtualtasunaren bitartez errealitatea akatzen ari da.

# Presentzia

*Miren Ros Aiarzaguena*

Hiperdigitalizatu eta hiperkonektatutako errealitate honetan, non pantailek gure arreta beregain hartzen duten eta dena berehala erantzun beharra dagoela dirudien, sosegu eta hausnarketarako aldarrikapena egiteko beharra sentitzen dut. Pantailak itzali eta gure buruarekin solasaldi geldoan.

Noiz izan da azkenekoz ezer egin gabe egon zinena? Zu eta zure pentsamenduak dantzan; besterik ez.

Halako momentuak beharrezkoak ditugu gure ongizate emozionala eta osasun mentala zaintzeko. Gure burua ezagutzeko, zer nahi dugun jakiteko, zerk eragiten gaituen hausnartzeko, nola sentitzen garen somatzeko, sormena martxan jartzeko kanpo-baldintzarik gabe... garapen pertsonalerako altxorra da.

Eta altxor hori gure seme-alaben eskutatik aldentzen ari gara; aspertzen uzten ez diegulako, etengabeko entretenimendu bat eskura utzi diegulako, berehalako ordainsaria eskaintzen duen azaleko dibertsioa, menpekotasun ikaragarria sortzen duen denborapasa hutsala...

Gauzak horrela, gure eta gure gaztetxoek txupete emozionalak bilakatu dira gaur egun pantailak. Gure sentimenduak bizi eta haietaz jabetzeko aukera lapurtu dizkigute. Triste zaudela? Puf.. nori gustatzen zaio triste egotea? Klik batean Tik-Tok ireki eta berehala entretenituko zara, ez daukazu zure tristurak zerk eragin duen pentsatu beharrik, ezta horri buruzko gogoeta egin beharrik. Urduri zaudela? Brawl Stars jolasten hasi eta pasako zaizu... eta horrela orduak eta egunak aurrera doaz etengabeko distrakzioan...

Guzti honen eragin zuzena, emozioen kudeaketan galera da. Kanpora begira bizi gara eta hori arriskutsua da. Ez badugu barrura begiratzen ez dugu gure burua ezagutzen, ez dugu gure barne-senarekin konektatzen eta nola sentitzen garen aztertzeke ez bagara geratzen, nola kudeatuko dugu sentimendu hori? Honen adibide garbia, gero eta ikasle gehiagok azterketa baten aurrean bizi dituzten antsietate-krisiak. Ezin buelta eman azterketa baten aurrean



sentitzen den urduritasun normal horri. Gero eta sarriago ematen den egoera da.

Gurasoak gure seme-alaben eredu gara eta nire proposamena gugandik hastea da: goazen gu geu geratzeko espazioak eskaintzera geure buruei, lasaitasunean, gure barruarekin konektatzeko. Heldu sosegatu eta zaindu batetik abiatuta, gure haur eta gazteek behar duten bidelagunak izango gara. Gure seme-alabek behar dutena, gure presentzia baita, inoiz baino gehiago. Distrakziorik gabe.

Begietara begiratu, laztan bat, besarkada bat, hitz goxo bat,... bere ondoan egon, isilik bada ere, baina gure energia eta jarrera beraiekin. Gure amama Juanitak zioen bezala, **“umiekin egon inbiada”**. Eta benetan egoteko, presentziarekin, gure arreta desbideratzen dituzten distrakzio horiek alde batera utzi behar ditugu.

# Komunitatearen garrantziaz

*Naroa Martínez*

Egoera berriek beldurra ematen digute maiz, naturala da hori. Gainera, beldur amankomun ugari ditugu gizartean eta, ausartuko nintzakete esatera, gurasotasunean seme-alabek sufritzeari eta heriotzari beldurra diegula bereziki. Azken hau izaten da nire hizpide normalean eta gaurkoan ere hala izango da.

Aurten, ikastetxe batean bidelagun izan naiz euren kide baten heriotzaren ondorioz. Nire betebehar bakarra distantzia emozionaletik euren bidea baieztatzearena izan da.

Baina ez, ez nator nitaz hitz egitera, komunitate horrek izan duen indarrak eta momentu zailenetatik gizakiaren onena ateratzeko izan duten gaitasunaz baizik.

Eta zergatik diotsuet hau? Zuengan sinistu dezazuen; zuen ingurukoak kontuan har ditzazuen zeuen zein euren momentu zailetan; zuen bizipenak eta sentimenduak partekatzera animatu zaitezten... Izan ere, minak, beldurrak, zailtasunak... konpartituak direnean arindu egiten baitira.

Denok bizi izan ditugu doluak eta, bakoitza bide desberdina argi izanik, bestearen emozioak ulertu ditzakegu. Geure burua doluan egon denean artatu badugu, badakigu zein garrantzitsua den jendearen babesa sentitzea.

Beraz, ez dezagun doluan dagoena saihestu edo baztertu eta bere errealitate berria geure errealitate berria ere izan dadila, beti erraza ez den arren, aberastu egiten gaituelako eta, epe luzera, lasaitasuna ere eskainiko digulako.

Komunitatean sarea egin dezagun, elkar zaindu gaitezen eta horrela denon osasunaren alde arituko gara.

Eta, azkenik, bidelagun aukeratu ninduen



komunitateko kide bakoitzari hemendik besarkada estu bana egiten ari zareten biderako eta eskerrak zuengandik hainbeste ikasteko aukera emateagatik.

# Gehiago egin dezake

*Mireia Centeno*

Ikasturte amaiera ailegatzen da eta honekin batera ikasleentzako oharrak gehitzen dira buletinetan. Zoriontzeak, hausnarketak, gomendioak... eta guzti hauen artean honako mezuak errepikatzen dira maiz:

- Kurtsoa ondo bukatu du, baina gehiago egin dezake
- Pixka bat gehiago saiatzen bada, gehiago egin dezake
- Dirudiena baina gehiago egin dezake
- Gehiago egin dezake...

Mezu honen atzean, ideia nagusi bat dago. Gure onena emateko beharra eta garrantzia eta etengabe saiatzea. Baina, zer ba gure onena? Besteentzako onena dena guretzako ere onena al da? Aldagai bakararra al dago gure onenaren atzean?

Zertan saiatu behar gara? Besteek gutaz espero duten hori ematen? Eta zer da guk eman nahi duguna?

Galdera da: benetan gehiago egin dezake?

Agian ikasteka zailtasun bat dauka: Haur asko daude, gaitasun oso handiak dituztenak, eta ez dituztenak emaitza altuak ateratzen. Honen atzean, ikasketa zailtasun bat egon daiteke, askotan gaitasun altu hauek ezkututzen dutena. Idazketa zailtasuna, irakurketa zailtasuna edo arreta mantentzeko zailtasuna. Zailtasun hori detektatu dezakegu eta egoera onartzen lagundu, edo detektatu gabe, emaitzei garrantzia gutxiago eman.

-Agian emozionalki ez dago momentu honenean. Naiz eta gaitasuna izan eta naiz eta zailtasunik ez izan, batzuetan ez gaude lasai, triste gaude, beldur gara... emozionalak gara eta eragina zuzena da. Emozioa hauek batzuetan oso agerikoak dira, baina beste batzuetan haurrak bere ezinegona ezkutuan darama.

-Agian burua sozialean dauka, momentu honetan garrantzia gehiago ematen diolako. Hau askotan



nerabezaroan gertatzen da. Naiz eta alderdi akademikoan saiatu, beste interes batzuk ere badaude, eta adin edo garai batzuetan garrantzitsuagoa izan daiteke alderdi soziala beste edozer baina. Noski neurria aurkitzen lagun behar diegula, baina jakin honek eragina izango duela eta momentuan ezingo duela bere burua ikasketetara erabat zuzendu.

-Sozialki dituen eta izan dituen zailtasunak eragina izan du bere errendimenduan. Aurrekoarekin oso lotuta, alderdi sozialak izugarritzko pisua duenean, eta behar hori ase gabe dagoenean, beste guztian eragina izango duk eta batez ere alderdi akademikoan. Beraz hau ere, kontuan izan behar dugu.

-Agian ez du motibaziorik. Agian landu dituzten edo lantzen ari diren gaiak ez zaizkio gustatzen. Gaitasuna izan dezake, baina interesik ez. Eskolan egiten diren gauzak, egiten ditu eta egiteko gaitasuna du, baina ez zaizkio interesatzen. Ez diote motibazio eragiten eta naiz eta hauek gainditzeko nahikoa egin, ez da gehiago saiatzen esfortzu handiegia delako berarentzat.

-Agian gehiago egiten du beste alderdi batzuetan. Eskolan lantzen ez diren beste gai batzuekiko azaltzen du interesa eta eskolatik kanpo saiatzen da gai hauekin. Gero hau ez da bere emaitzetan irudikatzen, baina asko saiatzen da. Eta honekin berak nahikoa du.

-Agian nahiago du gaiak beste era batera landu. Gaiak lantzeko metodologia ezberdinak daude, eta haur batzuk metodologia batzuekin besteekin baina hobeto moldatzen dira, edo gehiago motibatzen dira. Eskolatik kanpo lantzen ditu baina beste modu batzuetara.



-Agian ez du gaitasuna gehiago egiteko. Agin ezin dezake gehiago egin.

Momentuan ahal izan duena egin du.

Gure onena emateko eta ahal dugun guztia emateko momentuak izaten ditugun arren, etengabe horrela bizitzea ez da osasuntsua. Osasun mentala zaindu behar dugu eta horretarako aldagai eta behar ezberdinak hartu behar ditugu kontuan.

Oraindik ere, emaitzekin neurtzen dugu “arrakasta” eta ez plazerrarekin eta disfrutearekin. Benetako arrakasta, bidean gozatzen lortzen da dugu.

# Adimenaren teoria eta jolasa

*Itziar Arregi landa*

Gaurkoan umea adimenera nola hurbiltzen den ikusiko dugu. Umea poliki poliki doa mundua ezagutzen, bera inguratzen duena ezagutzen: mundu fisikoaren ezaugarriak identifikatzen (zer den gogorra, zer leuna, zer iletua, zer epela, zer bustia, zer gertatzen den zerbait indarra egiten badio...). Honekin batera, mundu soziala eta emozionalaren existentziaz ere ohartzen joango da, baita honen nolakotasunaz ere. Guzti hori bere gorputz txikia mugituaz, ikutuaz, sentituaz... egingo du.

Helduak askotan saiatzen gara garapenaren alderdi bakoitza modu isolatuan aztertzen: “gaur mugimendu hau landuko dugu”, edo “gaur emozio honetaz hitz egingo dugu”, edota “gaur ideia hau azalduko dizut”. Baina umearen buruan ideiek ez dute zentzurik emoziorik gabe, eta emoziek ez dute lekurik gorputzean ez bada. Umeak dena batera garatzen du, hori da bere prozesua. Are gehiago, guk zer eta nola egin behar duen esan gabe egiten du. Nola? Jolasean.

Jolasak ematen dio aukera berez dakarren jakin min hori gorputzeko mugimenduen, sentsazio eta sentipenen bidez arakatzeko, emozioarekin lotzeko, harremanetan jartzeko, eta gertatzen ari denaren inguruko ideia bat bere buruan erregistratzen joateko. Jolasa dibertigarrai da, bai, eta aldi berean oso gauza serioa ere bada umearen bizitzan.

Jolasa oso txikitan hasten da eta gizakien kasuan denbora asko behar duen prozesua da. Prozesu horretan mugarririk desberdinak lortzen joango da umea. Gaurkoan arreta jarri nahi izan da adimenean: badago une jakin bat non umea ohartzen den munduaren ideia bere buruan dagoela. Ohartzen da berak jakin badakiela. Horrela esanda dirudiena baino aldaketa esanguratsua da umearen bizitzan. Ordurarte bazekizkien gauzak, baina ez zekien zekizkienik. Adimena zer den ulertzen hasi da.

Lorpen handi horren ostean, beste lorpen handi bat dago: umea ohartuko da beste pertsonen buruetan



adimenak daudela, eta ez dutela zertan berdinak izanik. Hau da, posible dela bere lagun batek gauza ezberdinak sinestea. Ordura arte, errealitatea bakarra izan da, eta denen buruan errealitate hori bakarrik egon da, adibidez, umeak bere kutxan bost txanpon bazituen gordeta, uste izan du denek zekitela hor bost txanpon zeudela, hor benetan bost txanpon zeudelako. Baina bigarren salto honen ostean, umeak ulertzen du agian besteek ez dakitela hor bost txanpon zeudenik. Besteen buruetan ideia desberdinak egon daitezkeela. Ideia hau adimenaren teoriak azaltzen du (gaztelaraz “teoría de la mente”, ingelesez “theory of mind”). Interneten erraz bilatu daitezke adimenaren teoria azaltzen duten esperimintuen inguruko idatziak zein bideo laburrak.

Ezagutza edo konkista hau gertatu dadin bi gauza dira behar beharrezkoak. Lehenengoa denbora da. Lorpen hau ebolutiboa da: garaia baino lehen emango ez dena, eta azeleratzeak edo aurrez lantzeak mesederik egiten ez diona. Eta bigarrena: testuingurua da. Testuingururik aberatsena jolasa da. Umeak jolasa behar du “adimena” ulertzeko, espazio, denbora eta materialetaz gain, beste umeak behar ditu inguruan, eta beraiekin elkarrekintzan, elkarrizketan, jolasean... testuinguru horretan joango da ohartzen besteen buruetan dagoenaz. Besteek ematen dizkioten erantzunen bidez, besteen irribarre edo bekozkoen bidez, eskaintzen duena eta bueltan jasotzen duen erantzunaren bidez, ulertzen joango da pertsona bakoitzak bere iritziak dituela, eta desberdinak izan daitezkeela.

Denboran kokatu beharko bagenitu prozesu hauek, orokorrean esan dezakegu hiru urte eta bost urteren

artean gertatzen direla, salbuespenak salbuespen. Esan bezala, tarte handia da, eta horren barruan, ume bakoitzak une ezberdinean emango ditu bere pausuak. Orokorrena da bost urterako besteen buruetan beste ideia batzuk egon daitezkeela ohartuta egotea. Tarte horretan, jolasean joan-etorri, saiakera, elkarrizketa eta gatazka asko bizi ditu umeak. Beharrezko eta osasuntsuak direnak denak. Elkarrekintza horretan joango da bere usteak besteenekin batera jartzen, adostasunak eta desadostasunak bizitzen, hauei aurre egiten. Ez da harritzekoa hiru urterekin jolasa asko etetea, gatazka asko izatea, laurekin gutxiago izatea, eta bost urterekin elkarrekin jolas luzeagoak sortzea, adostasunak errazago bilatu ahal izatea.

Lorpen honek, besteen buruetan ideia desberdinak egon daitezkeela ohartzeak, mundu sozialean ate handi bat zabalduko dio umeari. Harremanetan trebatzeko bidean ezinbesteko urratsa da. Aurrerago beste urratsa batzuk etorriko dira umearen bizitzan, umea ondorengoa pentsatzera iritsiko da: “besteak ez daki nire buruan zer dagoen, zer gertatuko litzateke gezurra esaten badiot?”. Gai potoloa hau ere... baina beste egun batetarako gordeko dugu.

Umearen prozesua hori bada, orduan helduok zer da egin dezakeguna? Lehenengo eta behin, interesgarria litzateke prozesua ezagutzea eta errespetatzea. Prozesua ezagutzen badugu, askoz errazagoa da errespetatzea eta ez aurre hartzea. Bestela, borondaterik onenarekin, umeak behar ez dituen azalpen luze eta zabalak ematen eror gaitezke, ulertzeko gai ez diren azalpenak. Ikaskuntza hau ez baitator azalpenetatik, bizipenetatik eta garapenetik baizik. Horrek leku delikatuago batean uzten gaitu: umearen joan-etorri, saiakera, frustrazio, gatazka eta lorpenen aurrean, guk non egon behar dugu? Aldamenean. Aldamenean egotea dagokigu: esku zabalik, eskura egoteko, berak dakarrena jasotzeko, eusteko, minik balego babesteko. Prozesu honetan bizipen gozo eta gazietatik iragan behar izango du umeak. Begiak zabal zabalik egotea dagokigu bere lorpenak ikusteko, miresteko, umeak egiten duen bide magiko hori hurbil hurbiletik ikusi ahal izateko.

# Udako doluak

*Narrea Martínez*

Dolua heriotzarekin lotzea ohikoa dela badakigu, baina zorionez, ez dira ohikoenak. Gaurkoan, udan ohikoak diren doluez arituko gara, izan ere, helduontzat normalizatutako zenbait bizipenak izan arren, haurrentzako gertakizun garrantzitsuak dira.

Txikienak, maiz, pardela uztera gonbidatzen ditugu udan. Ordura arte bere bizitzako lehenengo 2, 3 edo 4 urtetan ohikoa izan den bigarren azala utzi behar dute. Are gehiago, euren gorputzeko atal gisa bizi duten pixa edo kak joaten utzi behar dituzte.

Koxkorragoak direnean, udako beroekin ilea moztea ere egokitzen zaie. Erosotasunaren, freskotasunaren... sinonimo dira helduontzat baina beraientzat, beste behin, beraien gorputz-atal bat agurtu beharra.

Aurrenerabezaroan, ordea, udako gai garrantzitsuenetakoa udako adiskidetasunak izaten dira, zer esanik ez lehenengo harreman edo ezagupen sexualez. Oporren amaiera edo iraila iristearekin batera, hautsi edo banandu egiten diren harremanak izaten dira. Zer esanik ez haur saharar bat etxean izan badugu eta agian betirako agurtu behar badugu. Horiek, ordea, gertuagotik bizi ditugun doluak dira eta errazagoa zaigu enpatiatik akonpainatzea.

Bestalde, jaietan, zenbatetan erori egiten zaizkie izozkiak, eliozko puxikek alde egin, barraketako bidaiak amaitu...? Horiek ere dolu txikiak dira. Bizi beharrekoak. Eta guk akonpainatu beharrekoak.

Eta nola akonpainatu? Bada, beraien neurrira jarritz, euren emozioak balioztatuz eta helduleku izanik. Ez epaitu, ez garrantzirik kendu, negar egin ez dezatela ez esan...

Hemen aipatutakoak adibide batzuk baino ez dira udan kontzientziatik izan gaitetzen bidelagun eta elkarrekin hainbeste ordu pasata, ahalik eta atseginen izan dadin denontzat.

Eta zuk, hausnartuak zenituen dolu hauek? Baten bat gehiago bururaten zaizu?





# Sare Sozial Digitalen eragina gorputz irudi eta autoestimuan

*Ainhoa Arruabarrena Aristorena*

Urte osoan zehar ematen bada ere, uda, garai konplexua da sare sozialen eragin negatiboari dagokionez. Uda sasoiak helduek dagoenean, sare sozialak, gorputz estereotipo normatiboak areagotzera bideratzen diren kanpainez betetzen dira.

Denboran zehar, oso zabaldua egon da “bikini operazio” deituriko kanpaina eta antzerako bestelako asko ere. Zerbait zaharra bada ere, sare sozialek daukaten inpaktua eta helmena dela eta, gero eta ondorio kaltegarriagoak antzeman daitezke, eta gero eta pertsona gazteagoetan. Ondorio horiek, gainera, oraindik eta larriagoak izan daitezke dagoeneko osasun mentaleko arazoak dauzkaten pertsonentzako, hala nola, elikadura nahasteak dauzkatenentzako.

Zorionez, badaude sare sozial digitaletan kontrakanpaina garrantzitsuak egiten dituzten aktibista eta osasun mental eta fisikoaren inguruan lan egiten duten profesional asko ere. Alabaina, algoritmo digitalak direla eta, horrelako kontu eta edukiak era kontziente eta aukeratu batean bilatu behar dira, ez direlako sarituak izaten. Aspektu honek, agerian uzten du, sare sozialen erabilera burutsu eta orekatuago bat egitearen beharra.

Argi eduki behar dugu, eragina ez dela bakarrik haur eta nerabeengan ematen. Sare sozialak erabiltzen dituzten pertsona guztiak daude hauen eraginaren menpe. Egia da, eragin horren esangura, handiagoa edo txikiagoa izan daitekeela, banakakoek duten lanketa pertsonalaren edo bizitzako momentuaren arabera. Zentsu horretan, haur eta nerabeak, edota dagoeneko osasun mentaleko arazoak dauzkaten pertsonak, zaurgarritasun egoera nabariago batean egongo lirateke. Edozein kasutan, bizi dugun egoera hau, banakoetan inpaktua eduki arren, arazo sozial, kolektibo eta sistemiko baten ondorio argia da.

**Baina zein eduki edo ekintza konkretuek utzi dezakete arrastoa gorputz irudi eta autoestimuen garapen prozesuan?**



Lehenik eta behin, imajinarioan jarri behar da arreta. Behin eta berrito, era sistematiko batean, burmuinak, gorputz estereotipatu normatiboaren irudiak ikusten baditu, errealak izan edo ez, uler dezake ikusten duen hori errealitatearen irudikapen bakarra izan daitekeela. Ikuspegi hori, berriz, irreal eta murriztua izango litzateke: gorputz argalak emakume bezala sozializatzen diren pertsonentzako, gorputz gihartsu eta definituak gizonezko bezala sozializatzen direnentzako, azal zuri eta ez razializatuak, gorputz atal handitu edota txikiagoak, azal testura leun eta “inperfekziorik” gabekoak, etab. Gainera, irudi mota horiek sarituak direla ikusten bada, bestelako hausnarketa kritikorik egin gabe, zuzenean ondorioztatu daiteke, gorputz mota konkretu hori eduki behar dela sozialki onartua izateko.

Arazoa, ordea, ez dago gorputz estereotipo horiek betetzen dituzten pertsonengan, baizik eta errealitatea, edertasuna, osasuna eta bestelako faktore batzuk, estereotipo horietan oinarritzean.

Bestalde, eta behintzat hausnarketa kritikora bidea zabaltzearen, interesgarria izango litzateke estereotipo eta itxura mota konkretu horiek bultzatzearen atzetik dauden interes ekonomikoak kontuan hartzea, edertasun produktuak, dieta miraritsuak, jaki superproteinikoak etab. saltzen dituzten enpresen kasu. Era honetan, sare sozial digitaletan, onura sozialak ere eduki arren, interes horiek bermatzeko tresna paregabe bezala funtzionatzen dute.

Errealitatearen moldaketa digitala ere, hau da, iragazki eta adimen artifizialaren erabilera, kontuan hartzeko

beste faktore bat izango litzateke. Gero eta gehiago ikusten ari da, adibide moduan, pertsonak argazkiak iragazkiekin ateratzera ohitzen ari direla, ondoren haien irudia ispiluan ikusterakoan, ondoeza sortuz, ez datorrelako bat argazkian ikusitakoarekin. Argi ikusten dira, horrelako kasuetan, gorputz irudiaren pertzepzio distorsionatuarekin egon daitezkeen arazoak. Zerbait deigarri moduan, TIK TOK bezalako aplikazioek eskuz moldatzen ez bada, berez iragazkiak dakartzate instalatzerakoan. Ondoren egia da konfigurazioaren bitartez kendu daitezkeela baina galdetu baino lehen irudia aldatzeko iragazkiak jarrita dauzkate.

Halaber, irudira soilik jo gabe, sare sozialetan kaltegarriak diren eta errealitatetik urrun dauden mezu asko jaso daitezke, gai desberdinetara lotuta, besteak beste, osasuna, elikadura eta ariketa fisikoa. Berriro ere, ikuspegi kritikoa ez aplikatzekotan edonolako informazio sinisterra hel daitezke sare sozial digitalen erabiltzaileak.

### **Beraz, zer egin daiteke guraso edo pertsona heldu moduan egoera honen aurrean?**

Lehenik, betiko moduan, hausnarketa pertsonala egitea eta norberaren zilborrera begiratzea ezinbestekoa da. Zein motatako ideiak daukat edertasunaren inguruan? Argaltasuna eta osasuna bat datozela uste dut? Zein motatako gorputzak ikusten ditut nire sare sozial digitaletan? Nortzuk eta nolakoak dira kontsumitzen ditudan erreferente digitalak? Honako galdera hauek egin ahal direnetako batzuk besterik ez dira, baina egin daitezkeen hausnarketen eredu bezala har daitezke. Oso garrantzitsua da, aztertzea ere zein motatako hitzak erabiltzen diren norberaren edo gainontzekoen gorputzaren eta izaeraren inguruan hitz egiterakoan, hau eredugarri izango baita inguruko haur eta nerabeentzako.

Bigarrenik, haur eta nerabeekin elkarrizketa jarraituak eta ikuspegi kritikoa lantzerako bideratutakoak edukitzea lagungarria izango litzateke, hauen heziketa eta ongizatea bermatzeko. Horretarako, haien ideia eta gustuekiko interesa erakutsi beharko litzateke eta galderen bitartez, haien ikuspegia zalantzan jartzera gonbidatu.

Hauen jokabide, emozio eta pentsamenduetan arreta jartzea ere ezinbestekoa da, haur eta nerabeak ahalik eta hoberen ezagutzeko eta gida laguntza eman ahal izateko haien beharretara erantzun hoberena emanaz.

Laburbilduz, arreta jarri behar da, sare sozial digitaletan eta hauen erabileratik eratorritako ondorioetan hainbat zailtasun eta arazoren iturri edo indartzaile izan ahal baitira.

# Miopia kontrola osasun kontua da

*Ainhoa Barrenetxea eta Leire Telleria*

Osasunaren Mundu Erakundeak ohartarazi du 2050erako biztanleriaren erdiak miopia izango duela. MIOPIA dagoenean, ez da urrunean ondo ikusten, lausotuta ikusten da eta argiak haloekin agertzen dira. Miopia dutenek hobeto fokatzeko begiak erdi itxi edo pixkat kliskatzen dituzte.

Normalean, ez da zaila izaten miopea diagnostikatzea, norberak edo ingurukoek antzematen baitute.

Alde batetik, faktore hereditarioa egoten da, baina gaur egungo gure bizimoduak ere eragin handia du.

Denbora luzez egoten gara gertuko zereginetan eta honek fokatze blokeo bat eragin dezake, urrutira ez dugulako begiratzen.

Mantentzen ditugun posturak ere eragina dute, tabletekin, mugikorrek eta halakoekin burua makurtuta izaten dugu eta honek ere eragin handia du ikusmenean.

Pentsa dezakegu miopia, betaurreko, ukipen lente edo ebakuntza bidez konpentsatua geratzen dela. Modu batean bai, begiak laguntza gabe ondo ikustea lortzen dugu eta, baina, miopia izateak gauza gehiago ditu atzetik.

Miopia duten begiak handiagoak izaten dira, pentsa dezagun gure begia globo bat dela eta begia miopea denean globoa gehiago puztuko bagenu bezala da. Beraz, geroz eta miopia altuagoa izan, gure begia handiagoa (globoa puztuagoa) izango da.

Begi horren erretina (atzeko partea, globoaren barruko aldea) oso findua egongo da, erretinan dauden zainak eta makula ere ez dira guztiz osasuntsu egongo, besteak beste.

Hortaz, nahiz eta pertsonak ondo ikusi ukipen lente, betaurreko edo ebakuntzaren ondorioz, urteroko azterketak egitea komeni da, miopeak izango dira beti eta noski ez da berdina 1Dp, 3Dp edota 5Dp izatea.



Bere maila altuenetan nabarmen handitzen dira patologia aukerak. Erretina patologia garrantzitsuak, hala nola glaukoma, katarata, makula arazoak edo erretina askatzea.

Horregatik, oso garrantzitsua da baliabideak jartzea haien progresioa kontrolatzeko, batez ere haurtzaroan eta nerabezaroan.

## **Eta, nola egin aurre miopia igoera horri?**

Alde batetik, oso garrantzitsua da zaintza berezi batzuk izatea. Gertuko zereginetan aritzean, urrutira begiratzea komeni da 5-10 minuturo. Bestalde, garrantzitsua da kalean, naturan denbora egotea, eguneko argitasuna oso lagungarria baita begiak fokatze hori lasaitzeko.

Ikasten edo telebista aurrean gaudenean, inguruko argi suabe bat piztua izatea komeni da.

Bestalde, atzean geratu da jada miopia ez igotzeko, hasieran ez konpentsatzea edota neurri txikiagoan konpentsatzea.

Azkenengo urteetan jakina da, ebidentzia zientifikoa medio, tratamendu espezifikoak dutela eragina.

Horien artean optometristok erabiltzen ditugunak:

Hauek denetan hainbat ikuspegi optikoren bidez, begiaren handitzea eragozten duen desenfokatzeko miopiko periferikoa lortzen saiatuko gara.

**1. Egunez erabiltzen diren ukipen lenteak.** Miopia kontrolatzeko bereziki diseinatutakoak, diseinu multifokala duten eguneko ukipen lenteak dira.

**2. Orto-k (Gauzez erabiltzeko lente zurrinak).** Ukipen lente hauek gauzez erabiltzen dira eta kornea azalera aldi baterako birmoldatzen dute, erdiko kornea lautuz eta erdialdeko eremu periferiko kurbatuz.

**3. Betaurrekoetan etengabe erabiltzen diren lente oftalmikoak.**

Kasu honetan, betaurrekoko lenteek dute miopia kontrolerako diseinu berezia.

Bestalde oftalmologoek atropina moduko tratamendu farmakologiakoak erabiltzen dituzte.

Egoera bakoitza bakarra da eta kasu bakoitza aztertu beharra dago tratamendu egokiena erabiltzeko.



# Adimen gaitasun handien identifikazioa: Oraindik zeresan handia ematen duen gaia

*Amaia Agiriano*

Jakina denez, 2019an Hezkuntza Sailak Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana argitaratu zuen. Ordutik, EAE-ko ikastetxeetan ikasle hauek identifikatzeko protokolo bat martxan da, eta, azkenaldian, geroz eta ikasle gehiago identifikatzen da.

Hiru fasetako prozesu honen lehen fasea (baheketa) LH1 eta LH6 mailetako ikasle guztiei pasatzen zaie. Maila horietako tutoreek, beren ikasle bakoitzari buruzko galdetegi bat betetzen dute, eta, hor lortutako emaitzaren arabera, ikasle hori hurrengo fasera pasako da edo ez.

Hori dela eta, zenbait guraso beren seme edo alaba LH1 edo LH6 mailetara noiz helduko zai egoten da, badakitelako prozesua maila horietan hasten dela. Izan ere, “nola esan gure semeak edo alabak gaitasun handia duenaren susmoa dugula? Zer pentsatuko dute gutaz? Eta gero ez bada, zer? Hobe guk ezer esan gabe, baldin bada, beraiek (eskola) konturatzea”. Horrelako kezkek guraso askok izaten dituzte, oraindik ere, gaitasun handien gaia, orokorrean, ez delako gizarteak normaltasunez daraman kontua.

Baina, zer gertatzen da batzuetan? Bada, gurasoen us-tez haurrak gaitasun handien zantzu asko izan arren, lehen fasea bera ere ez pasatzea. Edo lehenengoa pasa ondoren, bigarrena edo hirugarrena ez pasatzea. Maiz entzuten ditut kontsultan “ez dela esan digute, ez du lehen/bigarren fasea pasatu eta” edo “gutxigatik, baina ez dela esan digute”.

Kasu hauetan, baliteke gaitasun handiko ikaslea ez izatea, baina zalantzan gelditu bagara, komenigarria izaten da ebaluazioa nola joan den eta zer emaitza izan dituen jakitea, posible baita ikasleren batzuk ihes egitea. Sarritan, haurrek ez dute beren benetako izaera eta potentziala erakusten ikastetxean, eta, holakoe-tan, ez da erreza irakasleak haurra ondo ezagutzea. Beste batzuetan, irakasleak gaitasun handiaren lan-



ga oso altu izan dezake eta gaitasun handiko zenbait ikaslek agian ez dute esperotako maila hori erakutsi-ko. Holakoak gertatzen direnean, ez da samurra izaten lehen fasea pasatzea (eta hau pasatu ezean, ezin bigarren fasea egin).

Bigarren fasea berriz, ikasleari bere gaitasunak eba-luatzeko pasatzen zaizkion froga espezifikoek osatzen dute eta fase hau ez gainditu izanaren arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Baliteke gaitasun handi-koa ez izatea, baina baliteke baita ikasleak egun ona ez izatea eta bere onena ez ematea, zer/nola erantzun behar zuen ondo ez ulertzea, urduri egotea, une ho-rretan ebaluazioa egin nahi ez izatea eta gogo gutxi-rekin erantzutea, zailtasun ezkuturen bat izatea,... Eskolako aholkulariak edo orientatzaileak pasatu ohi ditu froga hauek eta berak azaldu ahal izango digu nola joan den prozesua eta zer ikusi duen, baina era berean, interesgarria izaten da haurraren ikuspuntua ere jasotzea: nola sentitu den, zer iruditu zaion, aha-lik eta ondoen egin duen,... Eta guztia kontutan har-tu ondoren erabakiko dugu berriz ebaluatzea komeni den edo ez.

Hirugarren faseko ebaluazio psikopedagogikoa Be-rritzeguneko aholkulariek egiten dute, horren be-harra dagoenean. Posible da azken fase honetan ere espero bezain emaitza onak ez ematea, baina norma-lean, bigarren fasea gainditua dagoenez, ikaslea es-kolako gaitasun handiko ikasleen zerrendan sartuko litzateke eta Norbanako Jarduera Plana (NJP) egingo litzaioke. Hala ere, behar izanez gero, badago ebalua-zio psikopedagogikoa berriz egiterik, baina denbora tarte bat utzita (pasatako frogen arabera).

Beraz, gaitasun handien ebaluazioan ikasle baten

emaitzek hori erakusten badute, ikasle hori gaitasun handikotzat hartu ohi da (emaitza horiek ez baitira ausaz edo zoriz lortzeko bezalakoak), baina espero bezalako emaitzak ematen ez dituenean, kontuz; gaitasun handiak ez dituela esan aurretik, agian, komenigarria da beste momentu batetan berriz ebaluatzea. Komenigarria izan daitekeen bezala, LH1 edo LH6-ra begira egon beharrea, haurra lehenengotik ebaluatzea (eskolan bertan edo eskolaz kanpo), batez ere, LH1 edo LH6-ra heltzeko asko falta zaienean, gaizki pasatzen dabiltzanean, behar berezi nabarmenak somatzen zaizkienean edota LH6 baino goragoko mailako ikasleak direnean.

Identifikazioak esku-hartzearen atak zabal ditzake.

# Guraso euskaldunak, antolatu gaitzen!

*Kike Amonarriq*

Guraso euskaldunen antolaketaren beharraz eta komenigarritasunaz jardungo naiz artikulu honetan. Eta amaierara itxaron gabe, azken ondorioa aurreratuko dizuet: guraso aktiboak dauden ikastetxeetan, Gurasoen Euskara Batzorde antolatu bat, edo gutxienez, gaiaren inguruan lanean ari den talde egonkor bat dagoenean, haurren euskalduntze-prozesua eta ikastetxe barruko eta kanpoko euskararen erabilera modu nabarmenagoan sustatzen dira.

Itzulingururik gabe, horixe da planteatzen dizuedana: zuen eskolan, ikastolan edo ikastetxean guraso euskaldunak batzorde edo talde egonkor batean antolatzea, eta horrelako egituraren bat baldin badago, berau indartzea.

## Gurasoen parte hartzea


Ikastetxe moten arabera, antolaketa moduak askotarikoak izan arren, eta gurasoen partaidetza bideratzeko egiturak era askotakoak izan arren, kasu guztietan, gurasoen dinamismo-mailak eragin handia du ikastetxearen funtzionamenduan, eskola-komunitatearen barne-trinkotze eta autoestimuan, eta batez ere, haurrek hezkuntza komunitatearekiko eta ikasketa prozesuarekiko garatzen duten pertzepzioan.

Gurasoen inplikazioa, etxean ez ezik, ikastetxeko barne-bizitzaren esparru gehienetan ere gauzatu daiteke, eta gauzatu beharko litzateke. Baina, gu, hizkuntza kontuetara mugatzen garenez, parte hartze hori, euskararen gaian nolakoa izan daitekeen azaltzen ahaleginduko naiz.

Euskal Herri osoko hamaika ikastetxerekin izandako harremanen ondorioz, euskararen gaia jorrazteko gurasoen artean aurkitu ditudan antolamendu-motak hiru taldetan sailkatuko nituzke:

### a) Euskara Batzorde autonomoak:

Guraso Elkartearen, Artezkaritza Kontseiluaren edo Zuzendaritza Batzordearen azpibatzerdeak izan



daitezke, edo Batzorde autonomo gisa funtzionatu. Edonola ere, iraunkorki elkartzen dira, talde finkoa osatzen dute eta kasu batzuetan arduradun izendatuak ere badituzte.

### b) Euskara arduradunak:

Ofizialki hala izendatuak izan ala ez, guraso hauek dira euskararen gaiaz arduratzen direnak, Guraso Elkartearen, Artezkaritza Kontseiluaren edo Zuzendaritza Batzordearen partaide gisa batzuetan, baina ez beti.

### c) Antolamendu finkorik gabeko taldeak:

Ekintza konkrituak antolatzeko, edo momentu jakin batzuetan, ekimen zehatzak aurrera eramateko elkartzen diren gurasoak dira, baina jarraikortasunik gabeko taldeak dira. Ikastetxean antolatzen diren hainbat ekimenetako laguntzaile puntualak, beste era batera esanda.

Eta badira, noski, egoera okerragoan daudenak, eta euskararen biziberritzearen inguruko gurasoen antolaketa minimorik ere ez duten ikastetxeak.

Seme-alaben eta ikastetxeko haurren euskalduntze-prozesuaz kezkatuta dauden eta gaiari ilusioz helduko dioten gurasoak elkartzea lehenengo urratsa da talde iraunkor bat sortzeko. Hori bi eratara egin daiteke:

- Zuzendaritzatik boluntarioak eskatuz, eta taldea osatuz.
- Edo kezka eta ilusio hori duten gurasoen artean egitura finko bat sortuz, ondoren, ikastetxeko organigraman

txertatzeko, eragozpenik ez dagoen kasuetan, behintzat.

### **Gurasoen Euskara Batzordeen garrantzia**

Hasteko, esango nuke, gurasoen artean Euskara Batzorde edo talde bat antolatzeak berak adierazten duela Hezkuntza komunitate osoaren aurrean, gaiari garrantzia ematen zaiola, eta hizkuntzaren sustapena ikastetxearen erronken eta helburu nagusien artean dagoela.

Talde edo batzorde hauek, ikastetxeek euskara biziberritzeko aurrera daramaten lanaren sustatzaile eta babesle bilakatzen dira, beren ekarpenak egiteko edo iritziak eta kritikak planteatzeko, ohiko barne-prozedurak erabil ditzaketelarik.

Gurasoen Batzordeen funtziorik nagusienak, beste gurasoak euskararen inguruan egiten ari den lanari buruz informatzea, eskoletako hizkuntza-aniztasunaren inguruko lanketaz kontzientziaztea eta motibatzea, eta prozesu honetan parte aktibo bihurtzea izango lirakeke.

Gurasoei begira, bestalde, komeni da, seme-alaben hizkuntzaren ikasketaren inguruan izan ditzaketen zalantzak argitzea, guraso tipologia bakoitzak izan beharko lukeen jokamoldea iradokitzea edo haurren inguruan euskararen erabilera nola bermatu daitekeen azaltzea (familiatan euskaldunak egon ala ez): etxeko lanetan nola lagundu, familiatan hizkuntzekin nola jokatu, etab.

Horrelako Batzorde bat, irakasleen lanarentzat ere babes eta helduleku garrantzitsua da. Modu horretan, geletako lanak, geletatik kanpo ere jarraipena izango lukeelako, eta ez lirakeelako bakarrik sentituko langintza honetan; ezta sor litezkeen arazoaren edo kontrako jarreraren aurrean ere.

Ezin dugu ahaztu, euskal irakaskuntzan egin den lana erraldoia izan, eta munduan zehar beste hizkuntza gutxituentzat erreferentzia ezinbestekoa izan arren, bultzada indartsua behar dugula, aurrean ditugun erronka berriei modu eraginkorrean erantzuteko: etorri berrien integrazio sozial eta linguistikoa, ikasleen hizkuntza-maila egokia bermatzea, ikasleak euskal hiztun aktibo bilakatzea... Egoera, testuingurua eta ikasleen tipologia soziolinguistikoak aldatu egin zaizkigu eta hezkuntzak ere asmatu behar du egoera berrira egokitzen. Orain arte erabili ditugun metodologiak berrikusi eta egokitzeko premia begi-bistakoa da, behar berriek baliabideen egokitzapena eskatzen dute, eta

baita irakaskuntza bideratzeko baldintza egokiak ere ikasleentzat nahiz irakasleentzat. Testuinguru honetan, gurasoan antolatuta egotea sekulako laguntza gerta liteke.

Azken batean, galdera honi erantzun beharko diogu: nola lortu hizkuntza gutxitu baten normalizazioa, migrazio-mugimenduek, aurrerapen teknologikoen eta pentsaera eta bizimodu-aldaketek geletara eta etxetara ekarri duten errealitate berriaren testuinguruan? Ez daukagu erantzun zehatzik galdera horrentzat. Ez dago ez hagaxka magikorik, ez erreferentzia argirik munduko beste hizkuntza gutxituen artean. Erantzuna eraikitzen joan beharko dugu guztion artean, eta uste dut hori izango dela hurrengo belaunaldiaren erronkarik handienetako bat. Ikasle, irakasle nahiz gurasoen belaunaldi berriarena.

Eta guzti hau, noski, helburu nagusi bati begira, hau da, haurren arteko euskararen aldeko jarrerak eta hizkuntzaren erabilera bultzatzea.

### **Zer egin dezakete gurasoek?**

Antolatutako guraso euskaldunak erreferentzia praktikoa izan daitezke beste gurasoentzat, euskaldunak nahiz erdaldunak izan. Horretarako, garrantzitsua litzateke, haien praktika linguistikoa eredugarria izatea, Euskaraldian zabaldu diren hizkuntza-erabilerarako irizpideak praktikara eramanez:

- Euskaldunekin euskaraz.
- Lehen hitza beti euskaraz.
- Mintzakideak ulertzen duen neurrian euskarari eutsi.
- Euskara ez dakitenekin ere, oinarritzko hitzak euskaraz erabili.

Gunea osatzen duten gurasoek formazioa beharko balute aspektu honetan, komeniko litzateke hitzaldi edo ikastaro labur bat eskaintzea. Oinarri hau ondo finkatzea inbertsio ezin eraginkorragoa izango da ondorengo jardunbiderako.

Guraso talde honen lehen egin beharretako bat, beste guraso euskaldunek, gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egitea litzateke, horretarako egon daitezkeen oztopoak (ohitura-falta, inertziak, lotsak, ezagutza mugatua...) gainditzeko bideak eginez: bilerak, elkarrizketa indibidualak, hitzaldiak...

Guraso Batzordea edo taldea martxan jarritz gero, lehen ekintza publikoa, beronen sorrera hezkuntza-komunitate



osoari jakinaraztea, helburuak ezagutzera ematea, eta dituen asmo eta ekintzen berri ematea litzateke. Ahalik eta jende gehienarengana iristea funtsezkoa da, horretarako erabiliko diren bideak eta bitartekoak ondo planifikatuz. Eta hizkuntzak nola erabiliko diren ere ondo pentsatuz. Euskara izango da ohiko erabilera hizkuntza, baina ezinbestekoa izango da, gaztelania/frantsesa edo beste hizkuntzak ere erabiltzea, beste gurasoengana iristeko. Hasieratik garbi utzi behar da Gurasoen Euskara Taldearen jarduera ez dela mugatuko guraso euskaldunetara, baizik eta hezkuntza-komunitate osoari begirako lana egingo duela, eta bereziki saiaturiko dela, euskararik ez dakiten edo gutxi dakiten gurasoak ere ekimenetan eta euskararen biziberritze prozesuan inplikatzin.

Gurasoen Euskara Taldearen lana hiru esparru nagusitara bideratu daiteke

#### **Ikastetxea bera:**

- Ikastetxearen hizkuntza plangintzaren jarraipena.
- Udalarekiko edo beste erakundeekiko harremanak: elkarlana, baliabideen edo beharren inguruko eskakizunak...
- Aldarrikapen-ekintzak, ikastetxeak edo ikasleek izan ditzaketen beharrak ez badaude behar bezala estalita.

#### **Ikasleak:**

- Ikasleei zuzenduriko ekintzak, eskola orduz kanpo.
- Ikasleei zuzenduriko mezuak eta proposamenak.

#### **Gurasoak:**

- Gurasoei eta familiei begira antolaturiko komunikazio-ekintzak eta era guztietako jarduerak eta ekintzak.

Antolatu daitezkeen jarduera eta ekintzen adibide batzuk eskainiko ditugu ondoren, pista modura, jakinik, ikastetxe, herri eta zonalde bakoitza berezia dela, eta bakoitzak bere egoera eta posibilitateen arabera erabaki beharko duela nondik hasi eta non jarri lehentasunak.

#### **Ikastetxearen funtzionamenduari begira:**

- Ikastetxean gurasoekiko komunikazioan erabili beharreko hizkuntza irizpideak finkatu, horretarako, gurasoen artean, hausnarketa-prozesu bat bultzatuz.
- Guraso-bileretan, batzar orokorretan, komunikazio idatzietan euskararen erabilera bermatzeko neurriak hartu.

#### **Udalari begira:**

- Herriko eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera bermatzeko eskakizuna luzatu udalari. Aurretik, egoeraren inguruko oinarrizko azterketa egitea lagungarri gerta daiteke.
- Euskalduntze-prozesua sustatzeko dauden beharrei erantzuteko eskaerak zuzendu.

#### **Gurasoei begira:**

- Euskararen erabilera sustatzeko formazioa guraso euskaldunentzat.
- Seme-alaben euskalduntze-prozesuan zertan eta nola lagundu dezaketen azaltzeko formazioa guraso erdaldunentzat.
- Gurasoen arteko euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, ikastetxe mailako era honetako ekinbideak gauza daitezke:
  - Mintzapraktika taldeak edo bikoteak.
  - Familia erdaldunetako haurren egonaldiak familia euskaldunetan (egun edo asteburu pasak).
  - Oinarrizko hiztegiaren erabilera. Astero/hamabostero oinarrizko hitz edo esaldi batzuk aukeratu eta prest dauden guraso erdaldunek ere horiek erabiltzeko konpromisoa hartu: agurrak eta diosalak, oinarrizko aginduak (etorri, hartu...), edo oinarrizko esaldiak (Zer moduz? / ondo, Eskerrik asko / Zuri...).

#### **Gurasoei eta haurrei begira:**

- Haurrentzako euskarazko kultur eskaintza sustatu eskola orduetan eta eskola orduetatik kanpo: jolasak, ipuin-kontalariak, ikuskizunak, ikastaroak, irakurketa-tailerrak, era guztietako jarduera ludikoak, aisialdi-taldeak, egonaldiak, udalekuak, sorkuntza-tailerrak, bertso edo kantu saioak...
- Zer, nola, non eta norentzat antolatu, baldintza askoren baitan erabaki beharko da, baina, euskarazko eskaintza indartze aldera egiten diren ahalegin guztiak onuragarriak izango dira.

- Eskola orduz kanpo haurrak elkartzen diren lekuetan (patioak, parkeak, jolastokiak...), guraso euskaldunek antolatuta eta bideratuta, guraso guztien partaidetza sustatuko duten haurrei zuzenduriko ekintza ludiko sinpleak antolatu.
  - Haur txikiak izango dira gehienetan hartzaileak. Komeni da sistematikoki antolatzea

berauek, hilero edo hamabostero, astegun, ordu eta leku jakinetan.

- Ekintzak euskaraz bideratzea haurrekin, baina guraso erdaldunek ere jarrai ditzaten bideak eta formulak aurkituz.

- Oinarrizko hizkuntza-irizpide hauek planteia daitezke:

- Ekintzak edo jarduerak irauten duen bitartean guraso euskaldunek euskaraz egingo dute.

- Euskaraz egiteko ohiturarik ez duten edo zailtasunak dituzten, baina egin dezaketen gurasoek, denbora horretan euskaraz egitera konprometituko dira.

- Ez dakitenak saiatuko dira hitz batzuk euskaraz esaten, haurrek ikus dezaten guraso guztiak inplikaturik daudela haien euskalduntze prozesuan.

- Ekintzen inguruko informazioa, erabiliko diren hitzak edo abestiak aurretik itzulita emango zaizkie guraso erdaldunei ekintzak jarraitu ahal izan ditzaten.

- Gurasoek era honetako ekintzak antolatu ditzakete:

- Haurrentzako kantuak abestu edo karaoke bat prestatu (beti egongo dira musika-tresnak jotzen dakiten eta ondo kantatzen duten gurasoak). Aurretik abestiak, letrak eta itzulpenak gurasoei banatu.

- Euskarazko mahai-jolasak eta material ludikoa erabiliz mahai-jolasen arratsaldea antolatu

- Altxorraren bila jolasa.

- Guraso euskaldunek ipuinen irakurketa egin haurrei.

- Taldean, haurrei zuzenduriko euskarazko film, pailazo edo antzerkietara joan.

Kulturartekotasuna sustatzeko, hainbatetan, euskarazko abesti edo ipuinez gain, beste hizkuntzetakoak era erabil daitezke euskarara itzulita.

## Ondorio gisa

Egin kontu, oso bestelako egoera batean egongo ginatekeela lortuko bagenu urte gutxi barru, familia gehienak inplikaturik egotea haurren euskalduntze-

prozesuan, ikastetxeetan gaiak zentralitatea hartzea, eskola orduz kanpoko jarduera gehienak euskaraz garatu ahal izatea eta herrietan euskarazko dinamika sozial indartsua izatea. Egoera horretan, haurrek eta gazteek euskararen aldeko motibazioa hobetuko lukete eta gehiago eta hobeto erabiliko lukete. Eta hau ez da utopia bat; ilusioa, konbentzimendua, plangintza eta baliabideak behar dira. Baina, egin, egin daiteke.

Izan ere, zer izan da, bada, euskal irakaskuntzaren historia azken bospasei hamarkadetan? Gurasoen, irakasleen eta herritarren ilusio, konbentzimendu eta bultzadarik gabe ez ginen gaur egun gauden egoeran izango; ezta, administrazioetatik eta hezkuntza-eragileen aldetik metodologiak eta planifikazioak landu eta baliabideak jarri ez balira.

Askotan aipatu dugun bezala, irakaskuntzan ere euskara bidegurutze batean dago. Irtenbide egokia har dezagun, neurri handi batean, gure esku dago. Eta horretarako guraso euskaltzale antolatuek palanka-lan indartsua egin dezakete. Antola gaitzen!

# Norena da gure seme-alaben heziketaren ardura?

*Idoia Larranaga*

Hasteko, eta hezkuntzako profesionala naizen heinean, argi utzi nahi dut idatzi hau ez dela ikastola, eskola edota ikastetxeetan egiten dena zurrizko edota gutxiezko saiakera bat. Argi daukat hezkuntzan (eta bizitzan orokorrean) beti dagoela zer hobetu eta hausnarketa, saiakera-aldaketa eta berriz hausnarketako zikloa lan egin behar dela, etengabeko ikaskuntzan. Izan ere, gizartea aldatzen doan heinean, ikasleriaren eta hezkuntzaren beharrak ere aldatzen dira eta hortaz, “hau beti egin da horrela” bezalakoek ez daukate kabidarik. Ziur naiz ikastetxe eta hezkuntzako profesional bakoitza bere praktika hobetzeko saiakeran dabilela.

Guzti hau argi utzita, berriz noa izenburutzat erabili dudan galderara: norena da gure seme-alaben heziketaren ardura?

Eta zergatik galdera hau? Azkenaldian familiok gure seme-alaben hezkuntza delegatzeko joera daukagula sumatu dudalako eta horrek benetan arduratzen naudelako. Zuzenean entzun ditudan hainbat esaldi zerrendatuko ditut (eta hau ez da esan edota pentsatu duenak bere burua zigortzeko, hausnarketarako aukera da): “Hemen (ikastetxean) hasiko dira jertsea autonomoki jartzen ikasten”, “Lanetik nekatuta iristen naiz eta ez daukat semearekin etxeko lanengatik liskarrean ibiltzeko indarrik”, ikastetxera etxeko jostailuekin iritsi eta “esan diot ezin direla ekarri baina ez dit kasurik egin”, hotza egin arren “ez zuen jertsea jantzi nahi”...

Eta zerrenda nahibeste luza dezakegu... eta bai, egia da gaur egungo gizartean zaila dela egun osoko lanaldiaren ostean etxera energiarekin eta indarrarekin iristea, delegatzen zama kentzen dugula... baina mezu guzti hauen atzean, gure seme-alabei zein mezu helarazten diegun hausnartu beharko genuke:

- “Hemen (ikastetxean) hasiko dira jertsea autonomoki jartzen ikasten”: Nik ez daukat lanketa hori egiteko indarrik eta hortaz, irakasleek egiteko. Haurren au-



tonomiak autoestimuan eta beraren izaera garatzean duen garrantzia alde batera uzten dugu horrelakotan, autonomiaren lanketa beste batzuen esku uztean.

- “Lanetik nekatuta iristen naiz eta ez daukat semearekin etxeko lanengatik liskarrean ibiltzeko indarrik”: Lana lehenesten dut eta ez daukat zurekin denbora, energia eskaintzeko indarrik. Hori haur/gazte edota edozein heldurentzat zein gogorra den badakigun arren, abandonatuta sentiarazten ditugun arren, momentu horietan ez gara mezu gogor hortaz jabetzen.

- Ikastetxera etxeko jostailuekin iritsi eta “esan diot ezin direla ekarri baina ez dit kasurik egin”: Nik ezin dizut araua betearazi, ezin dizut muga jarri ez baitaukat gatazkarako indarrik, hortaz, irakasleari delagatzen diot limitea jartzearen lana.

- Hotza egin arren “ez zuen jertsea jantzi nahi”: Haurren ongizatea helduon ardura dela garbi daukagun arren, batzuetan beraien esku uzten ditugu hainbat aukera eta beraien ongizatea kolokan jartzera iristen gara, gure ardura betegabe utziz. Kasu honetan adibidez, zein jertse nahi duen aukeratzen utz diezaiokegu haurrari baina ez jartzea ezin da aukera bat izan.

Etapeta eta adin bakoitzak, baita haur/gazte bakoitzak ere, bere ezaugarri eta beharrak ditu, baina garbi daukat behar handiena heldu erreferenteen presentzia aktibo eta emozionala dela. Eta askotan, nekea dela, lana eta estresa direla... gure gizarteak baldintza zailak jarri arren, guk ere guretik gutxi jartzen dugula iruditzen zait. Saia gaitzean bakoitza bere etxetik hasita, haur eta gazte osasuntsuak hezten.

Eta hasieran aipatu dudan bezala, hezkuntzako profesionala naizen heinean, famili eta ikastetxeen elkarlanaren beharra azpimarratu nahiko nuke amaitzeko. Familiok badaukagu zer egina eta zer hobetua, baita ikastetxeek ere. Hortaz, zergatik ez, elkarri mokoka aritu beharrean, elkarrekin aliatu eta gizarteak merezi duen hezkuntza horretarantz gerturatzeko elkarrekin lan egin?



# Childwashing-a

*Nora Sabote*

Aspaldi nabil erraten erdiguneak gainezka egin digula gaurgero. Dena erdigunera eraman nahi horretan dagoeneko erdigune hitza beraren ideia kolokan jartzeraino diot. Guri dagokigunean (probokatzailer nator gaur), haurra erdigunean paratzearen ideia politikoki zuzenari helduko diot oraingoan, haren inguruan gertatzen ari den merkantilizazio eta despolitizazio prozesua salatzen. Utzi iezadazue, beraz, haurzuriketa, kidwashing, childwashing edo antzeko nolabait deitu genezakeen kontu honi buruz lehen burutazio zenbait zuekin partekatzen.

Izan ere, ibilian-ibilian, patriarkatu kapitalistak, zeinari egiazki bortz axola zaizkion haurren gaitasun, behar, eskubide, ongizate eta iritziak, ikasi du haurra erdigunean ideia -gogoratu dezagun ideiaz gain aldarri bat ere badela, borrokarako eremu bat-indartsua dela eta baita onartu xamarra ere. Bertze kontu bat da eguneroko praktika sozial, politiko eta kulturalean ez sobera nabaritzea, baina hori, bistan denez, negozio-jende horri igual zaio. Ondorioa da, honezkerok, haurra erdigunean ideia, berez haurraren metafora politiko kritiko baten gisara ulertu beharko genukeena, non bizitza bizigarri, anitz, inklusibo, justu eta duinen multzoari erreferentzia egiten baikeniokeen eta materialtasun bati lotutakoa dela ulertuko, lelo huts bilakatzeko bidean dela.

Hortaz, gaur zertarako arraio balio dit niri mezuak dena delako kolegio distiranta baten matrikulazio kanpainako iragarkian erabiltzen ari bada? Ze gauza bat argi badut, hori da haurra erdigunean kokatzearen ideari buruz kolegio horren patronalaren eta nire ulerkerak desberdinak direla, arruntean antagoniko, litekeenez. Baina badakit, aldi berean, ideia indartsu bat denak, merkantilizazioaren amarruz, eskuetatik ihes egiten ahal digula fite, baldin eta ez badugu lehen baino lehen adieraberritzen.

Unicef Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak dio helduzentrismoa gizarte desberdinkeria bat dela; adin handiagoa izatea, gure jendartean, hierarkian gorago egotearekin parekatzen dela. Ondorio



nabarmenen artean leudeke neska-mutikoen eta nerabeen botere eta aukerak gutxiagotzea eta minimizazioa, haurtzaroa eta nerabezaroa krisi eta aldaketa garai huts gisara ikusiak liratekeelarik. Heldua da norma eta eredu, ideal gorenak.

Erakunde beraren arabera, heldukeria, jarrerez, ekintzez ala hitzez haur eta nerabeen gaitasunak ezbaian paratzea litzateke, hain zuzen ere adinez gazteago izate hutsagatik.

Gauzak horrela, helduzentrismo eta heldukeriarik esku-hartze merkantilista eta marketinzalearen mehatxuak gehitu ezgeroztik, inoiz baino irmoago aldarrikatu beharko genuke haurreria nolabaiteko magnitude politiko bat ere badela, espazio-denboretan, harremanetan eta komunikazio moldeetan eraikitzen eta materializatzen dena, eta ez orotariko negozioak egiteko hutsik dagoen totem gisako bat.

Haurra erdigunean ideia slogan komertzial baten gisara erabiltzen ari direnei erantzun beharko genieke, hain justu ere, haien asmo merkantilistek gorpuzten

dutela erdigunea okupatu, bereganatu eta metatu duen “gorputz normal unibertsal” baztertzaile hura. Norma bat zuria, zis-heteroa, burgesa, hiritarra, koloniala eta euskarafobia izateaz gain, helduzentrikoa ere badena, alegia, hurrak aditu, hezi, zaindu, goxatu, elikatu eta garbitu ez, baina grazioso eta erabilgarri zaizkionez, begirada paternalistaz, goititik beheiti eta heldukeriaz tratatzen dituen erdigune eroso horretako pertsona klase “normal” hori direla, eta ez bertzerik.

Hurbilera jautsiz, oraina eta hemen-a ukituz, haurren kulturaren eta haurra erdigunean jarriko dituen herri hezitzaile baten defentsa egitea dagokigu, nazioarteko lotuneak badituena, baina, oinarri-oinarrian, nazio mailako proiektu eder bat dena; euskaraduna, feminista, horizontala, parte hartzailea eta adinkeriaz gaindikoa. Hurrei hitza emateko nahia duen egitasmoa delakoz, eta, finean, aditzeko nahi eta molde politiko zehatz batzuk dituelakoz: demokrazia parte-hartzailearenak eta hezikomunikazioarenak. Gure herri, auzo, hirietako dinamikak, espazioak, kirola, aisialdia, hizkuntza praktikak, hirigintza, hezkuntza formala eta informala begirada kritikoz galdekatzea eskatzen duen jarrera bat da haurra erdigunean paratu nahi izate hori, apelazio erradikal bat. Haurra subjektu politikotzat joko duen posizio bat, elkarri laguntzeko eta elkarrengandik ikasteko prest legokeena eta abiapuntuan lukeena, beti ere, ikuspegi politiko-pedagogiko komunitario bat haurtzaroarena eta hezkuntzarena.

\*Oharra: bai, bizpahiru hitz asmatu eta bertze zenbait hala moduz itzuli behar izan ditut testu hau idazteko tenorean. Zerbaiten seinale akaso?

# Euskara eta «zirkulazio librea» Haur Hezkuntzan. Nora goaz?

Amelia Barquin

## Zer da?

“Zirkulazio librea”, “mugimendu askea”, “mugimendu autonomoa”... entzuten ari gara maiz azken urteotan, Haur Hezkuntzarekin lotuta, paradigma desiragarri moduan. “Ez direktibismoa”ren printzipioan oinarritzen da pedagogia hori, eta eskola “alternatibo”etan arrakasta handia izan du. Eskola “alternatibo”etatik harago, euskal gizartean beste hainbat ikastetxetara heldu da azken hamarkadetan, sistema publikoan zein kontzertatuan, eta zabaltzen jarraitzen ari da. Haur hezkuntzako espazioen birmoldaketekin lotzen ari da hein handi batean: aterik edota paretarik gabeko espazio zabalak, non umeak aske ibili daitezkeen. Izan ere, askatasuna da pedagogia horren muina, oso labur esanda: eskolan dauden bitartean umeak libreki zirkulatzea, irakasleen agindurik gabe; alegia, umeek askatasuna izatea espazioa, denbora, jarduerak, materialak eta kideak aukeratzeko. Ume bakoitzaren interesak, gustuak, premiak, erritmoak errespetatzea da helburua.

Ereduaren arrakasta ulergarria da. Ez soilik adostasun zabala dagoelako ikaslearen garapen pertsonalak merezi duen adeitasunarekin. Eredu horren oinarriak, aldi berean, ondo lerrokatzen dira Zeitgeist-arekin, gaurko gure sistema ultraliberalean asko estimatzen diren balio batzuekin: norberaren askatasuna, indibiduoaren lehentasuna talde jokaeren eta balioen gainetik, pertsonaren interesak eta preferentziak lehenengo lerroan jartzea, autoritarismoaren arbuioa...

Nola kudeatzen ari da aipatutako pedagogia eskola bakoitzean? Ez da guztietan modu berean ulertzen eta aurrera eramaten: ikastetxe batzuetan irakaslearen “desagerpena” garatuago dago beste batzuetan baino. Gela batzuetan irakasleak gidatutako jarduerak presentzia daukaten bitartean handiagoa ala txikiagoa, beste batzuetan ia denbora osoa geratzen da ikaslearen esku. Edonola ere, esango nuke euskal gizartean ikerketa sendo bat



beharko genukeela, ezagutzeko hemen zein diren metodologia hori kudeatzeko moduak, zein diren ondorioak abantailak zein albo kalteak, eta zer den profesionalak ikusten ari direna.

## Gogoeta kritikoa

Ahots kritikoa ere altxatzen ari dira. Azken urteotan potenteena da agian Ani Pérez Rueda pedagogo madrildarrarena. Bere liburuaren izenburua esanguratsua da: *Las falsas alternativas. Pedagogía libertaria y nueva educación* (2022, Virus). Biziki gomendatzen dut liburua irakasle on artean gogoeta sustatzeko, egileraren lerro ideologikoa partekatu ala ez (oinarri marxistetatik abiatzen da). Argitalpenaren atal bat “Los peligros de la no directividad” da (197-223 orr.) eta hortik lerro batzuk ekarriko ditut hona, non autoreak azaltzen duen pedagogia horrek klase-desabantaila naturalizatzen eta erreproduzitzen duela.

*La no directividad se apoya en la idea de que la labor docente consiste en seguir los deseos e intereses de los niños y niñas, como si estos fueran naturales o espontáneos, como si las aspiraciones no estuvieran determinadas por la clase social y el género, o como si las elecciones fueran libres solo por el hecho de ser elecciones (214 orr.) [...] Lo que no abordan los no directivistas es el hecho de que la mayoría de niños y niñas de clase obrera no tienen acceso a estos recursos, por lo que defender la retirada de la [persona] adulta acaba suponiendo promover el abandono precisamente de la infancia más necesitada de cuidados, que es la que menos provecho o más daño puede obtener de un enfoque no directivo (216 orr.).*



Oraindik pasarte bat, El Salto aldizkarian egin zioten elkarrizketa batetik (2021-9-26):

*[...] la lectura que busco es que una [niña o niño] no puede interesarse por algo que no conoce. Hay que ser críticas con las visiones esencialistas que consideran que esos intereses no tienen que ver con el contexto del niño o niña, porque claro que lo tienen. Y por supuesto, no defiendo una escuela que no tenga en cuenta los intereses previos. Al contrario. Es importante que haya espacio para ponerlos en común, la escuela tiene que estar en relación con lo que surge fuera de ella. El problema es que las pedagogías alternativas no favorecen la construcción colectiva. Hay una frase de Georges Snyders sobre la función de la escuela que me gusta mucho: dice que la escuela debería servir para ampliar los límites de nuestro deseo. Lo bonito es que cada una trae a la escuela, o a cualquier espacio social, tus propios intereses y estos se comparten. Otra cosa importante de los intereses es que, si no pongo en cuestión que tienen que ver con el contexto de cada niño y niña, ¿qué puede ocurrir? Que esté legitimando o naturalizando desigualdades sociales. Por ejemplo, es mucho más probable que alguien se interese por la lectura si sus familiares tienen libros en casa y leen que otra persona que no tiene experiencias placenteras relacionadas con la lectura. A la escuela se le exige compensar desigualdades, y en eso fracasa, pero sí tiene un papel que cumplir: por lo menos, que no se agraven, y las pedagogías alternativas lo que hacen es agravarlas.*

Interneten, bestalde, Ani Perez Ruedaren hainbat hitzaldi aurkituko duzu. Honakoa izan daiteke adibide ona (2021). Darabilgun gaiarekin lotuta, ikus daitezke, bereziki, 26:00-35:55 eta 43:50-50:00 minutuak. Bertan pedagogoak irakaslearen “desagerpena”ren kontra agertzen da. Hona hemen esaldi batzuk:

*[La no directividad parte de la idea de que] educar es extraer, [...] de que educar es sacar las potencialidades que ya están presente en los niños y niñas, y esto es tremendamente determinista; es una forma de naturalizar desigualdades y de perpetuar el orden establecido. Voy a poner un ejemplo. Cuando en un espacio no directivo, tenemos una niña que se interesa mucho por la lectura, que quiere leer, que le lean, aprender a escribir, y tenemos otra que no, desde el discurso de la no directividad podemos decir es que esta que quiere leer tiene un interés natural, espontáneo en la lectura y esta no, vamos a dejar que*

*siga el curso de los acontecimientos [...] A lo mejor no nos estamos cuestionando en su familia qué estímulos tiene la que lee, qué estímulos tiene la que no lee, y estamos obviando que hay multitud de condicionantes sociales que influyen en cuáles son nuestros intereses y deseos, que están socialmente contruidos. No solo no estamos combatiendo las desigualdades, sino que las estamos naturalizando. Si consideramos que leer es una herramienta que nos permite conquistar nuestra libertad, que es emancipadora, naturalizar que una niña no tiene interés en eso, tiene como mínimo peligros importantes para su libertad. [...]*

*En un entorno no directivo, ¿qué elecciones libres hacen los niños y niñas de una clase social y de otra? [...] Desde una perspectiva marxista, que me parece muy necesaria, [...] se ha señalado que niños y niñas de clases populares están en desventaja a la hora de aprovechar la no directividad; van a elegir aquellas opciones que los mantienen en la posición social que ocupan [...].*

*La no directividad se apoya en un optimismo idealista, no tiene en cuenta la importancia de las condiciones materiales de vida [... Para diversos autores] la no directividad era una pedagogía a la medida de las clases privilegiadas.*

Gakoak dira, beraz, ikasle bakoitzaren bizitza baldintza materialak, ikasle bakoitzari bere etxean eskaini ahal zaizkion kultura baliabideak eta eskolak egin dezakeen konpentzasio lana desabantaila sozio-kulturalean dauden umeekin, ume horiek emanzipazioa eskuratu ahal izateko. Pedagogia ez direktibistak ez du lan hori egiten. Argituko dut, badaezpada, egileak ez duela defendatzen pedagogia tradizional bat. Aipatutako gaiez gain, beste batzuk jorratzen ditu, hona ekarriko ez ditudanak orain gehiegi ez luzatzeko. Baina goazen orain apur bat harago gaiarekin, euskal gizartean faktore propio bat dagoelako: hizkuntza minorizatuaren presentzia eta ikas/irakaskuntza. Ani Pérez Ruedaren hausnarketetan ez da hizkuntzaren gaia agertzen, baina bere analisisa euskal eskolako alderdi horretara ere ekar dezakegu guk.

### **Eta klase soziala/jatorria eta euskara gurutzatzen direnean esparru ez direktibistetan?**

Pedagogia ez direktibista zabaltzen ari da sozialki gero eta heterogeneoagoak diren hezkuntza testuinguru batzuetan. Pasatzen ari da klase ertaineko eta klase



altuko ikastetxeetatik, eta familia euskaldun ugari zeuden ikastetxeetatik, beste ikastetxe batzuetara non langile klaseko ikasle ugari dauden, haien artean atzerritar jatorrikoak. Esan gabe doa: ikasle horiek kapital kultural murriztagoa daukate maiz klase ertainekoek baino eta, gainera, euskara eskolako hizkuntza ez da etxeko hizkuntza ia inoiz. Ume horiek desabantailan daude, berez, eskolan: jakin badakigu eskola errendimendua erlazionatuta dagoela familiaren egoera sozioekonomiko eta kulturalarekin, eta ebaluazio diagnostikoez hori konfirmatzen digute desabantaila sozialean dauden umeen emaitzak aztertzean (beti ere ahaztu gabe ez dagoela determinismo itsurik eta eskolaren eta familien esku-hartzeak eragin handia daukala ikasleen emaitzetan). Galdera bat etortzen zait burura Ani Pérez Ruedaren gogoeta kontuan hartuta: Haur Hezkuntzako pedagogia ez direktibista, gure artean, zein eragin izaten ari da desabantailan dauden gure ikasleengan?

Eta, azkenik, galdera zehatza hizkuntzarekin lotuta: zein leku dauka euskararen ikas/irakaskuntzak haur hezkuntzako espazio ez direktibistetan? Noiz eta nola ikasten ari dira euskara ikasleak? Hori ere albo batera utzi da, umeen askatasunarekiko eta preferentziekiko errespetuaren izenean? Aztertu dezagun gaia ganoraz gure ikastetxeetan. Euskararen irakaskuntza ez bada intentzionala, haur hezkuntzako irakasleek ez badute jokatzeko hizkuntza irakasle moduan (horretarako denborak, guneak eta estrategiak propio erabilia), ume batzuen desabantaila areagotuko da. Areagotzen ari da, izan ere: termino funtzionaletan, eskolan ikasteko tresna ez bazaie ahal bezain ondo eskura jartzen, atzean gelditzen ari dira hasieratik bertatik. Kasu horretan eskola ez da laguntzen ari abiapuntuko desberdinkeria etxeko euskaldunen eta ez euskaldunen artean konpentsatzen. Eta hein batean iruzurra ere izango litzateke: erdal familiei esan zaie D ereduko eskola dela haientzat ere egokiena, eta etorkizunari begira haien seme-alabei aukera berdintasuna ekarriko diela, baina errealitatean ume horiei D ereduko eskolan aurrera ondo jarraitzeko behar dituzten erremintak ez zaizkie hasieratik errazten. Euskara biziberritzeko prozesuaren terminoetan, bestalde, desastrea da.

Espazio horietan euskaraz hitz egiten zaie umei, abestiak eta ipuinak ere euskaraz heltzen zaizkie, hori guztia badakigu, baina non gelditu da euskararen irakaskuntza intentzionala?

## Hiru esaldi eta bukaera

Pasa den ikasturtearen bukaeran hainbat esaldi kezkarri entzun nituen haur hezkuntzako irakasleen ahotik (testuinguru soziolinguistiko desberdinetakoak, ikastetxe publiko zein kontzertatuetoakoak, denak pedagogia ez direktibistako geletakoak). Honakoak, besteak beste:

-“Datorren ikasturtean lehen hezkuntzara bidaliko ditugun ume batzuek oso euskara gutxi dakite. Kezkatuta gaude. Gurekin egon ondoren, ikusten dugu oso maila baxua daukatela”.

-“Nik jarraitzen dut nire ikasleei euskara irakasten, baina egiten dut beste irakasleak aurrean ez daudenean eta ikusten ez nautenean. Hori hemen gaizki ikusita dago eta ez dut arazorik izan nahi”.

-“Galdetzen didazu ea nire burua euskara irakasletzat jotzen dudana. Bada, orain arte ez dut gai horretan inoiz pentsatu”.

Eremu arantzatsu batean sartzen ari naiz. Ikastetxe guztiek eta irakasle guztiek ez dute modu berean jokatzeko, baina niri eta ez naiz bakarria argi gorriak pizten ari zaizkit.

Une honetan eskola bat mugimendu librearen sistemara pasatu aurretik, erabaki hori hartu baino lehen, Ani Pérez Ruedak garatutako argudioak kontuan hartzeko gomendatuko nieke zuzendaritzari eta irakasle taldeari; ezinbestekoa dela iruditzen zait, egilearen baieztapen guztiekin agian ados sentitu ez arren. Eta euskararen ikas/irakaskuntzaren inguruan gogoeta egiteko eta ganoraz formatzeko ere proposatuko nieke. Baita pedagogia ez direktibistan jada murgilduta daudenei ere. Asko dago jokoan.

Berritortu diot: agian pedagogia horren ebaluazio sendoa egin behar da aurrera eramaten duten ikastetxeetan, bere argiak eta itzalak analizatu ahal izateko eta denok ikasten jarraitu ahal izateko.

Irakasle, hezitzaile, guraso, zein da zure esperientzia, zein da zure iritzia? Esajeratzen ari naiz?

# Beldurra, errua eta lotsa espazio digitaletan

*Jone Ialduegi*

*Alaba-semeak hezterako orduan gu geuk sentitzen dugunari arreta gehiago jarri beharko genioke.*

Haurrak eta nerabeak hezten ditugunean, askotan egin beharreko lehenengo pausua emozio propioak kudeatzea da. Hala ere, hau onartzea eta lantzea kostatu egiten zaigu guraso eta hezitzaileoi.

Familiekin lanketak egiten ditudanean, beldurra, errua eta lotsa izaten dira gehien sentitzen dituzten emozioak. Ohikoa da fokua haur eta nerabeengan jartzea eta askotan (gehiegitan) gure barne lanketak albo batera uzten ditugu.

Nerabeak espazio digitaletan harremanatzen direnean beldurtzen gara eta honen aurrean begirada zabala edukitzea ezinbestekoa dela deritzot. Printzipioz, gure buruari galdetu diezaiokeguna da; zertarako (ez zergatik) erabiltzen dituzten bide hauek harremanak izateko? Hau inportantea da, gehienetan, beldurrak ezezagutzagatik eta gure haurtzaroa eta gaurko errealitatea alderatzen ditugulako agertzen baitira.

Seme alabak espazio digitalak erabili eta erabiltzen jarraituko dutela onartu behar dugu. Baina faktore emozionalak, igarotzen duten denbora, guraso moduan ematen ari garen eredia eta ikastetxeetan nola eta zertarako erabiltzen dituztenak aztertu beharko dugu. Gainera, erabiltzeko modu ugari daude eta lanketa bat egin ezker, beste "adikzio" posible batzuekin bezala, erabaki argiagoak hartzeko pertsonak heziko ditugu.

Bestalde, esan bezala, haien aisialdiren parte bat eta harreman mantentzeko modu bat espazio digitalen bitartez da. Hobeto esanda, online eta offline era berean ematen dira. Eta errepikatzen dut, hau berez ez da zertan negatiboa izan behar.

Baina harremantzeko modu digitalak denok erabiltzen ditugu, beraz, nola nahi ditugu seme alabak hortik atera, babestu edo berauek debekatu?

Orduan, zer egin behar dugu?



Galdera hau egiten didatenean eta manualak ez ditudanean proposatzen, helduon psiquea kezdu ulertzen eta behar horretara gogor heltzen da. Erresistentziak ditugu heziketari, heziketak jasankortasuna behar du. Heziketa prozesuaren emaitzak, gehienetan, epe luzera ikusiko ditugu.

Baina tira, bidea egiten ari gara. Informazioa eskaintzen eta bilatzen, hezten, sentsibilizazio lana burutzen, etab. Eta hemen jarriko dugu fokua. Ondoren, seme alabek beraien bide propioa egiteko, haien aukerak ahalik eta modu kontzienteenean hartzeko, pentsamendu propioa eta kritikoa garatzeko, etab.

Haien erabaki propioak agian ez dira guk espero genituenak edo gure nahiak asetzen dituztenak izango. Hala ere, alaba-semeak aske bizitzeko eta haiek izateko beharra dutela onartu beharko dugu, Alaba-semeak gureak ez direla onartzea ez da ariketa makala.

Horregatik, hezitzaile garen helduok jarrera propioak behin eta berriro, orekatu, begiratu eta moldatu beharko ditugu. Horrela, gure beldur, errua eta lotsa propioak ulertu eta haur eta nerabeek beraien nortasun propioa garatzeko lekua eskainiz.

# Emozioak desestereotipatu

*Maidier Garcia de Vicuna*


Emozioen kudeaketa, asertibitatea eta komunikazio ez bortitza harreman pertsonaletarako ezinbesteko elementu positiboak dira eta ziur naiz hau irakurriko duzuen gehienek ez diozuela honi kontrari egingo. Horrek ordea, ez du ziurtatzen heldu bezala trebetasun hauek garatuak ditugunik eta ondorioz, hezitzaile garen heinean, hankamotz aritu gaitezke honen lanketan umeekin.

Emozioetatik aritu egiten gara, asko dira azken urtetan sortutako materialak eta ekintzak eta emozioei lekua eman diegu heziketan. Aurreko belaunaldiarekin alboratuz aurrerapausu garrantzitsua da. Jakin badakigu emozioak ez direla gutasoa askoren bizitzetan aintzat hartuak izan eta emakume-gizon izateagatik modu oso ezberdinean ikasi dugu sentitzen duguna adierazten. Jakin badakigu emozioak berezkoak direla izakiongan, baina hauen adierazpena guztiz baldintzatuta egongo da jendarte arauengatik eta jendartearen genero-estereotipoen blaitua badago, hala izango da gure emozioen heziketa.

Guraso bezala sentitzen dudana adierazten dut ala nire umeen aurrean disimulatu egiten dut? Emozioen adierazpen zintzorik ez bada, emozioen isilaraztea ematen da eta horrekin umeei emozioak ez direla adierazi behar ikasiko dute imitazioz.

Inguruan gizonen amorrua zein haserrea bortizki eta emakumeen kasuan isiltasunaren bitartez bideratzen dela ikusiz gero, tristura serioitasunez ala agresibitatez adierazten dutenean gizonak eta negarrez emakumezkoak, adibidez... beraien identitatearen arabera hurbilen sentitzen duten horren modua hartuko dute aintzat, identifikazioz ikasiz.

Umeei behaketaz, imitazioz eta identifikazioz ikasiko dituzte gauza gehienak lehen urtetan, beraz eskeintzen diegunak markatuko du hein handian beraien geroko garapena, baita emozioei dagokionez ere. Jarritako oinarria zein den arabera, gerora bestelako espazioetatik, sare-sozialetatik adibidez, jasoko dutena modu ezberdinean filtratuko dute. Gaur egun egiten duguna oraina hobetzeaz gain, etorkizuna baldintzatuko du, beraz ahalik eta hobekien egitea merezi du.



Ziur naiz asko zaretela zuen bizitzan zehar ikasitakotik garapen positiboa izan duzuela, ikasitakoa deseraikiz eta modu berrian eraikiz zuen emozioen kudeaketa hori. Askotan, ordea, lan hau modu teorikoan egiten da. Askok irakurri, hitzaldietara joan...eta horrekin emozioetan, hauen bizipen eta kudeaketan arreta jarri, ulertzen saiatu eta aldaketak egiten joan zarete, ezta? Aupa zuek!!! Ez da lan makala pausu hau ematea.

Baina lanketa hau teoriatik gorputzera eramatea ezinbestekoa da. Emozioek adierazpen fisikoa dute, aldaketa nabariak ematen dira eta zerikusi gutxi du beldurra ala tristura sentitzeak, adibidez. Gorputzak hitz egiten digu eta hori sentitu beharra dugu emozioak ulertzeko.

Umeei txikitandik emozioetatik aritzean lagundu behar diegu. Koloretako munstroa bezalako liburuek emozioen ezagutzan lagungarriak izan daitezke, baina hortaz haratago, emozioak sentitu behar dira. Ez da arnasa berdina hartzen triste ala urduri egonda. Giharrek ez dute tonu berdina haserre ala pozik egotean, gorputzean odola ez da berdina mugitzen beldurrez ala harriduraz egotean....

Ipuin eta joku askoren bitartez teoriaren aldea jorratu daiteke, alde arrazionala, baina emozioak gorputza dira.

Nire haurraren aurrean pozik nagoela esan dezaket, emozioa aipatuz, baina nire gorputzak kezka adierazi dezake. Hitzek gezurra esan dezakete, baina gorputzak ez. Zenbait emozio disimulatu nahian ibiltzean, umeei gezurra esaten diegu, kontrajarriak diren mezuak ematen dizkiegu. Berauek ahozkoa ez den komunikazioa, gorputzaren bitartez ematen den hori, jasotzen dute, maiz hitzez esandakoa baino askoz errazago.

Gezurak esatea (ahoz zein gorputzaz) ondo dagoen eztabaidagarria izateaz gain, egiten ari garen heziketa jokoan jartzen du.

Emozioak sentitu behar dira eta modu egokienean adierazi behar dira, modu asertiboan, gure burua zaintzeko baliabidea direlako, babestu eta lagundu egiten gaituztelako. Hitzetatik sentazio fisikoetara pasa beharko ginatekeela uste dut, zintzotasunez eta genero-errolekin behingoz hautsi.

Oinarrizko emozioak gizaki guztiok ditugu, Euskal Herrian zein Mongolian. Gizaki guztiok ditugu, emakume, gizon zein ez-bitarra izan, sinesmen erlijiosoak izanda ala ez, azalaren kolorea edozein izanda ere...Gizakion berezko ezaugarria da emozionalak izatea eta honetan ere, aurreritzi eta estereotipoak apurtu behar ditugu benetako emozioen heziketa aberasgarria egin ahal izateko.

Zure emozioen Heziketa eta kudeaketa desikasi eta berreraikitze prest? Hori izango da hezteko eredurik hoberena.



# Kontziliazio eskubideak: Zer dira, non daude eta nola eskatu

*Trati Aizpurua Alquezar*

Batzuetan kontsultara etortzen diren pertsonak galdetzen didate ea non aurki dezaketen kontziliazio eskubideen zerrenda eta nola jakin dezaketen argi eta garbi zertarako eskubidea duten. Erantzuna ez da hain erraza, zoritxarrez. Hala ere, jarraian, zertzelada batzuk emango ditut kontziliazio eskubideak zer diren, non jasota dauden eta nola eskatu behar diren argitzeko.

## Zer dira kontziliazio eskubideak?

Oro har, kontziliazio eskubideez ari garenean, langileek euren familia-bizitza eta lana uztartzea ahalbidetzen duten neurriez ari gara. Kontziliazio neurriez hitz egiten hasten denean, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko tresna gisa aurkezten dira. Hau da, emakumeek lan arloan jasaten zuten (eta oraindik jasaten duten) diskriminazioaren kausetako bat amatasuna zen, argi eta garbi. Zaintza lanak euren gain hartu behar eta lana utzi behar izaten zuten asko eta askok, edo lanaldia murriztu. Horrek zekartzan ondorio guztiekin.

Kontziliazio eskubideak oso loturik daude **genero-berdintasunarekin**. Kontziliaziorako baimenen bidez, zaintza lanak eta ardura profesionalak bateragarriak izatea lortu nahi da. Hasiera batean, kontziliazioa errazteko neurriak emakumeek hartzen zituzten ia eskusiboki (eszedentziak edo lanaldi murrizketak soilik emakumeen eskubide gisa ikusi izan dira). Baina, azken urteetan, egoera hori iraultzeko asmoz, kontziliazio politiken helburua gizonak zaintza lanetan murgiltzea eta haiek ere baimenak hartzeko eskubidea dutela (eta hartu behar dituztela) azpimarratzea izan da. Modu horretan, gaur egun kontziliazio eskubideez hitz egiten dugunean emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz ere ari gara eta helburuak hauek dira: **zaintza lanak** partekatzeo neurriak martxan jartzea, gizonen parte hartzea sustatuz; **emakumeak lan merkatuan mantentzea** (baita lan-merkatura errazago bueltatzea ere) eta **soldata** edo diru sarreretan ere genero



ezberdintasunak txikitzea.

Esan bezala, ez dago kontziliazio eskubideen katalogorik, baina, oro har, eskubide hauei buruz ari gara:

- **Amatasun edo aitatasun** baimen gisa ezagutzen dena (berez, gizarte segurantzaren “jaiotza eta zaintzagariko prestazioa” da, 16 astekoa).
- Zaintzarako **eszedentziak**.
- Zaintzagariko lanaldi **murrizketak**.
- **Lanaldiaren egokitzapena**, kontziliazio arrazoiengatik (etxetik lan egitea edo asteburuko txandak kentzeko aukera ematen duena).
- **Baimen** ezberdinak (larrialdi kasuetarako 4 eguneko edo 8 asteko gurasotasun baimena).

Bestalde, badaude **amatasun biologikoa** babesteko zenbat neurri ere, kasu batzuetan kontziliazio eskubide gisa aipatzen direnak (haurdunaldian edo edoskitzean arriskuagatik Mutuek eman dezaketen prestazioa), nahiz eta helburu nagusia amaren eta haurraren ongizatea diren.

## Non daude jasota eskubide hauek?

Esan bezala, ez dago kontziliazio eskubideen zerrenda bakar bat, izan ere, langile bakoitzak ikusi beharko du zein lan-harreman duen eta, horren arabera, posible da eskubide batzuk edo beste izatea. Laburbilduz, ondorengo eskema sinplifikatua aurkez daiteke:

Lan kontratua dutenei (enpresa pribatuko langileak, gehienbat):

- **Langileen Estatutua** aplikatzen zaie eta horko

**baimenak** eskatzeko eskubidea izango dute beti (kasu batzuetan ikusi izan dut Langileen Estatutuan jasotako eskubide batzuk ukatzen dizkietela langileei, “enpresa honetan lanaldi murrizketa ezin duzu eskatu” eta halakoak esanez, eta hori ez da zuzena inolaz ere).

- **Hitzarmen Kolektiboa** ezagutzea oso **garrantzitsua** da, baliteke eta bertan baimenak hobetuta egotea (adibidez, haurrak gaixo daudenean medikura eramateko baimena izatea).

Enplegatu publikoen kasuan, berriz:

- **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua** aplikatuko da batzuetan (kasuan kasu ikusi behar, hala ere). Bertan, baldintza gehigarriak egon daitezke (aurreabisuak, etab.) edo baimen batzuk hobekuntzak dituzte Langileen Estatutuarekin alderatuta.

- **Akordio Erregulatzailerak** zein den jakitea ere garrantzitsua da, hau da, lan-eremu horretan zehazki aplikagarria den araudia. Bertan, baimen gehiago ager daitezke, baina kasu batzuetan baimenak eskatzeko baldintza zorrotzak ageri dira (zenbat eguneko aurrerapenez eskatu behar den baimena, etab.).

Bestalde, **Kooperatibak** ezin ahaztu. Kasu horietan, zein lan-harreman dagoen ikusi behar da eta, kasu batzuetan, barne-araudira jo beharko da zein kontziliazio-neurri onartu diren jakiteko.

Oinarrizko araudia guzti horretaz gain, gaur egun interesgarria da enpresako **Berdintasun Plana** eskatzea (**50 langiletik gorako** enpresa guztiek Plan hori izateko obligazioa dute, nahiz eta asko eta askok oraindik ez duten egin). Batzuetan, **Kontziliazio Planak** ere egin izan dira, Eusko Jaurlaritzak enpresetan kontziliazio neurriak sustatzeko estrategiaren barruan, adibidez.

Azkenik, familiek eska ditzaketen **dirulaguntzak** ditugu. Laguntza hauek Autonomia Erkidego bakoitzak eman ohi ditu eta, beraz, ez dira estatu mailakoak. Kontziliazio eskubideak eskatu dituzten gurasoei zuzendutako laguntzak aurki daitezke (adibidez, haurraren zaintzarengatik eszedentzian egon den ama edo aitari).

**Nola egin behar dira eskaerak?**

Langile batek enpresari eskari bat egin behar dioenean, eskaria idatziz egitea hobesten da. Kontziliazio eskubide bat eskatu behar denean, idatziz egiteak garrantzia berezia hartzen du, izan ere, gerora arazoren bat egonez gero, egindako eskari horrekin lotu daiteke gertaturikoa. Nahiz eta enpresa eta langilearen arteko harremana itxuraz ona izan, eskaria paper batean idatzita aurkeztea beti da gomendagarria.

Bi kasu aipatuko nituzke gerta daitekeena ulertzeko.

Lehen kasua: ahoz edo telefonoz arduradun batekin hitz egin eta irailean gurasotasun baimena eskatzeko asmoa dagoela adierazi du langile batek (eskolako egokitzapena dela eta). Lan kontratua aldi baterakoa da eta, bat-batean, abuztuaren erdialdera kaleratu egiten dute langilea. Kasu horietan zaila da lotura egitea baimena eskatzearen eta kaleratzearen artean, **ez dagoelako nola frogatu**.

Bigarren kasua: zaintzagatiko murrizketa eskatu du langile batek (%100a beharrean, %70a lan egin nahi du) baina dena ahoz egin dute, harreman ona dagoelako. Enpresak lanadia jeisteko, lan kontratu “berri bat” egin du eta orain lanaldi partziala duela ageri da (%70a). Langileak Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza eskatu nahi izan duenean, ukatu egin diote. Izan ere, ez da agertzen “zaintzagatiko murrizketa” duenik, baizik eta lan-kontratu partzial “arrunt” bat duela. Langileak ez duenez eskaria idatziz aurkeztu enpresan, arazoak egon daitezke egoera argitu nahi denean.

Eskaria idatziz egitea komeni dela azpimarratu ondoren, azken galdera litzateke ea non aurkeztu behar den eskaria. Hemen ere hainbat nahasmendu egon ohi da, **“baimenak”, “prestazioak” eta “dirulaguntzak”** nahastu egiten dira eta batzuetan. Oso labur esanda:

- Amatasun/aitatasun prestazioa (16 astekoa): **Gizarte Segurantzak** kudeatzen eta ordaintzen du (ez da enpresan aurkeztu eta ez du enpresak ordaintzen).

- Haurdunaldiगतiko edo edoskitzeगतik arriskuaren prestazioa: Mutuek kudeatu ohi dute.

- Baimenak, oro har (8 asteko gurasotasun baimena, edoskitze baimena, eszedentziak, murrizketak...): norberaren enplegatuak onartu behar ditu

(enpresak edo administrazioak). Ordaindutakoa denean, enpresa edo administrazio horrek ordaintzen du.

- Dirulaguntzak: administrazioak kudeatu eta ordaintzen ditu.

Laburbilduz, kontziliazio politikek lana egin eta familiaren zaintza bateragarri egiteko neurriak proposatzen dituzte, eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea dute helburu. Berdintasun Planek enpresako egoera aztertzeke eta beharrezko neurri berriak txertatzeko balio dute. Baina, oraindik ere bidea egiteko dagoenez, eta kontziliazio eskubideak egikaritzeak langilea kaltetu dezakeenez, gomendagarria da edozein eskari idatziz erregistratuta egitea.

# 0-3ko espazio-haur ratioa erokeria da

*eusma Azkona*

Badira aste batzuk Nafarroako irakaskuntza publikoan greba deialdia aurrera eraman zutela. Beste hainbat aldarrikapenen artean, ratioa aipatzen da, hau da, haur kopurua irakasle-hezitzaile bakoitzeko.

Egia da haur-hezitzaile ratioa altua dela, eta eragin zuzena duela ikasketak kalitatean. Hala baieztatzen dute hainbat ikerketek, non gelako ikasle kopuruak baduen zeresan zuzena ikasleen emaitza akademikoetan.

Badira beste ikerketa batzuk baieztatzen dutenak eragin positiboa hainbat arloetan:

Arlo kognitiboan, hizkuntza garapenean, berdinen arteko harremanetan, etab...

Ikerketa hauek guztiak oinarritzat hartzen dira aipaturiko aldarrikapenak egiteko.

0-3ko kasuan, bada Madrileko Haur Eskoletako hezitzaileei eginiko galdetegiarekin egindako ikerketa. Bertan ratio igoeraren inguruan galdegin zieten, eta ondorioen inguruan aritu ziren.

Ondorioen artean, geletan ematen ziren gatazkak nabarmen igo zirela baieztatu zuten, baita haurren urduritasun maila nabarmen gora egin zuela.

Esan daiteke pertzepzio guzti hauek berretsi egiten dutela ikerketa desberdinek baieztatzen dutena.

Hau dela eta, erakunde desberdinek beren ratio proposamena egiten dute. Hemen soilik Europako Komisiaok proposatzen dituenak aipatuko ditut:

- 0-1 urteko haurren ratioa: 1/4
- 1-2 urteko haurren ratioa: 1/6
- 2-3urteko haurren ratioa: 1/8
- 3-6 urteko haurren ratioa: 1/15

Beraz, argudio ugari ditugu baieztatzeko Haur Hezkuntzako ratioa hobetu beharra dagoela, eta Haur Eskoletako ratioa erokeria edota ergelkeria dela.



Halere, bada beste ratio bat gutxitan aipatzen dena eta benetan kezkatua naukana: Haur eta Espazio ratioak.

## **Bi adibide.**

Azken urte hauetan Haur Hezkuntzan zabaldu da “Mugimendu askean” aritzeko proposamen pedagogikoa. Hau aurrera eramateko geletako paretak bota eta espazioa egokitu egin dute.

Halere, gela haien diseinua haurrak mahai-aulkietan eseri eta orduak pasatzeko egin zen. Eta paretak botatzean, hainbat kasutan ez da nahikoa izan benetako “mugimendu askean” aritzeko.

Beste kasua, Haur Eskoletakoa.

Datu simple batzuk aurkeztuko ditut alderaketa moduan:

Nafar Gobernuako Foru Dekretuaren arabera, 1,76 m karratu haur bakoitzeko.

Europa Batasuneko araudiaren arabera, 4 m karratu oilo bakoitzeko.

Europa Batasuneko araudiaren arabera, 10 m karratu indioilar bakoitzeko.

Europa Batasuneko araudiaren arabera, 15 m karratu antzar bakoitzeko.

Hauxe ikusita, eta animalien kontra deus izan gabe, ez du inork (animalistek ere) ahotsa altxatuko gure haurrak modu honetan tratatu txarra jasateagatik?



# Gurasoekin dituzten harremanak, haurren garapenerako giltzarri

*Ieyre Cano*

Haurren garapenak lotura zuzena du gurasoekin duten harremanekin. Izan ere, **“haurrek ez dute guk esaten dieguna ikasten, garena ikasten dute”**. Mar Romera adituak azpimarratzen duen moduan, gu barneratzen gaituzte, gu ikasten gaituzte, guk egiten duguna, garena... Horregatik, kalitatezko harremanak eraikitzea eta presentzia emozionala sustatzea ezinbestekoak dira haurren hazkundean eta ongizatean.

## Zer esan nahi du horrek?

Ez dela aski hurrekin fisikoki egotea, baizik eta beraientzako prest egon behar gara, benetako arreta eta entzumena eskainiz. Hartu-emanerako prest, informazio guztia xurgatzen baitute dauzkaten “antena fin eta hipergaratuekin”. Alegia, mugikorrarekin bagaude hori barneratzen ari dira eta mugikorra beraiek baino garrantzitsuagoa dela barneratu dezakete. Haien gaudenean baina emozionalki presente ez bagaude konturatu eta eragiten die. Haien emozioak garatzeko eta bideratzeko presente eta kontziente behar gaituzte, bidelagun behar gaituzte.

## Kalitatezko harreman bat nola eraiki?

Hurrekin kalitatezko denbora igarotzea eta benetako konexioa sortzea behar dugu. Gaur egun, hiperestimulazioak, teknologiarekiko mendekotasunak eta erritmo biziko bizimoduak gurasoen eta haurren arteko hartu-emanetan eragiten dute. Emozioak ulertzeko eta kudeatzeko gaitasuna ezinbestekoa da; horrela, haurren tristura, beldurra edo haserrea besteak beste ulertu eta gidatzeko gai izan gintezke. Geure emozioetarako ere presente eta kontziente egonez.

Alde horretatik, gurasoek euren barne-mundua eta emozioak ezagutu behar dituzte, haurrak emozionalki onartzeko eta erregulatzen laguntzeko. Autoerregulazioa sustatzeko, “txupete digitalak” edo janariarekin eztanda emozionalak “partxeatu”



gabe. Horrek esan nahi du hurrei euren emozioak ulertzen eta kudeatzen laguntzea, zigorren edo erruduntasunaren ordeztu enpatia eta ulermena bultzatuz. Beldurretik, mehatxuekin nahi deguna lortu ordeztu, muga tinko eta koherenteak ezarri eta konfiantza eta konexioa mantenduz. Faber eta Mazlishek dioten moduan, “haurrek babestuta eta ulertuta sentitu behar dute beren akatsak konpontzeko eta hazteko”; horrela, gatazkak arindu eta konfiantzazko giroa eraikitzen da.

## Teknologiaren erabilera mugatu eta jolas librea sustatu

Gaur egungo haurren garapenean teknologia erabilerak eragin zuzena du. Egundak, haur txikiak denbora luzea ematen dute pantailen aurrean, eta horrek hizkuntza-garapenari, arreta-gaitasunari eta gizarte-harremanari kalte handia egin diezaieke. Adituek gomendatzen dute pantailen erabilera mugatzea eta, horren ordeztu, haurrak jolasean eta interakzioan aritzea, jolasak garapen kognitibo eta emozionalean, sormenean duen eragin positiboa dela eta.

Hainbat aditu eta ikerketen ekarpenei esker badakigu, hainbat jolasek nerbio-sistema erregulatzen laguntzen dutela, oreka emozionala indartuz. (Gai honetan murgildu nahi izan ezkeru Stuart Brown, Peter Gray, Harvarddeko Project Zero liburua edo Alé Duarteren lanetan sakontzea interesgarria izan daiteke). Jolastu gaitzen familian, helduak ere bide batez, erregulatuko gara. Naturan, etxean, non nahi, baina jolasa integratu. Ezkutaketa, ikusi makusi, Karabin karaban... halako jolasek erregulazioa sustatzen dute, jolasteak orekatzen gaitu eta jolasa da

haurren lengoia, beraz harremanetan gako izango da ere.

### **Gurasoen arteko harremanak: ereduaren indarra**

Gurasoen arteko harremana eredu zuzena bihurtzen da haurrentzat. Familia barruan maitasunez eta errespetuz jardutea, eta desadostasunak modu osasuntsu eta irekian lantzea, ezinbesteko oinarriak dira haurren garapen psikologiko eta emozionalerako.

Gurasoen arteko harreman horrek eragin zuzena du haurren autoestimuan eta haien harreman-ereduetan ere; hortaz, komunikazio-eredu horiek kontzienteki lantzea eta hobetzea baliotsua da, bai familiaren egunerokoan bai etorkizunean, haurren harreman propioetan ere, arrakasta eta ongizatea lortzeko.

**Laburbilduz**, gaur egungo erronkei aurre egiteko, gurasoek **emozionalki inplikatu** behar dute haurren garapenean eta hartu-emanetan; **kalitatezko denbora eta konexio emozionala oinarri. Haurrek, hitzen gainetik, beraienganako benetako interesa eta ulermena barneratzen dituzte**, eta, horrela, familia-harreman sendo eta osasuntsuetan hazteko aukera dute. Mar Romerak dioen bezala, “hezkuntza emozionalik gabe, ez dago benetako hezkuntzarik”.

Gaur egungo sistemak eta erritmoak zaildu egiten du gure seme-alabentzat erlaxatuta, prest eta kalitatezko denborarekin egotea. Maiz gurasoek seme-alabak eskolara eraman eta ekarriz, eskolaz kanpoko jardueraz arduratuz, otorduak, etxerako lan eta etxeko lanak kudeatuz dagoeneko nahiko lan izan ohi dute. Agian kosta dakiguke guzti horretaz deskonektatzea eta kalitatezko presentzia eskaintzea. Era berean esfortzu eta aldaketa horiekin lortu dezakegun konexioa eta onura izugarritzakoa da familia eta haurren ongizate eta satisfaziorako.

Guraso izatea bidai gorabeheratsua da, era berean ibilaldi bakoitzak maitasun eta ikasketa sakona dakar. Ematen duzun urrats bakoitza, zure seme-alabentzat ezinbesteko oparia da. Aurrera!

# Adimen artifizialaz

*Amaia Arroyo Sagasta*

Haurrek eta gazteek teknologia digitalarekin duten harremanaren inguruko eztabaidak jarraitzen duen bitartean, aspaldi gure artean dagoen eta azkenaldian denon ahotan dabilen teknologia bat ekarri nahiko nuke lehenengo lerrora: adimen artifiziala. Mugikorra zein adinekin eman behar dugun eztabaidatzen eta adosten dugun honetan, gure egunerokotasunean algoritmoak hartzen ari diren indarra eta erabakimena izugarria da.

Askok uste dute adimen artifizialaren kontua ChatGPTrekin etorri dela, baina aspaldi onartu dugu gure bizitzaren partaide aktibo bezala. ChatGPT adimen artifizial sortzailearen izebergaren punta da, baina badira beste asko. Adibidez, oporretan joateko Google Maps jartzen dugunean, adimen artifiziala ari da guztiok emandako kokapenean oinarritutako doikuntzak egiten; Netflix-era sartu eta haren gomendioei begira zerbaite ikustea erabakitzen dugunean, adimen artifizialaren irizpideak jarraitzen ditugu; edota Spotifyri abesti bat erreproduzitzeko eskatu eta horren ondorengo guztiak entzuten ditugunean, adimen artifizialak erabaki du gure abesti-zerrenda. Etxe askotan dago Alexia edo Google Home presente, eta gero eta ohikoagoa da Siri bezalako asistenteei gauzak eskatzea. Adimen artifiziala.

Horren guztiaren atzean dagoena ulertzea gakoa da; hots, adimen artifizialak nola funtzionatzen duen ulertzeko oinarritzko jakintzak eskuratzea: algoritmo bat zer den, zer den entrenamendua eta zer mota dauden, lengoia naturalaren prozesamendua edota sesgoa edo isuria zer den eta zergatik sortzen den. Adimen artifizialaren oinarritzko alfabetatzeak teknologia horren erabilerarekiko ikuspegi kritikoa garatzen laguntzen digu eta, beraz, erabaki kontzienteagoak har ditzakegu, baita gure testuingurua (mundua!) ulertzen lagundu ere, ia denean teknologia digitalak bitartekaritza lana egiten duelako.

Guraso bezala, adimen artifizialaren kontzientzian eta oinarritzko alfabetatzean ekarpena egin dezakegu. Ez dugu zertan aditu bilakatu, baina gure



seme-alabekin batera teknologia honetara hurbildu gaitzke, ezagutu eta, zergatik ez, problematizatu. Horrela, gure seme-alabekin batera ikasiko dugu teknologia digitalen bidez egiten eta gertatzen diren gauza asko magia ez direla, eta egungo txikiek eta gazteek etorkizuneko teknologien garapenean izan dezaketen rolaz jabetu gaitzke. Arlo honetan ere, hezkuntza da hitz gakoa, izan ere, teknologia digitalen (eta adimen artifizialaren) atzean dauden balioek eta hartzen diren erabakiek inpaktu handia dute gure eta milioika pertsonen egunerokotasunean. Ardura kolektiboa dugu teknologia hau ulertzen eta, oinarritzko jakintzak eskuratuta, bere diseinuari, erabilerari eta inplikazioei buruz hausnartzen.



# Jomugan

*Nakia Alkorta Elezgarai*

Azaroa heldzearekin batera agertzen dira poliki-poliki indarkeria matxistaren adierazpide desberdinen inguruko programazio bereziak, hitzaldiak, protestak eta kontzientziazio kanpainak. Azaroak 25a egutegietan gorritz markaturiko eguna da eta are ikusgarriago egiten dira inguratzen gaituzten indarkeri ilunak.

Indarkeria matxistak egiturazkoak dira, sistema bera botere rol horien gainean eta gehiegikeria horiek normalizat jota eratzten den jendarte batean bizi gara eta. Subjektu nagusizat gizonezko zis, heterosexual, zuri eta diruduna dugu eta horrekin bat egiten ez duten guztiak bera sostengatzen duten lokatzetan kokatzen gara.

Feminizidioak, indarkeria bikarioa, ekonomikoa, sexuala, arrazista, aparofobikoa, lanekoa, osasungintzakoa, judiziala... indarkeria makro eta mikroetan bizitzera ohitzera derrigortzen gaituen sistemak irensten gaitu, normala izan beharko ez litzatekeena ere normalizatzen dugun arte. Ez gara kontziente, edo ez dugu kontziente izan nahi akaso, egunero egunero zenbat "mikro"matxismok zeharkatzen gaituzten ere...

Genero roletatik eta desberdintasunak ezkututzen saiatuz hezi arren, oso txikiak direnetik hasten dira haurrak genero estereotipoen arabera jokoera sotil eta bortitzak izaten. Nola banatzen dira espazioak jolaserako eremuetan? Non kokatzen gara bakoitza? Zer gertatzen da 18 emakume eta bi gizon dauden bileretan? Zer espero du jendarteak gutako bakoitzarengatik? Zer gertatzen da mikro eta makro matxismoei aurre egin eta erantzuten hasten garenean?

Indarkeria makroen aurrean, hilketa edo haurren hilketen aurrean, ozen eta elkarrekin oihu egiten duten horiek ere badira egunerokoan indarkeria mikro etengabe tratatzen gaituztenak ere.

Eta hor nonbait, saldaren azpikaldean lapikora itsasten kokatzen gara amak. Amatasuna bera badelako indarkeria guzti horien jomuga garbia.



Ama izate soila pobrezia arrisku altuagoarekin lotzen den faktorea da Espainiar Estatuko estatistiken arabera. Amatasunean familia barneko indarkeria matxistak biderkatu egiten dira eta ihesbiderik gabe geratzen dira asko. Salaketa jartzeak haurra arrisku handiagoan kokatu edo zaintza galtzeko arriskua dakarrenean hobe da kolpeak ezkutatzea sistema honen barnean... Lana eta bizitza kontziliatzeko neurri eskasiak prekaritatea eta osasun fisiko eta mentalean zuzen-zuzenean eragiten du eta ez da kasualitatea gizon ezkonduak bizi baldintzarik onenak eta emakume ezkonduak okerrenak dituztela dioten ikerketekin topo egitea.

Egoera izugarri konplikatzen da emakume arrazializatu edo/eta migranteen kasuan eta baimen eta eskubideen unibertsaltasuna ez dagoen bitartean eta atzerritartasun legea jasaenezina da.

Amok espazio eroso eta segurua gara indarkeria matxista oinarria duen sistemarentzat, ihes egitea ezinezko den espazioa bihurtzen delako amatasuna bera ere.

Baina, ama izatea erabakitzea, baldintza horien gainetik eta horiek ez onartzeko hautuarekin, ezin da jo erabaki erraz eta patriarkatuaren jarraipena sustatzeko gisa. Sistemaren tranpan erortzearegonda ere, etengabe igerian saiatzen baikara hurrengo belaunaldietan gaur egun normalizat jotzen dugun hori ez dadin normala izan.

Indarkeria matxisten jomuga baita amatasuna, eta ezin baitugu ahaztu, azaroak 25ean ere amok sistema



aldatzeko lan isil eta etengabean ariko garela. Elkar zainduz, elkarri haurra besoetatik hartuz edo arropa pasatzeko aitzakian elkarri begiratzeko eta arnasa hartzeko zirkuluak sortzen baititugu superbibentzia instintuari segiz... Amok ere bagarelako beste zenbait pertsona, eta barne borroka horretan, kanpora begira ere etengabe gaudelako.

# Heztea, subjeten arteko harremana

*Kelde Gilbanz*

*Jakina da hezkuntza hein handi batean maitasun kontua dela. Harreman batean sortzen den prozesu bat da. Askotan modu batekoa izatea nahiko genuke, baina etengabeko erronka izan ohi da. Ze baldintzek errazten dute harreman hori positiboa izatea? Egungo hezkuntza sistemak kontutan al ditu baldintza hauek? Eta familien bizimoduak?*

Hizlari bati behin entzun nion bezala, irakasle on bat izateko nahitaezkoa da irakasten duzun hori maitatzea. Hori kutsatu egiten da eta ikaslearengan ikasteko desioa pizten du. Aldi berean irakasleak bere ikasleak maitatu behar ditu; ulertu, onartu, haientzat onena desiratu... Hala ez denean ikasleek antzematen dute eta ixteko aukera gehiago dute. Azkenik irakasle on batek bere burua maitatu behar du, soilik horrela izango bait da bere burua barkatu eta motibazioa berritzeko gai.

Adostasun maila nahiko altu lortuz ezakeen hausnarketa honek maitasuna, desioa, onarpena, konfiantza, motibazioa, harremanaz ari da. Hezkuntza sistemak darabiltzan dokumentu, dekretu eta zirkularretan, ordea, horrelako hitzak gutxitan agertzen dira. Zergatik izango da hori? Nolatan gertatu daiteke hori, ikaskuntza prozesuan hain elementu garrantzitsuak izanik?

Arrazoa, beharbada, kontzeptuok neurtzen zailak izatea da, alderdi subjektiboari dagozkiolako. Horien ordez helburu, metodologia, kompetentziak eta ebaluazio adierazleei buruz hitz egiten dugu. Baina prozesu beraz ari al gara?

Hezkuntza sistemak etengabeko aldaketa bat pairatzen ari da. Xavi Masó-k hain modu argian azaltzen duen bezala, hezkuntza sistemaren emaitza kaxkarrak argudiatuta etengabeko hobekuntza prozesu batean gaude, bere hasierako helburuak bistaz galtzeraino.

Futbol talde batek, lau zapabost jardunaldietan emaitza kaxkarrak lortu ondoren entrenatzailea aldatzen du. Gaur egungo moda industriak salmenta onak ez dituen produktu bat aste gutxitan albo batean uzten du. Eta antzeko logikari jarraituz, gure hezkuntza sistemak



desiratutako emaitzak lortzen ez dituenek, lege, dekretu, metodologia eta antolamendu eraldatze jarrai batean dago, porrotaren analisi sakona egin gabe. Ez gara hemen honen arrazoiengan sartuko, interesa duenak liburu honetan topatu dezake aipatutako autorearen analisia: *El fin de la Educación* (X. Masó, 2021).

Ikusi dezakeguna da aldaketa hauetariko asko eredu industrialetik hartuak izan direla. Jakin badakigu industrian neurtu ezin daitekeena ez dela existitzen. Prozesu ezberdinak objektiboki aztertu egiten dira eta eraginkortasunaren izenean protokolo bihurtu. Baina hezkuntzan eskema hauek hankamotz gelditzen dira.

Ikaskuntza prozesuari paradigma mekanizista honetatik begiratzeak prozesuaren esentziaz ahaztea suposatzen du. Hezkuntza subjektuei buruz da. Alderdi subjektiboa ezin da alde batera utzi.

Antolamendua protokolizatzen dugunean, maiz eraginkortasunaren izenean (gehiago lortu errekurtsu gutxiagorekin), burokrazia biderkatu egiten dugu. Dena

utzi behar da idatzita, planifikatuta, ebaluatuta... baina horrela batzuetan protokoloak prozesuak berak baino garrantzi handiagoa du eta subjektua ahaztu egiten dugu.

Hau da Nafarroako hezkuntza sare publikoko langileriaren aldarrikapen bat. Eta erabat beharrezkoa da.

Ogibidez hezitzaileak izateaz gain guraso ere bagarenok badakigu seme-alabekin konexio momentuak nekez behartu daitezkeela. Baliteke gurasoek gai bati buruz hitz egiteko ideiarekin alaba ordu erdiz eseraraztea eta ezer gutxi lortzea. Ordea, hurrengo egunean afarirako mahaia prestatzen ari garela gaia atera eta berak bere burua gehiago irekitzea.

Zer egingo du aita edo ama horrek momentu horretan? Afaria berehala prestatu edo momentua probestu eta ahal bezain beste luzatu? Zer da garrantzitsuagoa? Eta afalostean oheratzeko momentua mimo handiz zainduko dugu, bere barne mundua ireki digulako eta hori aitortu eta eskertu nahi diogulako? Ala arrapaladan egingo dugu, afalurreko solasaldiaren akta jaso behar dugulako?

Etxe batean zentzurik ez duen horrek, ikastetxe batean zentzu gehiago al du? Norbaitek argudiatu dezake profesionalak garela, eta egia da. Baina harremanen profesionalak gara eta paradigma industrial-mekanizistak ezingo dizkigu puntu hauek argitu, paradigmatz aldatu ezean ondorengo porrotaren arrazoi izkutuak izaten jarraitu daitezkeelarik.

Eraginkortasunaren izenean prozesu pertsonal-erlazional hauek optimizatzen saiatzen garenean urrezko arrautzen oiloa hiltzen ari gara. Heztea "denbora galtzea" ere bada: zaintza ez dagokidan patio batean ikasle pare bat bilatu eta agurtu, pasiloan urduri dagoen ikaslearekin egon, beste hezitzaileekin bizipen hauek partekatzeko tartea izan...

Haur edo nerabeek ikusten badute ikastetxe zein etxeetan presaka gabiltzala, alde batetik bestera, beti gauzak egiten, haiek ikusteko eta haiekin egoteko tarterik gabe, garrantzitsuak ez direla ari gara transmititzen. Ez gara haiek maitatzen ari.

Programazioek, protokoloek, burokraziak gure klaseak mimoz prestatzea galarazten badigute, gure irakasgairako maitasunak dirdira galduko du.

Eta egoera horretan hainbat urteetan dabilen hezitzailea, lankide on eta gertukoak izateko zortea ez badu, erre egingo da eta ez da bere buruarekin gustura ibiliko.

Etorri dadila orduan dagokion agintaria hezkuntza sistemaren balorazio objektiboa egitera eta asma ditzala berrikuntza berriak. Baina subjektibitatearen betaurreko humanistak jarri arte, asmatu ezinik ibiliko gara.

# Utopia

*Miren Ros Aartzaguena*

*“Utopia ortzi-mugan dago. Nik bi urrats ematen ditut, bera bi urrats urruntzen da eta ortzi-muga hamar pauso urruntzen da. Beraz, zertarako da utopia? Horretarako, ibiltzeko baliagarria da». Eduardo Galeano*

2019ko apirilean bost guraso elkartu ziren Zarautzen eta utopia bat amestu zuten: adimendu telefonoak 16 urtetik beherako gaztetxoek esku ez izatea.

Haur eta nerabeen ongizateaz kezkatuta zeuden. 9-10 urterekin aurreneko Smartphone-a eskuratzen zuten batzuk eta horrek kalte ugari eta larriak zekarkielako bazekiten. Baina nola aldatu joera, ohitura hori? Beste gurasoei galdetu zieten, ea zergatik erosi zizkieten gailu horiek bere seme-alabei eta gehien errepikatzen zen arrazoia “azkena ez izateko” edota “taldetik kanpo ez geratzeko”.

Boskoteari ideia sinplea bururatu zitzaion: gurasoekin elkartuko gara eta denon artean, taldean, gure haurrei mugikorra noiz erosiko diegun adostuko dugu. Eta saiatuko gara momentu hori ahalik eta gehien atzeratzen. Ortzi-muga: 16 urte. Hortik, taldearen izena: “Gure aukera, guk 16”. Izena zirikatzailea zen garai hartan baina guretzako garrantzitsua zen adinarena zehaztea.

Izenaren arrazoia adina zen alde batetik, 16 urteko langa hori garrantzitsua delako nerabeen garapen kognitibo, emozional eta sozialean. Eta bestetik, gu geuk, gurasook, erabakitzen dugulako noiz eman gailu hori gure seme-alabei; ez “gizarteak garamatzalako” edo “osabak oparitu nahi diolako”.

Taldearen indarrak berebiziko garrantzia du gai honetan. Gaztetxoaren inguruko lagunek mugikorrik ez badute, hark ez du berea izateko beharrik sentitzen. Eta gurasoentzako babes eta lasaitasun heldulekua da; eztabaida ez da etxe bakoitzeko eremuan geratzen den kontua, komunitatean hartzen den erabakia delako. Egungo gizarte indibidualista honetan ez da erronka makala; baina juxtu hor dago gakoa: taldearen indarrak denok babesten gaitu.

Adimendu telefono bat haurrari erosteko erabakia



gurasoek hartzen dute, baina erabaki hori “soziala” dela esan ohi dut beti, gure haur horren inguruan eragin zuzena izango baitu gailu hori ematen diogunean (lagunek ere nahiko dute eta gurasoei eskatzen hasiko dira, gurasoak urduri/nazkatu egingo dira eta azken gera ez dadin erosi diezaioke, kalera atera dezake eta lagunekin jolastu beharrean, denak mugikorrari begira egon daitezke... eragina zuzena da.

Ibilbidea ez da erraza izan, duela bost urte 16 urtetako muga hori aipatzean, jende askorentzat utopia baino, erokeria iruditzen zitzaion eta batzuk “erabilera egokian jarri behar da fokoa, ez horrenbeste adinean” esaten ziguten. Baina guk, hasieratik argi genuen: Smartphone baten erabilera egokiaz hitz egitea ez da bidezkoa: menpekotasuna sortzeko jaioa den tresna bati buruz ari gara, ez da mailu bat, ez da bizikleta bat, ez da tresna neutro bat. Gazteen garuna garatu gabe dago eta menpekotasun horri aurre egiteko baliabide biologikoak eraikitzen ari dira oraindik. Eta gainera ez dute inongo beharrik. Ez behintzat bere lagunek ez badute.

Eta denborak arrazoia eman digu.

Bidegabekeria itzela da erabiltzaile den gazte horiengan ardura jartzea. Hala hitz egin al dezakegu 9 urteko haur bati “alkoholaren erabilera egokiaz” eskutan kalimotxo bat jartzen diogun bitartean? Ez al da astakeria bat?

Telmo Lazkanok askotan aipatzen duen modura: “erabiltzaileak ezik, erabiliak izatera pasatzen dira gazteak”. Eta ezin argiago esan. Bizitzako beste



hainbat arlotan bezala, adin minimo batzuk ezartzen dira gauza batzuk egin ahal izateko. Zergatik ez gai honetan ere?

Bost guraso haiek hazia landatu zutenetik, bost urte luze pasa dira (pandemia tarteko) eta aldaketa itzela izan da:

- Ekimena hasi zen ikastolan, DBH1-en ia ikasle gehienek adimendu telefonoa izatetik, egun, %95ak ez izatera pasa gara. DBH2-an daudenen artean, %70ak ere ez du. Eta familia gehienek ikasturte honetan ez erosteko egin dute hautua.

- Datuez gain, kontzientzia ere aldatzen joan da urte hauetan egindako lanari esker: hitzaldiak, kafe-tertuliak, bideoak, monogoloa, artikulua eta bibliografiaren elkarbanatzea... eta hedabideetan gaia behin eta berriz agertzen da. Denbora pasa da eta pantailen eragina gazteengan izaten ari den eraginaz informazio gehiago dugu orain.

- Gipuzkoa mailan lehenik, eta Bizkaia, Araba eta Nafarroako ikastetxe eta herrietan ekimena zabaltzen joan gara. Kasu batzuetan, guraso bezala, taldekideok era bolondresean zabaldu dugu ekimena eta beste kasu batzuetan, era profesionalean Bidelagun bezala, formakuntza trinkoak emanaz teknologiaren erabileraren inguruan eta ekimena saio hoietan txertatuz eta taldeak martxan jartzeko argibideak emanaz.

- Lanketa honekin gai honekiko sentsibilizazioa areagotzen ari dela nabarmena da. Landatutako haziak bere fruitua ematen ari dira eta pozgarria da benetan gizartean aldaketa hori ikustea.

- 2019an 5 guraso ginen eta egun 20.000 atxikimendu dituen mugimendua sortu da (eta etengabe hasten doa), "AltxaBurua" izenpean. Izugarria da horrenbeste familia (eta hainbat profesional ere, osasun eta hezkuntzakoak, kasu) helburu baten atzetik elkartzea, bere esfortzua eta denbora modu bolondresean gogoz lan egitera eskaintzea. Zoragarria iruditzen zait gurasoek bat egitea kontu honekin, bere arteko ezberdintasunak alde batera utzita; izan ikastetxearen izaera, herria, probintzia, ideia politikoak.... Denok bat egiten dugu.

- Hala ere, familiok erakundeen beharra dugu zenbait kontu arautzeko; beste arlo batzuetan bezala. Osasun publikoko arazo baten aurrean gaude eta familiok ahal duguna egiten ari gara, baina argi dago gure arduetatik gain geratzen dela guzti honen kudeaketa. Guri dagokiguna lantzen ari gara, baina erakundeek ere busti egin beharko lukete eta erabaki ausartak hartzen hasi.

- Hala ere, bada esperantzarako argia ere: Espainiako Gobernuak bultzatu duen aditu-batzordeak egindako lan ikaragarriaren emaitza, proposatzen dituzten gomendioak, zentzuzkoak eta baliagarriak dira. Garrantzitsua orain lurralde guztietan hauek zabaltzea eta errealitate bilakatzea.

Bidea luzea izan da, harri-koskorak ere topatu ditugu eta momentu batzuetan elkarren babesa eta animoak funtsezkoak izan dira aurrera jarraitu eta ez etsitzeko. Eta horrela jarraituko dugu, hau ez baita egun bateko lana; epe-luzerako proiektua da.

Guzti honegatik, gaurko honetan bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuet nirekin batera proiektu zoro eta utopiko honetara buru-belarri sartu zintaten Ainhoa Agirreazaldegi, Amaia Elorza, Julia Laborra eta Asier Urzelairi:

Zuen gogoia, inplikazioa, esfortzua, denbora (sarritan familiari kendutakoa), umore ona, "lokatzeko lanetan" aritzearen garrantzia eta adiskidetasunak urrea balio du. Mila esker lan-taldean eta komunitatean gauzak aurrera atera ahal daitezkeela sinisten laguntzeagatik.

Eta nola ez, proiektura batu zareten Gille Dublang, Olaia Huegun eta tarte baten gurekin aritu zaren Lourdes Bravori ere, taldeari haize freskoa eta indar berriak ekartzeagatik.

Ortzi-mugan dagoen utopia horretara eskutik helduta goaz.

Elkarrekin indartsuagoak gara.

# Jostailuak ala jolaserako materiala

*Itziar Arregi Landa*

“Jostailuak” eta “jolaserako materiala”. Begiratu batean oso antzeko hitzak direla dirute, azkar esanez gero, ia ia sinonimoak ere izan daitezke, batez ere antzeko esanahiei erreferentzia egiteko erabiltzen ditugulako. Baina polikiago begiratuta, diferentziak badaude.

Jostailuak propio jolaserako sortutako materialak dira, helburu horrekin diseinatutakoak. Ez da asmakizun berria, Mesopotamian, Egipton, Grezian eta Erroman ere izan ziren, aztarnak topatu dira. Gaur egun zer esanik ez. Jostailuak umeak jolaserako erabiltzen ditu.

Baina umeak jolas egin dezake jostailurik gabe ere, are gehiago, jolas asko egiten du jostailurik gabe, bestelako materialak ere balio diolako jolas egiteko. Edozein materialek balio dezake jolas egiteko. Gainera, jostailuek ematen ez dituzten aukerak eskaintzen dituzte bestelako materialek: zapiak, kortxoek, egur zatiek, torniloek, harriek, hostoek...

Jolasa jostailuekin gertatzen dena baino askoz handiagoa eta zabalagoa da. Umeari munduak balio dio jolaserako, mundua behar du jolasteko, eta mundua jolasten du: naturak balio dio jolaserako, natura jolasten du, tresnek balio diote jolasteko, tresnak sortzen ditu. Material bakoitzak leiho bat (edo gehiago) irekitzen dio umeari.

Material bakoitzarekin lehenengo “zer da hau?” galderari erantzun ohi dio umeak bere burutxoan. Materiala esploratu eta esperimendatuko du, zer den ikusi ahal izateko: ze soinu duen, gogorra edo biguna den, ze zapora duen, ze kolore duen... eta ondo ezaugarritzen duenean, orduan beste galdera bat piztuko da bere buruan: “zertarako erabili dezaket?”, galdera honek eramango du erabilpen desberdinen inguruko saiakerak egitera, esanahi sinboliko bat egotzi, eta helduek erabiltzen duten bezala erabiltzen saiatuko da.

Hori jostailuekin ez da horrenbeste gertatzen. Zergaitik? Dagoeneko “zer da?” galdera erantzun eta



guzti ekartzen dutelako jostailuek. Umeak segituen identifikatzen du zer den: panpina, kotxea, pilota... Argi egon ohi da zer den bakoitza. Hurrengo galderari dagokionez ere, “zertarako erabili dezaket?”, nahiko erraz antzematen da. Gehiago esango nuke, zenbat eta definituagoa den jostailua, orduan eta aukera gutxiago erabilpen ezberdinak egiteko. Egur zati bat izan daiteke hegazkina, edo piraten itsasontzia, edo futbol zelai txikia, edo denda bateko erakusmahai... piraten itsasontzi bat zailagoa da futbol zelai edo hegazkin bihurtzea. Zehaztasun handiko jostailuek gai zehatzak proposatzen dituzte.

Ikusten den bezala, jolaserako gaiari dagokionez, badute desberdintasuna jostailuek eta jolaserako materialek. Jolaserako gaiaren proposamenean, diseinatzerakoan helduak izan duen intentzio horretan erreparatzen badugu, jostailuen merkaturaino iritsiko gara. Eta merkatuaren logikak argiak dira: lehenetsuna salerosketa da. Umeak eskatu arren, erosiko bada, helduaren gustokoa izan beharko da jostailua. Helduoi berriz, gustatzen zaiguna da umeak pozik ikustea, baina baita umeak etorkizunerako mundurako prestatzea ere, helduaren beharko duten horretarako. Zentzu horretan, jostailu asko helduaren munduaren neurrikoak dira: neskentzako arropa bereziko panpinak, mutilentzako abiadura handia hartzen duten kotxeak... edota helburu “nobleagoak” dituzten jostailuak, adibidez, figura geometrikoak umeak matematika ikasi dezan. Umeak helduon mundurako prestatu nahi ditugu, gure mundura egokitu nahi ditugu; eta hori baino misio borobilagoa dute: beraien mundua sortu dezakete eta sortu behar dute, beren neurriari, guk eskainitakoa hobetu beharra daukate.

Horregatik diot berriro ere, jolasa jostailua baino handiagoa eta zabalagoa da. Helduok motz geratzen gara umeen jolaserako materiala pentsatzerako orduan, eta hala behar du gainera. Itzaltzen ez badugu, infantiak badu indarra bere neurrirako mundua sortzeko. Ez gara jostailu edo jolas materialetaz ari, ume guztietaz eta ume bakoitzaz ari gara hizketan. Berez duten gaitasun horretaz, mundua egiteko duten eskubide eta gaitasun horretaz ari gara. Ea nola asmatzen dugun gure jostailu eta guzti, eskubide eta gaitasun hori zaintzen, errespetatzen, ez itotzen.

Ez dut honekin jostailurik gutxietsi nahi. Denok dugu etxean txikitatik gordeta panpinen bat, ibilgailuren bat... objektu horrek gorpuzten ditu gure oroitzapen eta jolaseko bizipenik politenak. Horretarako ere balio baitute jostailuek. Nola ukatuko diogu bada hori inori? Jostailuak gauza politak dira. Baina gogoan izan beharra dago jolasa ez dela ez hor hasten eta ez hor amaitzen. Handiagoa da. Jolasean arropa apaindu panpinari arropak kenduz gero, kotxe azkar batean joan daiteke egurrezko ohol bat konkistatzera, piraten ontzi bihurtzeko eta horrela ilargiraino iristeko hegan, han baitaude gaixotasunak sendatzen dituzten bizkotxoak.